

Bakea eta segurtasuna Nazioarteko Harremanetako teorian

iker zirion landaluze eta Itziar Mujika Chao

Cuadernos de Trabajo / Lan-Koadernoak • Hegoa, n.º 96, 2024

Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional



Consejo de Redacción

Dirección: Patxi Zabalo
Secretaría: María José Martínez
Tesorería: Eduardo Bidaurrezaga
Vocales: Elena Martínez Tola
Irantzu Mendia Azkue
Gloria Guzmán Orellana
Andrea Gago Menor

Consejo Editorial

Alberto Acosta. FLACSO, Quito (Ecuador)
Iñaki Bárcena. Parte Hartuz, UPV/EHU
Roberto Bermejo. UPV/EHU
Carlos Berzosa. Universidad Complutense de Madrid
Cristina Carrasco. Universidad de Barcelona
Manuela de Paz. Universidad de Huelva
Alfonso Dubois. Hegoa, UPV/EHU
Caterina García Segura. Universidad Pompeu Fabra
Eduardo Gudynas. CLAES, Montevideo (Uruguay)
Begoña Gutiérrez. Universidad de Zaragoza
Yayo Herrero. Ecologistas en Acción
Mertxe Larrañaga. Hegoa, UPV/EHU
Carmen Magallón. Fundación Seminario de Investigación para la Paz
Irantzu Mendia Azkue. Hegoa, UPV/EHU
Carlos Oya. School of Oriental and African Studies, University of London (Reino Unido)
María Oianguren. Gernika Gogoratuz
Jenny Pearce. London School of Economics (Reino Unido)
Karlos Pérez de Armiño. Hegoa, UPV/EHU
Itziar Ruiz-Giménez. Universidad Autónoma de Madrid
José M^a Tortosa. Universidad de Alicante
Koldo Unceta Satrustegui. Hegoa, UPV/EHU

La revista *Cuadernos de Trabajo/Lan-Koadernoak Hegoa* es una publicación periódica editada desde 1989 por Hegoa, Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, y consagrada a los estudios de desarrollo. Con una perspectiva inter y multidisciplinar, publica estudios que sean resultado de una investigación original, empírica o teórica, sobre una amplia gama de aspectos relativos a las problemáticas, marcos analíticos y actuaciones en el campo del desarrollo humano y de la cooperación transformadora.

Cuadernos de Trabajo/Lan-Koadernoak es una revista con carácter monográfico, que aparece tres veces al año y dedica cada número a un trabajo, con una extensión mayor a la habitual en los artículos de otras revistas. Disponible en formato electrónico en la página web de Hegoa (<http://www.hegoa.ehu.eus>) y en el Portal de Revistas Científicas de la UPV/EHU (<https://ojs.ehu.eus/index.php/hegoa>).

Bakea eta segurtasuna Nazioarteko Harremanetako teorian

iker zirion landaluze eta Itziar Mujika Chao
Cuadernos de Trabajo/Lan-Koadernoak Hegoa • N.º 96 • 2024
Depósito Legal: Bi-1473-91
ISSN: 1130-9962
EISSN: 2340-3187



www.hegoa.ehu.eus

UPV/EHU. Edificio Zubiria Etxea
Avenida Lehendakari Agirre, 81
48015 Bilbao
Tel.: 94 601 70 91
Fax: 94 601 70 40
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Centro Carlos Santamaría
Elhuyar Plaza, 2
20018 Donostia-San Sebastián
Tel. 943 01 74 64
Fax: 94 601 70 40
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Biblioteca del Campus de Álava
Apartado 138
Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz
Tel. / Fax: 945 01 42 87
hegoa@ehu.eus

Diseño y Maquetación: Marra, S.L.



Este documento está bajo una licencia de Creative Commons. Se permite copiar, distribuir y comunicar públicamente esta obra con libertad, siempre y cuando se reconozca la autoría y no se use para fines comerciales. No se puede alterar, transformar o generar una obra derivada a partir de esta obra. Licencia completa:

<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/>

Financiado por:

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Lanbide, Gazteria
eta Kirol Departamentua



ETORKIZUNA
ORAIN

Esta publicación
está indexada en:



Dialnet



Bakea eta segurtasuna Nazioarteko Harremanetako teorian

iker zirion landaluze. Doktorea Nazioarteko Ikasketetan eta Nazioarteko Zuzenbide Publikoko irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). Ikertzailea Hegoa, Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutuan eta Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedrako kidea, biak UPV/EHU. Bere interes- zein ikerketa-gaien artean honakoak daude: bake eraikuntza eta generoa; Nazioarteko Zuzenbide Publikoa eta Nazioarteko Harremanak; eta feminismoak eta maskulinitateen analisia.

ORCID: [0000-0002-0748-674X](https://orcid.org/0000-0002-0748-674X)

Contacto: iker.zirion@ehu.eus

Itziar Mujika Chao. Doktorea Garapen Ikasketetan eta irakaslea Politika eta Administrazio Zientzien sailean (UPV/EHU). Ikertzailea Hegoa, Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutuan eta afiliatutako irakaslea IBEI Institut Barcelona d'Estudis Internacionals-en. Bere interes- eta ikerketa-gaien artean honakoak daude: indarkeriazko zein indarkeriarik ezazko gatazken, bake eraikuntzaren eta garapenaren generozko analisiak eta analisi feministak; aktibismo eta militantzia feministak; Emakumeak, Bakea eta Segurtasuna nazioarteko agenda.

ORCID: [0000-0001-6149-0400](https://orcid.org/0000-0001-6149-0400)

Contacto: itziar.mujika@ehu.eus



Laburpena

Bakea eta segurtasuna Nazioarteko Harremanen (NH) diziplinaren funtsezko kontzeptuak dira. Historikoki hala izan dira, eta –gaur egun munduan gertatzen denari erreparatu besterik ez dago– nazioarteko agendan garrantzi eta gaurkotasun handiena izaten jarraitzen dute. Hala ere, horiek definitzeko modua oso bestelakoa izan da, batez ere joan den mendeko laurogeiko hamarkadatik aurrera, orduan korrante teoriko kritiko ugari agertu baitziren diziplinan. Testu honetan NHen esparru teorikoa aurkezten dugu, zehazkiago, bertan egondako eztabaida historikoak, gaur egungo arrazionalismoaren eta postpositibismoaren arteko eztabaidara iritsi arte. Era berean, diziplinako bakearen eta segurtasunaren azterketaren bilakaera historikoa laburbiltzen dugu. Ondoren, korrante teorikoetan bakearen eta segurtasunaren interpretazioak aztertuko ditugu. Batetik, korrante arrazionalistetan (Liberalismoa, Errealismoa eta Marxismoa); eta, bestetik, postpositibistetan, hau da, Konstruktibismoan, Teoria Kritikoan, Postestrukturalismoan, Postkolonialismoan, Feminismoetan eta Teoria Berdean. Azkenik, giza segurtasunaren ideia aztertzen dugu.

Hitz-gakoak: bakea, segurtasuna, Nazioarteko Harremanak; teoria.

Resumen

Paz y seguridad son conceptos clave de la disciplina de las Relaciones Internacionales (RI). Lo han sido históricamente y –no hay más que observar lo que sucede en el mundo hoy en día– siguen teniendo máxima importancia y actualidad en la agenda internacional. Sin embargo, el modo en que han sido definidos ha sido muy dispar, especialmente a partir de la década de los ochenta del pasado siglo, cuando una multiplicidad de corrientes teóricas críticas fue apareciendo en la disciplina. En este texto presentamos el marco teórico de las RI, más concretamente, sus debates históricos hasta llegar al actual debate entre racionalismo y pospositivismo. Asimismo, resumimos la evolución histórica del análisis de la paz y la seguridad en la disciplina. Posteriormente, analizamos las interpretaciones de la paz y la seguridad en las diferentes corrientes teóricas. Por un lado, en las corrientes racionalistas (Liberalismo, Realismo y Marxismo); y, por otro, en las pospositivistas, esto es, Constructivismo, Teoría Crítica, Posestructuralismo, Poscolonialismo, Feminismos y Teoría Verde. Finalmente, examinamos la idea de la seguridad humana.

Palabras clave: paz, seguridad, Relaciones Internacionales; teoría.

Abstract

Peace and security are key concepts of the discipline of International Relations (IR). They have been historically and – just look at what is happening in the world today – they continue to have the utmost importance and relevance on the international agenda. However, the way in which they have been defined has been very different, especially since the eighties of the last century, when a multiplicity of critical theoretical approaches began to appear in the discipline. In this text, we present the theoretical framework of IR through its historical debates until we reach the current debate between rationalism and postpositivism. We also summarize the historical evolution of the analysis of peace and security in the discipline. Subsequently, we analyze the interpretations of peace and security in the different theoretical approaches. On the one hand, the rationalist ones (Liberalism, Realism and Marxism); and, on the other, the postpositivist ones, that is, Constructivism, Critical Theory, Poststructuralism, Postcolonialism, Feminisms and Green Theory. Finally, we examine the idea of human security.

Keywords: peace, security, International Relations; theory.

Aurkibidea

1. Sarrera	4
2. Nazioarteko Harremanetako eremu teorikoaren aurkezpena	6
2.1. Eztabaida historikoak diziplinan	6
2.2. Arrazionalismoaren eta Postpositibismoaren arteko egungo eztabaida	9
2.3. Bakearen eta Segurtasunaren inguruko Ikasketen garapen historiko laburra diziplinan	12
3. Bakea eta segurtasuna korrante arrazionalistetan	15
3.1. Liberalismoa	15
3.2. Errealismoa	17
3.3. Egungo <i>Mainstream</i> positibista: Errealismoaren eta Liberalismoaren arteko elkarguneak	20
3.4. Marxismoa	21
4. Bakea eta segurtasuna korrante postpositibistetan	23
4.1. Konstruktibismoa	23
4.2. Teoria Kritikoa	25
4.3. Postestrukturalismoa	27
4.4. Postkolonialismoa	30
4.5. Feminismoak	33
4.6. Teoria Berdea	37
5. Giza Segurtasuna	41
5.1. Ideiaren jatorria eta garapena	41
5.2. Giza segurtasunari egindako ekarpenak eta kritikak	43
5.3. Giza segurtasunak diziplinako korrante teorikoekin duen harremana	44
6. Azken gogoetak	47
7. Bibliografia	49

1. Sarrera

Bakea eta segurtasuna funtsezko gaiak dira Nazioarteko Harremanetan¹. Izan ere, nazioarteko bakearen analisia –zein faktorek zailtzen duten, zein mekanismo eta politikek bultzatzen duten– diziplinaren ernamuinean bertan egon zen, duela mende bat baino gehiago, Lehen Mundu Gerra amaitu zenean. Segurtasunaren kasuan, agendan geroago sartu zen, Bigarren Mundu Gerraren ondoren, baina harrezkero protagonista izan da nazioarteko harremanen kezka akademiko eta politikoetan. Gaur egun –munduan gertatzen dena ikusi besterik ez dago–, bakeak, gatazkek eta segurtasunak garrantzi eta gaurkotasan handiko gaiak izaten jarraitzen dute nazioarteko agendan.

Eta diziplinaren kezka nagusien artean presentzia hori ukaezina bada ere, kontzeptu horiek definitzeko, ezaugarritzeko eta aztertzeko modua oso heterogeneoa izan da azken mende honetan. Aniztasun hori bereziki nabarmena izan zen joan den mendeko laurogeiko hamarkadatik aurrera, diziplinaren korrante teoriko hegemonikoekin kritikoak ziren korrante ugari agertu zirenean. Ordutik, bakoitzak bere ikuspuntutik, zalantzan jarri ditu bakearen eta segurtasunaren interpretazio nagusiak.

Nazioarteko Harremanak (NH) eta, are gehiago, bakea eta segurtasuna bezalako kontzeptu giltzarriak aztertzea eremu eztabaidatsuan sartzea da. Testu honetan ikusiko dugunez, eztabaida horiek bi abiapuntu nagusi izan dituzte: alde batetik, diziplinan zer den garrantzitsua eta zer aztertu behar den (ontologia), eta bestetik, horiek nola aztertu behar diren (epistemologia). Eta, jakina, “ideien arteko lehia” horretan, botereak zeresan nagusia du. Badaude nagusitatzeko daitezkeen korrante teorikoak aztertu behar denari eta nola egin behar denari dagokionean. Beste batzuk, berriz, ertzetan kokatzen dira, mezu hegemoniko horiei eusten diete eta haien ideia alternatiboak defendatzen dituzte. Bakearen eta segurtasunaren interpretazioak ez dio botere-logika horri ihes egiten, eta beraz, kontzeptu polisemiko horiei esanahi desberdinak eman zaizkie, onarpen-maila desberdinarekin, bai akademian bai praktika politikoan.

Lan honen helburua da, hain zuzen ere, bakearen eta segurtasunaren interpretazio desberdin horiek aztertzea NHen diziplinan, eta gainera, kritikoki aztertzea, jakitun baikara korrante gutxi batzuek leku pribilegiatua dutela, eta beste askok, berriz, ez. Horretarako, diziplinaren korrante teoriko nagusi bakoitzean bi eduki nagusi aztertuko ditugu. Alde batetik, modu laburrean, korrante horren jatorria, aurrekariak, bilakaera, oinarri teorikoak edo beste gai garrantzitsu batzuk, korrante horren pentsamendua kokatzeko, bai orokorrean, bai nazioarteko bakeari eta segurtasunari dagokionean ere; eta, bestetik, bakeak eta segurtasunak korrante horretan izan dituzten interpretazio eta eduki bereziak, eta interpretazio horiek diziplinaren garapen teorikoan zer nolako eragina izan duten.

Azterketa hau bigarren mailako iturrietan oinarritzen da. Zehatzago, bibliografia zabal batean, gehiengoan akademikoa, erreferentziazko literatura barne hartzen duena, bai NHei eta honen baitako korrante teorikoei buruzkoa oro har, bai zehazki nazioarteko bakeari eta segurtasunari buruzkoa ere.

Era berean, interesgarria iruditzen zaigu hemen bi zehaztapen aurreratzea testu honetan erabilitako terminoei dagokienean. Lehenengoa da diziplinan ez dagoela NHen azterketa teorikorako funtsezko terminoen erabilera uniformerik. Literaturan hainbat kontzeptu aurki daitezke, hala nola “korrante”, “enfoket”, “eskola”, “aldaketa”, “tradizio”, “ikuspuntu”, “paradigma”, “teoria”, etab. Kontzeptu horiek modu desberdinean erabiltzen dira, eta horrek nahasmena sor dezake diziplinara lehen aldiz hurbiltzen denarengan. Horregatik, garrantzitsua iruditzen zaigu testu honetan sarritan erabiltzen ditugun lau terminori ematen diegun esanahia azaltzea, erraz identifikatu dadin une bakoitzean zertaz ari garen. Lehenik eta behin, ezaugarri epistemologikoak eta/edo ontologikoak partekatzen dituzten korrante teorikoen multzoa definitzeko “enfoket” terminoa erabiltzen dugu. Bigarrenik, “korrante (teoriko)” terminoarekin, NHen pentsamendu-ildo nagusiei buruz ari gara (horien bidez egituratzen dugu testuaren eduki

1 Oro har, “Nazioarteko Harremanak” (letra larriz) erabiltzen da diziplina akademikoaren izena adierazteko, eta “nazioarteko harremanak” (letra xehez), berriz, nazioarteko praktika adierazteko (nazioarteko eragile desberdinen arteko harremanak).

nagusia). Hirugarrenik, “aldaerek” korronte teoriko baten barruan elementuak partekatzen dituzte, baina elkarrengandik bereizten dituzten espezifikotasunak ere badituzte, batzuetan modu nabarmenean. Eta, azkenik, laugarrenik, korronte teoriko horiek (eta haien aldaerek), beren analisietan, esparru edo gai jakin batean nazioarteko errealitatea azaltzen eta/edo hori eraldatzen saiatzen diren “teoriak” garatzen dituzte. Horrela, adibidez, enfoke postpositibistak hainbat korronte barne hartzen ditu (Postestrukturalismoa, Postkolonialismoa, Feminismoak, etab.), eta korronte horietako bakoitzak,aldi berean, hainbat aldaera barne hartzen ditu (adibidez, Feminismoen kasuan, feminismo liberala, feminismo postkoloniala, feminismo konstruktibista, etab.). Eta, korronteeek zein haien baitako aldaerek teoria zehatzak garatzen dituzte, hala nola bake liberalaren teoria (Liberalismoan), nekropolitika (Postkolonialismoan) edo sekuritizazioaren teoria (“Kopenhageko Eskola”, Konstruktibismoan).

Bigarren zehaztasunak korronte teorikoen eta/edo haien aldaeren izenari egiten dio erreferentzia. Batzuetan, izen horiek bat datoz beste diziplina batzuetan erabiltzen direnekin, nolabaiteko lotura dutelako (adibidez, oinarri teorikoak edo antzeko premisa ideologikoak); baina gerta daiteke loturarik ez izatea (McGlinchey et al., 2017: 3). Horixe da, adibidez, “Errealismoaren” eta “Neoliberalismoaren” kasua, Artean edo Ekonomian enpleguak, esanahi desberdinekin. Horrek nahasmena sor dezake eta gure buruan alde zuzenetik erakitako ideietatik askatzea eskatzen du, ulermena zaildu baitezakete. Horregatik, bat etortze hori adieraziko dugu testuan beharrezkotzat jotzen dugunean.

Testu hau gogoeta- eta idazketa-lan bateratu baten emaitza da. Lan hori egileek denboran eta bakoitzaren ibilbidean zehar beren “bizkar zorrotan” sartu duten horretan oinarritzen da, hainbat urtetako irakurketen, elkarriketen, hausnarketan, eztabaiden eta beren ikerketa- eta irakaskuntza-prozesuetan izandako esperientzien ondoren. Onartzen dugu, beraz, motxila horien edukiaren eta, oro har, nazioarteko harremanen eta, bereziki, nazioarteko bakearen eta segurtasunaren ikuskera kritikoen mezulari garelara. Era berean, eraikuntza pertsonal eta profesional horiek –gure identitateetatik eratorritako beste joera askorekin batera– zeharkatzen gaituztela sentitzeak eta jakiteak zuzen zein malgutasunez jokatzeko eskatzen digu, beti adi aldaketara eta hurbilketa berritzaileetara, eta diziplinan sortutako ezagutza berrira irekita.

Azkenik, testuaren egitura azalduko dugu labur-labur. Sarrera honen ondoren, bigarren atalean diziplinaren esparru teorikoa aurkeztuko dugu, zehazkiago, bere eztabaida historikoak, Arrazionalismoaren eta Postpositibismoaren arteko egungo (laugarren) eztabaidara iritsi arte. Era berean, laburbilduko dugu Nazioarteko Harremanen barruan bakearen eta segurtasunaren analisiaren bilakaera historikoa. Ondoren, hirugarren eta laugarren atalean, bakearen eta segurtasunaren interpretazioak aztertuko ditugu diziplinaren korronte teoriko desberdinetan. Batetik, hirugarren atalean, korronte arrazionalistetan, hau da, Liberalismoa, Errealismoa (eta gero eta ugariagoak diren bien arteko elkarguneak) eta Marxismoa; eta, bestetik, laugarren atalean, korronte postpositibistak, hau da, Konstruktibismoa, Teoria Kritikoa, Postestrukturalismoa, Postkolonialismoa, Feminismoak eta Teoria Berdea. Bosgarren atalean, giza segurtasunaren ideia landuko dugu, honen jatorria, garapen nagusiak, ekarpenak eta kritika nagusiak zein Nazioarteko Harremanen korronte teorikoekin duten lotura aztertuko ditugu. Azkenik, seigarren atalean, azken gogoeta labur batzuk jasoko ditugu, eta zazpigarrenean, erabiltako bibliografia.

2. Nazioarteko Harremanetako eremu teorikoaren aurkezpena

2.1. Eztabaida historikoak diziplinan

“Nazioarteko Harremanak” diziplina 1919an sortu zen, une hartan gertatzen ari ziren nazioarteko gertakari garrantzitsuak –batez ere, Lehen Mundu Gerra– azaltzeko elementuak eskaintzeko helburuarekin. Diziplina berria bazen ere, nazioarteko gizartearen arazo klasikoei heltzen zien, hala nola gerrari, gatazkari eta nazioarteko anarkiari (Barbé, 2007: 41)².

Ordutik, diziplinaren garapen teorikoa mundu-ikuskeren inguruan zeuden ideien konfrontazioaren bidez gauzatu da nagusiki. Horiei “eztabaidak”³ deitu izan zaie, eta besteak beste, funtsezko hiru oinarritzko gai edo ardura izan dituzte ardatz: 1) diziplinak zer aztertu behar duen (ontologia); 2) diziplinan ezagutza nola sortu behar den, hau da, zientzia nola egin behar den (epistemologia); eta 3) ezagutza hori sortzeko zein metodologia erabili behar den.

Eztabaida horiei buruzko aipamenak diziplinaren garapena azaltzeko baliagarriak izan badaitezke ere, horien bidez diziplina aztertzeak arazoak sortzen ditu. Besteak beste, Brian Schmidtek (1998: 191; 2002: 12) honako hauek nabarmentzen ditu:

- Diziplinaren “historia bakarra” nekez konta daiteke eztabaida horiek guztiak benetan gertatu ote ziren ere eztabaidagarria denean;
- Eztabaiden ikuskera hain zehatz eta mugatua eskaintzeak, adibidez eztabaida desberdinen “muga kronologikoak” ezarri (Daddow, 2009: 57), bere izaera konplexuaren zati bat galtzea dakar;
- “Eztabaida handietan” zentratzeak oihartzun gutxi edo batere ez duten diziplinako beste eztabaida (eta ahots) garrantzitsu eta interesgarri asko alde batera uztea dakar;
- Diziplinaren historia modu horretan kontatzeak errealitatean existitu ez den koherentzia-irudia ematen du;
- Edo, azkenik, diziplina elkarren segidako eztabaiden bidez azaltzeak korrante jakin bat, Errealismoa, legitimatzeko balio izan du, korrante hori hegemoniko gisa identifikatu duelako bere historiaren zati handi batean.

Izan ere, Errealismoa nagusi izan da Nazioarteko Harremanetan, bai bere proposamenen bidez, bai jasotako erantzun eta kritiken bidez ere⁴. Bere pisua hain izan da handia diziplinan, ezen, sarri asko, bere mundu-ikuskera “zentzuzkoa” (Steans eta Pettiford, 2001: 20, 42) bezala identifikatu den, edo Nazioarteko Harremanetara egindako hurbilketa teoriko ororen abiapuntu izan den (Keohane, 1989). Hala ere, Errealismoa “perspektiba bat baino ez da, ez *perspektiba*” (Steans eta Pettiford, 2001: 20), hau da, posible diren askoren artean nazioarteko errealitatea aztertzeko esparru teoriko bat da (Moure, 2009: 22).

2 Jakina, garai hura baino askoz lehenago nazioarteko gaiei buruzko analisiak egin ziren hainbat diziplinatan (Filosofia, Soziologia, Zientzia Politikoa, Ekonomia, etab.), baina NHen sorrera sinbolikoa Aberyswytheko Unibertsitatean (Gales) “Nazioarteko Harremanetarako Woodrow Wilson Katedra” sortzearekin identifikatzen da, arlo horretako lehena (Pérez de Armiño, 2019: 24-25).

3 Diziplinaren garapen historiko eta teorikoa “debateen” bitartez azaltzea eraldaketa hori azaltzeko moduetako bat da. Beste bat da, esate baterako, Martin Wightek proposatu zuena hiru “pentsamendu-tradizioen” bitartez: errealista, arrazionalista (edo internazionalista) eta iraultzailea (edo unibertsalista). Informazio gehiagorako, ikusi bere hil ondoko lana, *International Relations. The Three Traditions* (1991).

4 Gainerako korronteek sarritan euren ideiak Errealismoarekiko aurkakotasunean definitu dituzte; horrek azaltzen du, neurri batean, zergatik korrante hori beti egon den eztabaida teorikoen erdian (Moure, 2009: 22-27; 2015: 94).

Horrela, diziplina bezala egin zituen lehen urteetan, NHak sustrai liberaleko beste korrante teoriko bati lotuta egon ziren, Idealismoa bezala izendatua. Lehen Mundu Gerraren ondoko testuinguru historikoan, gerra horren zergatien azalpenean zein halakorik berriz ez errepikatzean oinarritu zituen bere ahaleginak. Horretarako, armagabetzean, estatuen arteko gatazken konponbide baketsuan eta nazioartean egonkortasuna eta segurtasuna bermatuko zituen nazioarteko erakunde baten sorreran (Nazioen Elkartea) oinarritutako nazioarteko sistema ezartzea proposatu zuen.

XX. mendeko bi mundu gerren arteko aldian, korrante horri Errealismoa kontrajarri zitzaion. Literaturan, oro har, Nazioarteko Harremanetako lehen eztabaidatzat identifikatzen da hori⁵. Nazioen Elkartearen porrotarekin eta Bigarren Mundu Gerra amaitu ostean, Errealismoa diziplinaren korrante nagusi bihurtu zen, eta testuinguru berri hartan Ameriketako Estatu Batuen diplomazia bideratzera zuzendu zen esplizituki (Barbé, 2007: 61). Oro har, eta denborak aurrera egin ahala eta beste ideia batzuekin izandako hartu emanak bere izaera aldatzen joan den arren, Errealismoaren ezaugarri nagusi hauek aipa ditzakegu: estatuak analisisien erdigunean kokatzea; nazioarteko sistemaren izaera gatazkatsua; eta boterea, interesa eta segurtasun nazionala bilatzea, horiek munduko politikaren indar garrantzitsuenak direla ulertuta.

Bigarren eztabaida XX. mendeko 50. eta 60. hamarkadetan eman zen, eta hein handi batean diziplinan zientzia egiteko moduekin erlazionatutako gaietan zentratu zen. Lehen eztabaidak giza izaeraren bi ikuskera aurrez aurre jarri bazituen (Idealismoaren ikuskera baikorra Errealismoaren ikuskera ezkorren aurrean), bigarren eztabaida honek ezagutzaren eta zientzia egiteko moduaren inguruko bi ikuskera jarri zituen aurrez aurre. Nagusiki premisa errealistak partekatzen zituztenen artean sortu bazen ere (Tickner, 2001: 23), “tradizionalista” bezala identifikatutako ikuskerak “zientifista”, “zientzista” (Barbé, 2007) edo “behaviorista” bezala identifikatutakoekin kontrajarri zituen. Azken horiek diziplinaren epistemologia eta metodologia natur zientzietan oinarritu nahi zituzten; lehenek, ordea, mundu sozialaren analisia natur zientzien metodo “zorrotzetatik” ezin zitekeela egin argudiatzen zuten (Schmidt, 2002: 11).

Azkenean, “positibismo” bezala definituta, ezagutzaren sorreran natur zientzietarako gerturatzea indartu zen diziplinan, hein handi batean, eta Ann Ticknerren (2001: 24) aburutan, lau premisatan oinarrituta:

1. Zientziaren batasuna, hau da, natur eta gizarte zientziek zientzia egiteko modu bera erabili behar dutenaren sinesmena;
2. Egitateen (objektiboak eta neutralak) eta balioen (subjektiboak) arteko desberdintasun argia;
3. Mundu sozialean kausa-ondorio harreman eta erregularitasunak existitzen direla, mundu naturalean gertatzen den moduan;
4. Epistemologia enpirikoaren garrantzia (esperientzian oinarritua) egindako baieztapenen egiazkotasuna frogatzeko.

Bigarren eztabaida horren emaitzak ez zuen ezbaian jarri Errealismoak diziplinan zeukan posizio menderatzailea, eta pixkanaka, ezagutzaren sorreraren inguruko ikuspuntu positibista nagusitzen joan zen. Honela, teorialari internazionalista asko, “errespetagarritasun zientifiko” handiagoaren bila, natur zientzietako egiteko moduetara gerturatu ziren (Tickner, 2001: 23). Dena den, epistemologia horrekiko kritika eta erresistentziak ere egon ziren, adibidez, presuntzio eta sinesmen pertsonalek errealtatearen interpretazioetan eta errealtatea azaltzeko teorien eraikuntzan duten eragina aitortzen zutenenak (Keohane eta Nye, 1977: 23).

⁵ Batzuek defendatzen dute ez zela eztabai teoriko nahikorik egon eztabaida deitu ahal izateko, eta salto bat baino ez zela egon korrante batetik bestera (Wilson, 1998; Salomón, 2002).

XX. mendeko 1970. eta 1980. hamarkadetan, beste konfrontazio bat agertu zen Errealismoaren nagusitasunaren aurrean. Eztabaida berri horretan ("eztabaida interparadigmatikoa" deitutakoa), mundu-ikuskera teorikoak –epistemologikoak baino– aurrez aurre jarri ziren (Moure, 2009: 113). Eztabaida hori "Iraultza zientifikoen egitura" (1962) liburuak markatu zuen. Liburu horretan, Thomas Kuhnnek jakintzak historian zehar natur zientzietan izan duen bilakaera aztertu zuen. Kuhnnek ideiak paradigmaren kontzeptuan oinarritzen dira, hau da, alde batetik, portaeraren premisa, printzipio eta lege orokorretan; eta bestetik, ikerketa-metodoetan, zientzia jakin batean komunitate akademikoak nagusitzat hartzen dituenen⁶. Kuhnnek ustez, une jakin batean paradigma ezberdinak batera existi daitezkeen arren, zientzia baten garapenak horietako bat nagusitzea behar du, hortik abiatuta zientzia eraikitzeko.

Bitxia bada ere, Kuhnnek berak ez zuen uste bere analisi-esparrua gizarte-zientzietan aplikatu zitekeenik (Schmidt, 2002: 10). Hala ere, esparru hori Nazioarteko Harremanetan orokortu egin zen XX. mendeko 1980. hamarkadan (Sodupe, 2003: 33). Horren ondorioz, lehenik eta behin, nazioarteko sistemaren azalpen-gaitasuna zuten paradigmak identifikatu ziren, eta ondoren, horien artean nagusiena zein zen adierazi zen. Konfrontazio-prozesu horrek ahalbidetu zuen, batetik, diziplinaren bilakaera aztertu ahal izatea, eta, bestetik, une hartako egoeraren ikuskera ordenatuagoa eta koherenteagoa eskaintzea.

Hiru izan ziren identifikatutako paradigmak⁷: errealista, globalista eta estrukturalista⁸. Laburpen gisa, eta Kal Holstiri jarraituz (1987: 8), hiru paradigma horiek hiru ezaugarri nagusiren arabera sailka daitezke, hurrengo taulan ikus daitezkeen bezala: mundu-ikuskera; lehenesten dituzten aktoreak; eta zein izan behar den Nazioarteko Harremanen aztergaia.

1. Taula. Eztabaida interparadigmatikoa			
Paradigma	Ezaugarri orokorrak		
	Mundu ikuskera	Aktoreak	Diziplinaren aztergaia
ERREALISTA	Sistema anarkikoa	Estatuak	Gerraren kausak
GLOBALISTA	Gizarte mundiala	Aktoreen pluraltasuna (estatuak, nazioarteko erakundeak, enpresa transnazionalak...)	Bakea, giza eskubideak, ekonomia globala, ingurumena
ESTRUKTURALISTA	Erdigune-periferia sistema	Gizarte klaseak, enpresa transnazionalak	Esplotazioaren kausak, justizia soziala

Iturria: Egileek egina, hemen oinarrituta: Sodupe (2003: 36).

Alde batetik, paradigma errealista estatu subiranoetan oinarritzen zen, nazioarteko sistema anarkiko baten baitan botere absolutua zuten eragile nagusi gisa. Testuinguru horretan, diziplinaren helburuak (estatuen arteko) gerraren kausak eta estatuen segurtasun militarra bermatzeko baldintzak aztertzea izan behar zuen.

6 Edo, bere hitzetan, "unibertsalki aitortutako lorpen zientifikoak, denbora batez komunitate zientifiko bati arazo eta konponbideen ereduak ematen dizkietenak" (Kuhn, 1962: viii).

7 Kuhnnek ideian oinarrituta, hots, ezagutzaren aurrerapena zientzia jakin batean paradigma nagusia zein den erabakitzeko adostasuna dagoenean gertatzen dela, hirugarren eztabaida horretan joera bat egon zen paradigma beraren barruan, *a priori* desberdinak ziren korranteak integratzeko. Horrek diziplinaren gehiegizko sinplifikazioa (Sodupe, 2003: 41) eragin zuen, heterogeneotasuna oso handia baitzen identifikatutako hiru paradigmaketako bakoitzaren barruan.

8 Diziplinako beste kontzeptu batzuekin gertatzen den bezala, paradigma horiei izendapen desberdina eman zaie, unearen eta izendatzailearen arabera. Adibidez, paradigma errealistari estatozentriko, klasiko edo neoerrealista ere deitu izan zaio; eta paradigma globalistari, transnazionalista edo neoliberal.

Beste paradigmek paradigma errealista kritikatzten zuten nazioarteko sisteman gero eta garrantzi handiagoa zuten dinamika batzuk azaltzeko gaitasunik ez zuelako, besteak beste, estatuen arteko lankidetzaren eta interakzio baketsuko harremanak egotea; estatuetatik haratago beste eragile batzuek duten garrantzia⁹; estatuen arteko harremanen izaera asimetrikoaren ondorioz dauden desberdintasun ekonomiko sakonak; edota krisi energetikoak eta moneta-sistemaren krisiak. Kezka horietako batzuk identifikatutako beste bi paradigmek jorratu zituzten.

Adibidez, paradigma globalistak erlatibizatu egiten zuen estatuak nazioarteko aktore gisa zuen garrantzia. Beretzat, aktore bat gehiago zen, beste batzuekin batera, hala nola nazioarteko erakundeekin (aurrerantzean, NE), enpresa transnasionalekin edo gizarte-mugimenduekin, zeinak, mundu-mailako gizarte konplexu baina erabat interdependente baten baitan, elkarrikeria- eta lankidetzaren logiketan funtzionatzen zuten. Paradigma horren arabera, diziplinaren aztergaia ezin zen gerrara eta horren kausetara mugatu, eta hainbat gaitara zabaldu behar zuen, hala nola interdependentsia ekonomikora, nazioarteko lankidetzara, giza eskubideetara, ingurumenara edo gosera.

Bere aldetik, paradigma estrukturalistak, munduko eskualdeen arteko desberdintasun ekonomiko sakonak azpimarratzen zituen—askotan oinarri marxistetatik (Barbé, 2007: 65)—, eta horiek posible egiten zituen munduko sistema ekonomikoa kritikatzten zuen. Ikuspuntu horretatik, estatuak —eta estatuen arteko harremanek— beste eragile batzuek baino gaitasun txikiagoa zuten errealtatea azaltzeko, hala nola klase sozialak, enpresa transnasionalak, mugimendu iraultzaileak eta abar. Diziplinaren helburu nagusiak munduko desberdintasun-egoera hori, horren kausak, kapitalismoari dagozkion nagusitasun- eta esplotazio-dinamikak eta munduan justizia sozial handiagoa lortzeko baldintzak aztertzea izan behar zuen. Estrukturalismoaren aterkipean ideia heterogeneotasun handia bildu zen (Steans eta Pettiford, 2001: 99), oso kritikoak euren artean, eta baita beste paradigmetatik oso kritikatuak ere (Barbé, 2007: 71).

Hiru paradigma horien presentzia eta parte-hartzea desberdina izan zen eztabaidetan, eztabaidak paradigma errealista eta globalistaren artean eman baitziren batez ere (Sodupe, 2003: 54). Paradigma estrukturalistaren bigarren mailako papera uler daiteke, alde batetik, haren ekarpenak neurri handi batean Hegoalde globaletik zetozelako, "diziplinako nagusitasun estatubatuarrek garapen teorikoa lotzen zuelako bere eta mendebaldeko potentzien kanpo-politikaren beharrezanekin [eta interesekin]"; eta, bestetik, bere izaera antisistemagatik, munduko ordena ekonomikoaren oinarriak zalantzan jartzen zituelako (Barbé, 2007: 69).

Denborarekin, *paradigma* kontzeptu kuhniarraren mugak eta anbiguotasunak —batez ere paradigmatako batek besteen gainetik egon behar duenaren ideia— agerikoak egin ziren (Ibidem: 56), eta korrante teorikoen aniztasuna eta bizikidetzaren naturalizatu ziren, diziplina garatzeko erabilgarriak zirelakoan. Fase berri bati ekin zitzaion, literaturaren zati batek "laugarren eztabaida" deitu duena (Battistella, 2009; Daddow, 2009).

2.2. Arrazionalismoaren eta Postpositibismoaren arteko egungo eztabaida

Laugarren eztabaida honen testuinguru historikoa bloke komunistaren desagertzea eta Gerra Hotzaren amaiera izan zen. Errealismoak gertaera erabakigarri horien aurrean erakutsitako iragarpen eta azalpen ezintasunak (Sodupe, 2003: 155) zalantzak sortu zituen korrante nagusiaren ontologia eta epistemologia positibistari buruz.

⁹ Izan ere, agerikoa zen, garai hartan, diziplinaren izenean nazioei egiten zitzaien erreferentziak ("Nazio-arteko harremanak") ez zuela behar bezala islatzen zelan nazioarteko praktikan aktore gehiagok parte hartzen zuten (Pérez de Armiño, 2019: 19).

Ordutik, diziplinaren ezaugarri nagusia oinarri filosofiko eta zientifikoak aztertzea izan da, hau da, batez ere Postpositibismotik eta Europatik bultzatutako "auto-hausnarketa", tradizionalki "diziplina amerikartzat" hartu izan denaren aurrean (Barbé, 2007: 73 eta 84). Hausnarketa horren ondorioz, eztabaida pluralagoa, konplexuagoa eta tirabiratsuagoa bihurtu da (Battistella, 2009).

Eztabaida honetan parte hartzen dute, batetik, enfoke arrazionalista edo positibistak, eta bestetik, enfoke postpositibistak¹⁰. Era berean, azken enfoke horretan, gero eta garrantzi handiagoa hartu du Konstruktibismoak, zeina posizio postpositibista batetik abiatu arren, eztabaidan tarteko egoera batean kokatu den (Wight, 2002: 36). Korrante postpositibistek zalantzan jartzen dute diziplinaren positibismo zientifikoa eta, batez ere, honako elementu hauek:

- Metodo zientifikoaren batasuna natur zientzietan eta gizarte zientzietan;
- Egitate eta balioen arteko desberdintasuna;
- Subjektu ikertzaile eta objektu ikertuaren arteko erabateko banaketa;
- Eta metodo zientifikoaren bidez aurkitu eta enpirikoki egiazta daitezkeen kausa-efektu erlazioko erregulartasunen (egiak) existentzia gizarte-munduan.

Oro har, eztabaida hiru gakotan oinarritzen da (Barbé, 2007; Hansen, 2010). Lehena, ontologia, hau da, errealitatearen definizioa, eta munduaren eta bertan existitzen denaren definizioa (Zer existitzen da? Zer ikertu behar du diziplinak?); bigarrena, epistemologia, zientziazat ulertzen denaren definizioa, ezagutza zientifikoa osatzen duena (Zer jakin daiteke? Nola eskuratu ezagutza hori?); eta hirugarrena, metodologia, hau da, ezagutza hori lortzeko eta eraikitzeko erabiltzen diren bitarteko, prozedura eta teknikak¹¹ (Zein teknika erabili ikertzeko? Zein material ikertu?).

Galdera horiei emandako erantzunetan, Postpositibismoak oinarritik zalantzan jartzen du diziplina. Adibide bezala, Battistellak (2009: 278-279) enfoke horrek planteatzen dituen galdera batzuk biltzen ditu:

“Posible al da errealitate sozialaren ezagutza zientifikoa? Ulertzean edo azaltzean datza? Zein erlazio mantentzen du ezagutza honek praktikarekin? Eta ideologiarekin? Eta balioekin? Ezagutza zientifikoa dominazio-bektore al da? Eta dominazio maskulinoaren bektore? Zein interesek gidatzen dute ikerketa zientifikoa? Existitzen al da egia zientifikorik? Kontzeptu zientifikoak unibertsalki baliogarriak dira edo mugatutako testuinguru diskurtsiboetan bakarrik dute zentzua?”.

Laburpen gisara, eta sinplifikatzeko arriskuz, 2. taulan bildu dira Arrazionalismoaren eta Postpositibismoaren arteko oinarritzeko desberdintasun batzuk. Batetik, bere ontologiari dagokionean, Arrazionalismoa materialista da, hau da, garrantzitsuena gertaerak dira, zeinak ezagutu behar diren metodo zientifikoaren bitartez. Aldiz, enfoke postpositibistak ulertzen du gertaera sozialak existitzen direla esanahi intersubjektiboak egozten dizkiegun heinean, eta horrela, existentziaz hornitzen ditugu, hau da, errealitate sozial bihurtzen ditugu. Postpositibismoaren aburutan, nazioarteko sistema ez dago ikertzen ari denarengandik eta haren testuingurutik at dauden gertaerez osatuta, baizik eta, batez ere, eraiki diren ideiez eta balioez (bere ontologia, beraz, idealista da).

10 Postpositibistez gain, literaturan beste izendapen batzuk ere aurki daitezke enfoke hori osatzen duten korranteetarako, besteak beste, “erreflektibistak” –Ameriketako Estatu Batuetako literaturan ohikoa (Daddow, 2009: 239)–, “konstruktibistak”, “kritikoak”, “alternatiboak”, “erradikalak”, “postmodernistak”, “normatiboak” edo, besterik gabe, “berriak” (Sodupe, 2003: 61; Barbé, 2007: 74). Izendapen horietako batzuk generikoegiak dira eta ez dira oso adierazgarriak; beste batzuek esanahi bikoitza dute, eta Postpositibismoan kokatzen diren korranteen multzoa nahiz horietakoren bat bakarrik definitzeko erabil daitezke. Postpositibistak terminoa erabiliko dugu hemen, laugarren eztabaida honetan eztabaidaren izaera behar bezala islatzen duela uste dugulako.

11 Adibidez, metodo kuantitatiboak, zeinak, besteak beste, datu estatistikoak interpretatzen dituzten; edo metodo kualitatiboak, esanahiak, sinesmenak eta jokaerak interpretatzen dituztenak (Daddow, 2009: 237).

2. Taula. Arrazionalismo-Postpositibismo eztabaidaren laburpena			
Enfokeak	Korronte teorikoak	Ontologia	Epistemologia
ARRAZIONALISMOA	Errealismoa Liberalismoa Marxismoa	MATERIALISTA (gertaerek bakarrik inporta dute)	POSITIBISTA Gertaerak-balioak banaketa; Objektu-subjektu banaketa; Kausalitate erlazioak; Munduaren azalpen-teoriak
	Konstruktibismo soziala	IDEALISTA (balioek eta ideiek gertaerak, errealitatea, eraikitzen dituzte)	DESBERDINTASUN BATZUK POSITIBISMOAREKIN Gertaera eta balioen arteko harreman estua; Mundua osatzen duten teoriak
POSTPOSITIBISMOA	Teoria Kritikoa Postestrukturalismoa Feminismoak Postkolonialismoa Teoria Berdea	IDEALISTA (balioek eta ideiek gertaerak, errealitatea, eraikitzen dituzte)	POSTPOSITIBISTA Gertaera eta balioen arteko harreman estua; Objektu-subjektu harreman estua; Mundua osatzen duten teoriak

Iturria: Egileek egina.

Bestalde, ikuspuntu epistemologikotik, korronte postpositibistek zientziaren sorrera-prozesuaren inguruan hausnartzen dute, eta jakitun dira "ezagutzaren helburu politiko eta sozialez, behatzailearen interes eta onarpen kognitiboez eta eragile nagusiek munduaren inguruko irudiak eraikitzeke duten modua" (Sodupe, 2003: 160). Ezagutza zientifikoa ez da objektiboa, ezta etikoki neutroa ere. Robert Coxen (1981: 128) hitzetan, "teoria beti dago norbaitentzat pentsatuta eta helbururen batekin". Ikerketaren objektua eta subjektua ez daude bereizita. Era berean, korronte teorikoa ez da aztertzen duen errealitatearekiko independentea, eta errealitatea ez dago aztertzen duen korrontetik at (Battistella, 2009: 280-281). Biak elkarri lotuta daude etengabe.

Zentzu horretan, korronte postpositibistentzat, teoriak nazioarteko munduaren deskribapen edo azalpen hutsa baino zerbait gehiago izan behar du. Argi eta garbi bereizten dira teoria esplikatzaile hutsak – natur zientziei dagozkienak, objektiboagoak – eta teoria eratzaileak edo konstitutiboak – gizarte zientziei dagozkienak –; azken horientzat, teoriak aztertzen du errealitatea, eta hori moldatu, landu eta eraiki ere egiten du. Nazioarteko Harremanak ulertzeko modua aldatzeak, beraz, funtsezko garrantzia du postpositibistentzat. Izan ere, kontua ez da munduari begiratzen diogun formak aldatzea bakarrik; mundua bera aldatzea da kontua (Hoffman, 1987: 244). Korronte postpositibisten arabera, ezagutza oro ideologikoa da, talde sozial espezifikoaren balio, ideia eta interesen isla (Steans eta Pettiford, 2001: 105). Teoriak, beraz, mundua azaltzeko ez ezik, mundua eraikitzeke ere balio du. Beste behin, Coxek dioen bezala (1992: 133), "teoriak errealitateari jarraitzen dio. Eta errealitatearen aurretik ere badago eta hori ere eratzen du".

Beraz, korronte postpositibistek ez dute enfoke positibistarekiko jarrera kritikoa soilik partekatzen. Zientziarekiko ikuskera ere partekatzen dute, errealitatea kritikoki interpretatzeko eta zalantzan jartzeko tresna baliagarri gisa, indarrean dauden botere-harremanak salatzeke, sarritan, analitik alderatzen baitira; eta, azkenik, ia guztiek, neurri handiagoan edo txikiagoan, beren helburua eraldaketa sozialerantz bideratzen duen osagai normatiboa dute¹². Zentzu horretan, "ahots periferiko" horiek (Abrahamsen, 2007: 111) kritikoki aztertzen dute Nazioarteko Harremanetako korronte nagusiek ideia hegemonikoak sortzerakoan izan duten papera.

12 Aurrerago ikusiko dugun moduan, Postestrukturalismoa desberdindu egiten da gainerako korronte postpositibistetatik hainbat zentzutan, besteak beste, izaera normatibo eta eraldatzaile horri dagokionean.

Oro har, bereziki zalantzan jartzen dute diziplinaren mendebaldeko izaera (nahiz eta berak bere burua unibertsaltzat hartu), eta baita bere izaera estatozentriko, maskulino, estatiko eta elitista ere, zeinak neurri handi batean superpotentzien politiketan, estatuetan eta botere-orekan zentratu diren. Hala, korrante kritikoan aburuz, korrante "klasikoen" zentraltasunak eta protagonismoak lagundu dute, batetik, munduan *statu quo*-a eta menderatze-harremanak mantentzen; eta, bestetik, "praktika disidenteak zapaltzen, diskurtso antikonformistak eskumatzen, desbideratutako joerak zelatatzen eta zigortzen" (Battistella, 2009: 304). Cynthia Enloe dioen moduan (1996: 186), "erdigunea" tokiren batean kokatzeak erdigune hori dagoen moduan mantentzeko eguneroko ahalegin iraunkorra dakar, eta era berean, ertzak zentrotik urrun mantentzekoa. Horrela, diziplinaren korrante nagusiak "boteretsuaren diskurtso" bihurtu dira Nazioarteko Harremanetan (Abrahamsen, 2007: 112), hau da, potentzia handien zerbitzura dagoen zientzia.

Azkenik, garrantzitsua da indarren asimetria azpimarratzea. "Arrazionalista" eta "Postpositibista" kategoriak erabiltzea baliaigarria da eztabaida ulertzeko, baina egon den eferbeszentzia teorikoa sinplifikatzen du; enfoke bakoitzaren korrante teorikoen arteko eta korrante bakoitzaren barneko aniztasuna eta desberdintasunak ezkututzen ditu; eta korrante bakoitzak diziplinaren baitan izan duen benetako garrantzia lausotzen du. Ticknerrek dioen bezala (2001: 27), bi enfokeen arteko botere-desberdintasunak zaildu egiten du euren arteko benetako elkarriketa. Korrante arrazionalistentzat, irizpide positibistek egiten dute "ikerketak zientifiko ona" eta, beraz, neurri-unitatea behar dute izan. Hori bereziki nabarmena da Estatu Batuetan, non diziplinaren korrante nagusiak ez dien jaramon handirik egin korrante postpositibistei, eta gai epistemologikoei buruzko hausnarketa gutxi egin duen¹³.

2.3. Bakearen eta Segurtasunaren inguruko Ikasketen garapen historiko laburra diziplinan

Azken mendean bakeak eta segurtasunak Nazioarteko Harremanen diziplinaren baitan zer esanahi izan duten —eta nola interpretatu diren— ulertzeko, datozen ataletan diziplinaren garapenean kontzeptu horien inguruan egon diren ikuskera desberdinak aztertuko ditugu. Ikusiko dugun bezala, egungo eferbeszentzia teorikoak isla izan du funtsezko kontzeptu horietan ere, batez ere joan den mendeko laurogeiko hamarkadatik aurrera. Une horretan, korrante postpositibistak diziplinan sartzeak planteamendu ontologiko eta epistemologikoen, agenden, kontzeptu-eremuen eta metodologiaren aniztasuna ekarri zuen, zalantzarik gabe bakearen eta segurtasunaren teorian eta praktikan eragina izan dutenak. Azterketa zehatz hori egin aurretik, diziplinan bakearen eta segurtasunaren interpretazioek izandako bilakaera historikoa aztertuko dugu labur.

Lehenago azaldu dugun moduan, bakea —eta gerra— diziplinaren jatorrian egon ziren. Lehen Mundu Gerraren amaieran, gerra eta hori ekiditeko estrategiak bilatzea elementu zentralak izan ziren diziplinak abiapuntu izan zuen korrante teorikoan (Idealismoa), eta hurrengo hamarkadetan baita Errealismoan ere.

Aldiz, Barry Buzanek eta Lene Hansenek (2009: 1-2) "Nazioarteko Segurtasun Ikasketak" bezala identifikatutakoak diziplinatik kanpo jaio ziren, laster Nazioarteko Harremanen "azpierreku" gisa barne hartu bazituzten ere. Bertan garapen zabala izan dute eta azterketa-eremu nagusietako bat bihurtu dira. Bigarren Mundu Gerra baino lehen, azterketa gerren ikasketara, ikasketa militarretara eta ikerketa estrategikoetara mugatzen zen. Gatazka militar horren ondoren, bereziki Ipar Amerikan, Europan eta Australian, berrikuntzak sartu ziren analisisan, besteak beste, segurtasunaren ikuskera politikoagoa (ez bakarrik gerran edo defentsan oinarritua) eta kezka berrien agerpena (bereziki, arma nuklearrei buruzkoa). Autore batzuen arabera (Holsti, 1998: 40), potentzien plangintza estrategikoan arma nuklearrak sartzeko proposamenak bultzatu zuen segurtasunari buruzko azterlanak diziplinaren azpierreku gisa hartzea.

¹³ Izan ere, Ticknerrek (2001: 154) agertzen duen moduan, debate epistemologikoei erreferentzia egiten dieten ekarpen gehienak Estatu Batuetatik kanpoko akademiatik datoz.

Hirurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera, nazioarteko segurtasun-agendak ikuspuntu politiko-militar soila zen hori astiro zabaldu zuen, baina Gerra Hotzaren azken fasera arte, adibidez, segurtasun ekonomikoak edo ingurumenekoak ez zuten protagonismo handiagorik izan. Gerora, laurogeita hamarreko hamarkadan, giza segurtasuna, elikadura-segurtasuna, immigrazioa eta beste segurtasun-kezka batzuk ere sartu ziren agendan (Buzan eta Hansen, 2009: 2-3). Bilakaera horretan, eta bereziki laurogeiko hamarkadatik aurrera, korrante postpositibisten zeregina funtsezkoa izan zen, ordura arte Nazioarteko Segurtasun Ikasketak segurtasunaren ikuskera errealistaren arabera sortu eta garatu zirelako, hau da, ikuskera estatozentrikoa, militarra, potentzia handietan interesatua eta gatazka bipolarrak markatua.

Segurtasunari buruzko ikuskera postpositibista horiek aterki beraren pean biltzea problematikoa bada ere (Browning eta McDonald, 2011: 237), literaturan "segurtasun ikasketa kritikoak"¹⁴ deitu zaie, ideia nagusien eta zenbait ezaugarrien aurrean duten hurbilketa kritikoak partekatzen duten neurrian. Horien artean, lehenik eta behin, maila ontologikoan, zalantzan jartzen dute segurtasuna errealtate estatikoa, objektiboa, eztabaidaiezina eta apolitikoa denik. Hori dela eta, Karlos Pérez de Armiñok (2013b: 38-39) adierazten duen moduan, segurtasuna eta mehatxuak ez daude hainbeste faktore materialen mende (adibidez, estatu baten indar militarra), tradizionalki ulertu den bezala, baizik eta faktore ideologikoen eta diskurtsiboen mende ere badaude (sinesmenak, arauak, identitateak, pertzepzioak, etab.).

Bigarrenik, maila epistemologikoan, ukatu egiten dute segurtasuna modu neutralean aztertu eta teoria unibertsal eta iraunkorren bidez azaldu daitekeenik. Hau da, segurtasunaren interpretazioa (zer babestu behar da? zein dira mehatxuak?), azken batean, mundu-ikuskeraren eta politikaren mende dago, baita interpretazio hori egiten duenaren balioen mende ere (Peoples eta Vaughan-Williams, 2010: 21-22).

Hirugarrenik, korrante kritiko horiek segurtasun-agenda zabaldu dute, eta azterketa horretan derrigor militarrek ez diren mehatxuak sartu dituzte, korrante errealistak modu hegemonikoan interpretatu duen ez bezala. Beraz, beste mehatxu batzuk sartzen dira agendan, besteak beste, ingurumenekoak (hondamendi naturalak, klima-aldaketa), Iparralde-Hegoaldea desberdintasun ekonomikoak, botere-egitura patriarkalak, egiturazko indarkeria eta abar.

Laugarrenik, estatuez haraindiko beste subjektu erreferente batzuk ere aintzat hartzen dituzte. Columba Peoples eta Nick Vaughan-Williamsek (2010: 23-24) adierazten duten bezala, estatua ezin da segurtasunaren erreferente bakarra izan —ezta nagusia ere—. Pertsonak dira segurtasun ezaren eraginpean daudenak, eta haiek dira, banaka edo taldeka (komunitateak, gizarte-mugimenduak, Gobernuak Kanpoko Erakundeak, etab.), zeregin garrantzitsua dutenak eremu horretan (mehatxuak identifikatzea, segurtasuna ematea, etab.). Diziplina, batez ere, gerraren izugarrikeriak ez errepikatzeke sortu zen, baina baita estatuen kanpo-politika demokratizatzeko asmoarekin eta pertsonen nolakabaiten konpromiso normatiboarekin ere. Hala ere, Nazioarteko Harremanek bakeari eta segurtasunari buruz eman dituzten azalpenetan, pertsonak agintean dagoen elitearen objektu gisa interpretatu dira ia beti, ez subjektu gisa (Hill, 1999: 107). Izan ere, Jacqui Truak (2009: 238) dioen bezala, korrante postpositibistak agertu arte, gerraren kausak aztertu ziren pertsonak aipatu ere egin gabe.

Eta, bosgarrenik, korrante kritiko horien izaera normatiboaren ondorioz, euren formulazio teorikoek eta praktikek bat egiten dute, neurri handiagoan edo txikiagoan, eraldaketa sozialaren eta/edo giza emantzipazioaren helburuekin (Peoples eta Vaughan-Williams, 2010: 24)¹⁵. Beraz, eta ohikoa den debatare dagokionean (Cox, 1981), teoriak arazoak konpontzera (*problem-solving* ikuspuntua) edo munduko ordena eraldatzera (*critical theory* ikuspuntua) bideratu behar ote duen eztabaidatzen duena, korrante kritikoek bigarren aukeraren alde egiten dute.

14 Letra xehez idatzita. Izan ere, aurrerago ikusiko dugun bezala "Segurtasun Ikasketa Kritikoak" (letra larritz) esamoldea Teoria Kritikoari lotutako Segurtasun Ikasketen Galesko Eskolarekin identifikatzen baita (Peoples eta Vaughan-Williams, 2010: 17).

15 Postestrukturalismoaren salbuespenarekin, aipatu dugun moduan.

Azkenik, garrantzitsua da jakitea bakearen eta segurtasunaren ikuskerek garrantzi eta eragin desberdina izan dutela euren bilakaera historikoan (Hynek eta Chandler, 2013). Aurrerago xehetasunez ikusiko dugunez, XX. eta XXI. mende ia osoan aldaera errealistak izan dira (azken hamarkadetan, liberalekin batera) nazioarteko teorian eta praktikan protagonismo handiena izan dutenak. Hala ere, korrante kritikoetarako tarte ere egon da, bi adibidek erakusten dutenez. Lehenengoa, laurogeita hamarreko hamarkadan Galesko Eskolaren ideiek izan zuten protagonismoa (Teoria Kritikoaren esparruan). Ideia horiek zalantzan jartzen zuten munduan zehar mendealdeko indarrak sustatzen ari ziren esku-hartze militarrek balio liberal eta emantzipatzaileen ondorio ote ziren. Bigarrena, hamarkada horren amaieran eta XXI. mendearen hasieran korrante postestrukturalistak eta Kopenhageko Eskolaren (Konstruktibismoa) proposamenek nazioarteko agendaren "sekuritizazioaren" inguruan egindako ekarpenek izan zuten oihartzuna, Estatu Batuek eta haien aliatuek Irailaren 11ren ondoren abian jarritako "Terrorearen aurkako Gerra" delakoaren testuinguruan.

Hirugarren eta laugarren ataletan Nazioarteko Harremanetako korrante teoriko nagusiak zein horien bakearen eta segurtasunaren inguruko interpretazioak banan-banan aztertuko ditugu. Hain zuzen, hirugarrenean, korrante positibistak/arrazionalistak: Liberalismoa, Errealismoa eta Marxismoa; eta laugarrenean, postpositibistak/erreflektibistak: Konstruktibismoa, Teoria Kritikoa, Postestrukturalismoa, Postkolonialismoa, Feminismoak eta Teoria Berdea. Azkenik, bosgarren atalean, giza segurtasunaren kontzeptuan sakonduko dugu, baita 1990eko hamarkadaz geroztik nazioarteko bakea eta segurtasuna ulertzerakoan izan duen garrantzian eta bere bilakaeran ere.

3. Bakea eta segurtasuna korronte arrazionalistetan

3.1. Liberalismoa

Internazionalismo liberala –Idealismo bezala gehiago ezagutua¹⁶– Nazioarteko Harremanen jatorrian korronte nagusia izan zen, 1919an. Urte horretan amaitu zen Lehen Mundu Gerra eta Nazioen Elkartea sortu zen, mundu mailako norgehiagoka berri bat saihesteko helburuarekin. Izan ere, korronte teoriko horrek nazioarteko bakea babesteko mekanismo gisa identifikatzen zituen estatuen arteko lankidetzak, nazioarteko erakundearen sorrera, nazioarteko zuzenbidearen garapena eta demokraziaren eta giza eskubideen sustatzea.

Korronte horren bakearen inguruko oinarriak XVII, XVIII eta XIX. mendeetako tradizio filosofiko eta politiko liberal zabal batetik datoz. Adibidez, John Lockek estatuen aurreko lege moral natural baten existentzia defendatzen zuen, pertsonak aske eta berdin bihurtzen dituen eta estatuen portaerak mugatzen dituen. Era berean, ideia horiek aurrebaldintza jakin batzuen presentzia defendatzen zuten –demokrazia aristokraziaren aurrean eta merkatu askea autarkiaren aurrean– nazioarteko harremanetan gerra ezabatzeko (Burchill, 2009: 60). Ideia horien arabera, estatuen barne-eremuan bidezko sistema politiko baten bidez pertsonen ongizatea lortzera bideratuta zeudenak, naturako legeek herrien (eta estatuen) arteko harmonian eta lankidetzan ere agintzen dute. Izan ere, Immanuel Kantek 1795ean argitaratutako “Betiereko bakea” liburuan adierazten duen bezala, bakea gauzen egoera normala da.

Giza izaerari eta nazioarteko errealitateari buruzko ideia baikor horiekin, Idealismoa sortu eta garatu zen, alde batetik, erakundetze transnazionala, zuzenbide naturala eta zuzenbide humanitarioa defendatzen zituzten mugimenduek bultzatuta (García Picazo, 1998: 51); eta, beste alde batetik, ordezkari politikoen ideiek bultzatuta, hala nola Woodrow Wilson garaiko Estatu Batuetako presidentek 1918an argitaratutako “Hamalau Puntu” ospetsuetan adierazitakoa¹⁷. Korronte horrek nazioarteko sistemaren erreforma defendatzen zuen (nazioarteko) “legearekiko errespetuan”, “balio unibertsalean” eta gerra saihestuko zituzten estatuen arteko lankidetzarako nazioarteko erakundeetan oinarrituta (Rochester, 2010: 20). Hau da, estatuen botere bortitza geldiarazteko beharrean (Meiser, 2017: 23).

Hala ere, Nazioen Elkartearen porrotak¹⁸ eta Bigarren Mundu Gerraren hasierak kolpe latza ekarri zioten proiektu liberalari, eta haren ideiak, neurri handi batean, beste korronte teoriko baten (Errealismoa) bultzadak baztertu zituen. Hala ere, Oliver Richmondek adierazten duen moduan (2012: 31, 74-78), ideia liberal horiek bakearen hainbat kontzeptu (eta teoria) elikatu zituzten NHen baitan, horien artean, adibidez, bake instituzionala, goitik beherako bake bertikal bat errazteko kudeaketa publikoa eta nazioarteko bermeen sorrera defendatzen dituenak, nazioarteko erakundearen bitartez. Bigarren Mundu Gerraren ondoren bai Nazio Batuen Erakundearen bai Bretton Woods sistemako Nazioarteko Finantza Erakundearen sorrera honen adibide dira.

Globalismoa edo Transnazionalismoa izenpean, korronte horrek garrantzia eskuratu zuen berriz ere NHen hirurogeita hamarrek hamarkadan, interdependentsia ekonomiko gero eta handiagoa eta Europako Erkidegoen garapena estatuen arteko integrazioarako paradigma gisa purian zeuden

16 Bitxia bada ere, izendapen hori hamarkada batzuk geroago Edward H. Carr egile errealistak esleitu zien, mespretxuz, eta berau izan da arrakastatsua (Pérez de Armiño, 2019: 75).

17 Wilsonek Ameriketako Estatu Batuetako Kongresuaren aurrean aurkeztu zuen dokumentua da, gerra ostean mundua berreraikitze ideiak biltzen zituenak, besteak beste, “nazioen elkarte orokor” bat sortzea, 1919an Nazioen Elkartearen sorrerari abiapuntua eman ziona. Bitxikeria moduan, gerora Estatu Batuek ez zuten nazioarteko erakunde horretan parte hartu.

18 Porrot hori agerian geratzen da, alde batetik, bere parte-hartzeagatik, aldakorra izan baitzen (adibidez, 45 estatu kide ziren 1919an; 60 1932an; eta 44 1939an) eta garai hartako potentzia batzuk falta baitziren; eta, bestetik, iraun zuen bitartean gertatu ziren gatazka armatuak saihesteko ezintasunagatik, bereziki, Bigarren Mundu Gerra.

testuinguruan. Berrikuspen liberal horrek nazioarteko harremanen begirada (errealista) gainditu nahi zuen, zeinak nazioarteko politika estatuak euren boterea eta segurtasuna handiagotzeko elkarren arteko lehia gisa ikusten zuen, politika "errepikakor" eta "estatiko" multzoa sorraraziz (Holsti, 1998: 25).

Korrante liberalaren aurrerakada horretan, Joseph S. Nye eta Robert Keohane (Keohane eta Nye, 1977; Nye, 1988; Keohane, 1989, 2002) bezalako autore garrantzitsuek diziplinaren agentzia estatuak soilik kokatzen zuen eredu estatozentriko errealistari aurre egiten zioten. Euren ustetan, nazioarteko errealitatea konplexuagoa zen, eragile gehiagorekin –kasu batzuetan, gainera, transnazionalak eta elkarrekiko interdependenteak (NE, enpresa multinazionalak, Gobernu Kanpoko Erakundeak, besteak beste)–, eta beraz, haien arteko lankidetzak eta elkarrekintza positiboak¹⁹ funtsezkoak ziren. Estatuak beren interes komunak partekatzen dituzten eta elkarrekin lan egiten duten "nazioarteko gizarte" hori "gobernurik gabeko gobernantzaren" nazioarteko testuinguru dinamiko eta sozial batean gertatzen da (Navari, 2008: 42). Horregatik da hain garrantzitsua estatuak, barne-mailan, demokrazian, gatazken konponketan eta zuzenbide-estatuan, eta, kanpo-mailan, nazioarteko erakundeetan, diplomazian eta nazioarteko zuzenbidean oinarritzea (Clark, 1996: 5).

Korrante horrek are garrantzi handiagoa hartu zuen Gerra Hotzaren amaierarekin, diskurtso eguneratu baten bidez, Institutuzionalismo Neoliberalak deiturapean eta Neoliberalismo²⁰ bezala gehiago ezagutua. Gatazka bipolarren osteko baikortasun garai hartan, eta gizarte modernoan gerrak "zaharkituta" geratu zirenen ustean, estatuak arteko interesen harmonia zen elkarrekiko lankidetzaren oinarri.

Era berean, eta korrante teoriko horrek diziplinaren ikuskera estatozentriko tradizionala kritikatzeko duen arren, estatuak –beren arabera arrazionalak²¹, demokratikoak eta merkatu-ekonomiadunak izan behar dutenak– nazioarteko harremanen eragile nagusiak direla defendatzen du. Hala ere, bere ustez nazioartean estatuak interesak hobeto defendatzen dira lankidetzarekin eta arau komunekin botere-adierazpenekin baino (Richmond, 2012: 36).

Liberalismoak diziplinari egindako ekarpen teoriko nabarmenetako bat "nazioarteko erregimenen"²² kontzeptua izan da. Stephen Krasnerrek (1983: 2) honela definitu zuen kontzeptu hori: erabakiak hartzeko printzipio, arau, agindu eta prozeduren multzoa, inplizituak edo esplizituak, formalak edo informalak, juridikoak eta/edo politikoak, zeintzuekin bat datozen nazioarteko harremanen eremu jakin batean parte hartzen duten aktoreak (estatu-mailakoak edo ez). Hau da, nazioarteko aktoreen portaera nazioarteko eremu jakin batean (segurtasuna, merkataritza, giza eskubideak, finantza-sistema, ingurumena, etab.) arautzen duten joko-arauak (Pérez de Armiño, 2019: 84).

Bada, bakearen nazioarteko erregimenaren esparruan, neoliberalismoak interpretatu du gerra "gaixotasun" bat dela, eta arrakastaz tratatu daitekeela demokraziaren eta merkatu librearen "botika bikoitzarekin". Bere

19 Estatuak arteko lehia, ikuspuntu errealistatik, "zero batura" logikari erantzuten dio, hau da, irabazi-galera logikari (batzuek galdu egin behar dute beste batzuek irabaz dezaten). Aldiz, Liberalismoak "batuketa positiboak" (denek irabazten dute) defendatzen du lankidetzak-testuinguru batean (Rochester, 2010: 20).

20 Izena partekatzen du oso bestelakoa den ideologia ekonomiko batekin, azken hiru hamarkadetan errezeta ezagunak bultzatu dituen, besteak beste deseregulazioa, pribatizazioa, zergen jaitziera, austeritatea, gastu publikoaren murrizketa edo merkatu askea. Aldiz, Nazioarteko Harremanetan, terminoa hemen aztertzen ari garen aldaerari erreferentzia egiteko erabiltzen da, zeinak estatuak normalean nazioarteko erakundeak sustatzen duten lankidetzak baketsuaren onuradun direla defendatzen duen (Meiser, 2017: 25).

21 (Neo)liberalismoak arrazionaltasuna estatuaren nahiz gizakiaren berezko gaitasun gisa hartzen du, batetik, bere interesak identifikatzeko eta defendatzeko, eta, bestetik, printzipio moralen arabera bizitzeko (Steans eta Pettiford, 2001: 53).

22 Egun termino horren erabilera diziplinan hedatuta dago, eta beste korrante batzuek ere erabiltzen dute. Izan ere, "nazioarteko erregimenen" eta partekatutako balio, arau eta erakunde "nazioarteko gizarte" baten (eta ez bakarrik "nazioarteko sistema" baten) existentzia (Bull, 1977) Eskola Ingelesaren funtsezko ideiak dira. Korrante teoriko hori, bere ideia eta izaera propioekin, berrogeita hamarreko hamarkadan sortu zen egile ingelesengandik edota unibertsitate ingelesetan zeudenengandik –hortik datorkio izena–, hala nola Martin Wight eta Hedley Bull. Liberalismoaren eta Errealismoaren tarteko eremu gisa interpretatu da (McGlinchey et al., 2017: 6). Korrante honi buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu García Segura (2015).

argudioaren arabera, estatu liberalek zuzenbide-estatu, hauteskundeak eta gobernu ordezkatzailerak, eskubide indibidualak dituzten herritarrek, iritzi publikoa, botere-banaketa eta gerra egiteko erabakia eliteek arbitrarioki ez hartzea ahalbidetzen duten beste neurri politiko-legal batzuk dituzte (Burchill, 2009: 60). Izan ere, botere militarra mugatzea (eta herritarrek honen kontrola dutela bermatzea) estatu liberalen oinarritzko kezka izan behar da (Meiser, 2017: 22). "Bake demokratikoaren" teoria hori, bere jatorrian Immanuel Kantek azaldu zuena, aro modernoan Michael Doyle bezalako egileek garatu dute, eta estatu liberal eta demokratikoek elkarren artean gerra egiteko joera txikiagoa dutela argudiatu dute. Bitxia bada ere, Doylek berak aitortzen zuenez (1986: 1161) eta esperientziak berak ere frogatzen duenez, estatu liberal demokratikoak elkarren artean baketsuagoak izatearen presuntzio horrek ez du esan nahi demokratikotzat jotzen ez dituzten estatuekin gerra egiten ez dutenik.

Teoria hori "bake liberalaren teoriarekin"²³ erlazionatzen da, giltzarri dena potentzia handiek eta NE nagusienek Gerra Hotzaren amaieratik izandako gatazkak kudeatzeko eta bakea eraikitzeke gauzatutako politikak ulertzeko. Defendatzen du nazioarteko ordena baketsuago batek zerikusi zuzena duela munduan zehar "barne-ordena zilegiak" (hau da, merkaturako demokrazia liberalak) egotearekin (Burchill, 2009: 61). Eta, zehatzago, estatu "gatazkatsuetan" estatuak, demokrazia eta balio liberalak eraikitzeke politikak sustatuz, eta sistema ekonomiko global neoliberallean txertatutako merkatu-ekonomia bat sustatuz (zirion landaluze eta Pérez de Armiño, 2019: 21-22)²⁴.

3.2. Errealismoa

Errealismoa bi mundu-gerren arteko tartean sortu zen, garai hartan Nazioarteko Harremanetan nagusi zen korrante liberalaren ideia baikorren erantzun teoriko gisa. Idealismoak estatuen arteko lankidetzan oinarritutako nazioarteko sistema politikoa eraiki zitekeela defendatzen zuen, baina Errealismoak uste zuen nazioarteko lankidetzak eta harmoniak ez zutela lekuri gatazkak eta anarkiak zuzendutako mundu batean (García Picazo, 1998: 71).

Europar, Errealismoaren ideia klasikoen artean Nikolas Makiavelo, Thomas Hobbes eta Georg Hegelek XVI, XVII eta XIX. mendeetan egindako ekarpen politiko eta filosofikoak daude. Alde batetik, Makiavelok defendatzen zuen estatu modernoaren eraketak agerian uzten zituela nazioen arteko gatazkak eta euren artean gailentzeko ahaleginak; eta, testuinguru horretan, estatuen indarra eta boterea zirela nazioarteko harremanen motorra, eta moralitasunak ez zuela lekuri. Bestalde, Hobbesek argudiatzen zuen komunitate politiko baten barne ordena eta antolaketa (kasu honetan, estatuen arteko komunitatea) ez zirela gauza "naturala"²⁵ eta, hain zuzen ere, ordena politikoaren gabezia horrek ematen ziela estatuei euren burua gobernatzeko eskubidea eta euren arteko berdintasuna. Azkenik, Hegelek, estatu-subiranotasunaren defentsan, estatuaren gainetik inolako botererik ez zegoela argudiatzen zuen, eta gerra beste estatuen aurrean euren "funtsezko interesak" defendatzeko tresna legítimo gisa onartzen zuen (hemen aipatua: Linklater, 1996: 194-197).

Bigarren Mundu Gerrakoa bezalako militarismo eta suntsipen testuinguru batean, lehenik, eta gerraosteko mesfidantza eta konfrontazio bipolarreko testuinguruan, gero, giza izaerari eta nazioarteko harremanei buruzko ikuskera ezkor hori loratu egin zen, eta Errealismoa diziplinaren korrante hegemoniko bihurtu zen. Garai hartan, Edward H. Carr (1939) eta, bereziki, Hans J. Morgenthau (1948, 1986, 1990) bezalako autoreak nabarmendu ziren. Azken horrek "Errealismo Politikoaren Sei Printzipioak" (1948: 4-14; 1990: 43-46;) identifikatu zituen, hamarkada askotan korrante horren garapena ezaugarritu dutenak: 1) politika giza izaeratik eratorritako lege objektiboek gobernatzen dute, eta, beraz, posible da horiek islatuko dituen teoria

23 Teoria desberdinak badira ere, euren arteko erlazioa hain da handia inoiz "bake demokratiko liberala" ere deitzen zaiola (Paffenholz, 2011: 140).

24 Bake liberalaren teoriari buruzko literatura (jatorria, garapena, ezaugarriak, inplementazioa, kritikak, etab.) zabala da. Gaztelaniaz, ikusi: Ruíz-Giménez (2013); zirion landaluze (2017); Mateos (2019); zirion landaluze eta Pérez de Armiño (2019: 21-23).

25 Gizakien arteko harremanetan ere ordena ez zuen naturalizat ulertzen. Hau ikusi daiteke bere esaldi ezagunenetako batean: "gizona otso da gizonarentzat".

arrazional bat egitea; 2) "interesa", botereari dagokionean ulertuta, diziplinaren funtsezko kontzeptua da; 3) interes hori (boterea) balio objektiboa eta baliozkoa da unibertsalki; 4) ekintza politikoak ere esanahi morala du, baina morala ez da Errealismoaren aztergai; 5) ez dira identifikatu behar nazio jakin baten asmo moralak lege moral unibertsalekin; eta 6) nazioarteko politika beste gai batzuekiko autonomia da, batez ere, giza izaerarekiko.

Errealismoak denboran zehar izan duen bilakaerak aniztasun teoriko handia sortu du bere baitan²⁶, eta ez da erraza ezaugarri komun batzuk identifikatzea. Esther Barbé (2007: 62) horretan saiatzen da, eta hiru hauek aipatzen ditu: 1) estatua (aktore arrazionala dena) protagonista da; 2) segurtasun nazionalaren lehentasuna bitarteko militarren bidez; eta 3) mundua anarkiko eta biolentotzat definitzea. Beraz, bere abiapuntu da nazioarteko sistema agresiboa eta mundu-gobernurik gabea dela, non botere-oreka eta estatuek beren interesak eta segurtasuna bilatzea funtsezko gaiak diren.

Laurogeiko hamarkadan, Kenneth Waltzen *Theory of International Politics* (1979) liburuaren eraginak lagunduta, korrante hau eraberritu egin zen, eta Neorrealismo terminoa erabiliz irudikatu zen eraberritze hau. Bere helburua Errealismo Politikoa erantzunik ematen ez zien gai batzuei erantzutea zen, eta bere analisia nazioarteko sistemaren egituretan zentratu zuen, sistema osatzen duten estatuetan baino gehiago (horregatik deitu izan zaio Errealismo Estrukturala). Horregatik, nazioarteko sistema gatazkatsua bada, anarkikoa delako da; hau da, ez dago agintaritzaren zentralik, eta estatuen portaera sistemaren egitura horiek eskaintzen dituzten mugen barruan ulertu behar da (Waltz, 1979). Neorrealismoak, beraz, beste korrante batzuen elementu teoriko batzuk bereganatu ditu, aurreko eztabaidetan aurrez aurre izan zituen izaera liberalekoak barne, eta horrek diziplinaren *mainstream*aren barruan mantentzea ahalbidetu dio. Adibide gisa, estatuen arteko lankidetzaren eta nazioarteko erakundeen protagonismoa sartu ditu bere azterketan (Steans eta Pettiford, 2001: 36, 40).

Errealismoak beti uste izan du bere ideiak direla hobekien irudikatzen dituztenak bai nazioarteko errealitatea –hortik dator Edward H. Carrrek korronteari jarritako izena– bai klase politikoaren borondatea eta interesak ere (Antunes eta Camisã, 2017: 17). Izan ere, Nazioarteko Harremanen historian zehar izan duen nagusitasuna, hein batean, korrante horrek Estatu Batuetako kanpo-politikarekin izan duen lotura estuak azaltzen du (Tickner, 2001: x; Sodupe, 2003: 43)²⁷. Zentzu horretan, bere ikuskera ez da neutroa, nazioarteko harremanak interpretatzeko modu berezi eta interesatu bat baino. Literaturan adierazten den moduan, Errealismoa ez da marko teoriko bat bakarrik izan, nazioarteko politika jakin batzuk legitimatzeko tresna ere izan da (Sodupe, 2003: 43), hau da, "proiektu politiko bat... potentzia handien interes nazionalaren mesedetan" (Moure, 2015: 93)²⁸.

Segurtasunari dagokionean, hasiera-hasieratik izan zuen garrantzia agenda errealistan. Horrela, Arnold Wolfersek (1952) aitortu zuen moduan, "estatu gehienak, gehienetan, kezkatu egin dira, eta horretarako arrazoiak izan dituzte, balizko segurtasun faltagatik". Raymond Aronek 1962an argitaratutako *Paix et guerre entre les nations* lanean (2004: 83), segurtasuna estatuen kanpo-politikaren "helburu eternalizat" jotzen zuen. Eta Kenneth Waltzek (1979: 126) ere, estatuen "lehen helburutzat" jo zuen, estatuak segurtasuna bermatu dutenean bakarrik saia daitezkeelako beste helburu batzuk betetzen (onura edo boterea,

26 Errealismoaren baitan sortu dira, beste aldaera batzuen artean, Errealismo Politikoa (Bigarren Mundu Gerraren ostean); Errealismo Hegemonikoa; Errealismo Estrukturala edo Neorrealismoa (laurogeigarren hamarkadan); Errealismo Defentsiboa, Errealismo Ofentsiboa eta Errealismo Neoklasikoa (Gerra Hotzaren amaieraren ostean); eta errealista bezala autoidentifikatzen ez diren beste aldaera batzuk ere, hala nola Soziologia Historiko frantsesa (Barbé, 2007: 63; Pérez de Armiño, 2019: 51). Atal honetan horietako batzuk bakarrik aztertzen ditugu.

27 Are gehiago, bere erreferente akademiko askok, Morgenthauk barne, uneren batean gobernu estatubatuararentzat lan egin dute.

28 Zentzu honetan, eta Sandrina Antunes eta Isabel Camisãk (2017: 17) azaltzen duten moduan, dudak dago zenbatera arte korrante honek deskribatzen duen mundu bortitz eta lehiakorren bermatzen ere laguntzen duen, hau da, giza izaeraren bere interpretazio ezkorrak eta nazioarteko sistemaren interpretazio anarkikoak ez al duten laguntzen liderrek euren ekintzak konfidantza-gabezia, boterean eta indarrean oinarritzea, ideia horiek "autobetetzen den profezia" batean bilakatu arte.

esaterako). Zentzu horretan, korronte honek gerra *high politics*²⁹ bezala hartu du, alegia, diziplinaren funtsezko gai bezala.

Segurtasunaren bilaketa horretan, estatua da subjektu erreferente, indarraren erabilera (bereziki, militarra) da haren tresna nagusia, eta bere biziraupena bermatzea helburu gorena (Steans eta Pettiford, 2001: 32-34 eta 95). Beraz, kanpoko mehatxuak lehentasuna dira, eta segurtasun nazionalako politikak mehatxu horiei aurrea hartzeko balio dute (Buzan eta Hansen, 2009: 21). Etsaien disuasioa eta aliatuen babesa bultzatuko duen botere-metaketa (militarra) garrantzitsuak dira (Navari, 2008: 42). Ez da harritzekoa, beraz, Errealismoak hamarkada askotan zehar segurtasun ikasketak, ikasketa estrategikoekin identifikatu izana (Battistella, 2009: 509), zeinak "indar militarren mehatxua, erabilera eta kontrola aztertzea" bideratu diren (Walt, 1991: 212).

Gerraren ikuskera errealista agerian geratu zen Kenneth Waltzen lan goiztiar batean –*Man, the State and War. A Theoretical Analysis* (1959)—, non gerraren zergatiak azaltzeko "hiru irudiei" erreferentzia egiten dien. Lehenengoa, "gizonen" izaera zeken, oldarkor eta berekoia; bigarrena, estatuek beren interes propioen etengabeko bilaketa, askotan indarraren erabileraren mehatxupearan edo indarra erabiliz; eta, hirugarrena, nazioarteko sistemaren egitura anarkikoa (gubernurik eza). Logika horretan, nazioarteko harremanen ikuskera negatibo hori azaltzeko ohiko analogia da billar-bolena: nazioarteko sistema billar-mahai bat da, eta estatuak (ente itxi eta zeharkaezinak) bolak dira, etengabeko talka batean (Barbé, 2007: 62).

Zentzu horretan, mundu inperfektu batean, gerra bezalako ekintza desatseginak estatua mantentzeko beharrezko tresna gisa ulertzen dira eta interes nazionalaren izenean erabiltzen dira (Antunes eta Camisão, 2017: 20). Charles Tilly (1985) eta Philip Bobbitt (2002) autoreek ikuskera errealista horretarako oinarri historikoa eskaintzen dute. Iraganean, segurtasunik eza, indarkeria eta gerra ezinbestekoak izan dira estatuak sortzeko eta horiek bizirik irauteko. Horrek hierarkia bat ezartzen lagundu du, zeinaren arabera segurtasun nazionala –estatuaren babesa kanpoko mehatxuen aurrean, horiek benetakoak edo hautemandakoak izan— justizia globala edo pertsonen ongizatea bezalako gaien gainetik dagoen (Goodhand, 2006: 30). Interpretazio horrekin, estatuen arteko gerra saihestezina da; izan ere, nazioarteko harremanen egoera normala da. Horrek ez du esan nahi botere militarra une eta leku guztietan erabili behar denik, baizik eta modu arrazionalen, zeren eta neurritz kanpoko edo denboran mantendutako erabilera batek erresumina, laidoak eta gorrotoa eragin baititzake (Antunes eta Camisão, 2017: 20).

Gerraren interpretazio hori, gainera, bakearen beste interpretazio batekin batera doa (Richmond, 2012: 32 eta 39), zeina, alde batetik, mugatua eta epe laburrekoa den, indarkeria zuzena eta fisikoa azkar geldiaraztea interesatzen zaiolako; eta oinarritzko segurtasuna eskaini nahi duelako, bai etsaia garaipen militarren bidez neutralizatuz (normalean "garailearen bakea" esaten zaio), bai hertsaduraren edo inposizioaren bidez menderatuz, bai hura disuadituz (Ibidem: 101). Eta, bestetik, bakearen ikuskera hori minimalista eta negatiboa ere bada, gatazka armaturik eza bezala ulertzen delako.

Segurtasunari, gerrari eta bakeari buruzko Errealismoaren interpretazio horiek hegemonikoak izan dira Nazioarteko Harremanetan, eta horrek azaltzen laguntzen du zergatik diziplina gehiago ezaugarritu duen indarkeriak bakeak baino (Ibidem: 32). Izan ere, ez Gerra Hotzaren amaieran nazioarteko testuinguruan gertatu ziren aldaketa sakonak aurreikusteko gaitasunik ezak (Battistella, 2009: 518), ez barne-banaketek, ezta kanpo-kritikek ere (Elman, 2008: 27), ez dute lortu Errealismoak bakearen eta segurtasunaren ikasketei egindako ekarpenen izaera zentrala aldatzea. Kontrara, 2001eko irailaren 11ko gertaerak eta Ameriketako Estatu Batuek berehala hasitako "Terrorearen aurkako Gerra" bezalako gertaerak, edo berriagoak diren beste batzuek, hala nola Errusiak Ukraina inbaditu izanak, segurtasunaren ikuskera errealistaren protagonismoa indartu dute (Battistella, 2009: 536).

29 Stanley Hoffmannek (1966) diziplinak aztertutako gaiak hierarkizatu zituen Errealismoak ematen zien garrantziaren arabera, eta honako banaketa egin zuen: *high politics* (goi-mailako politika), kanpo politika, diplomazia, geopolitika eta gerra barne hartzen dituena; eta *low politics* (behe-mailako politika), ekonomia, gai sozialak eta ingurumena, besteak beste, barne hartzen dituena.

3.3. Egungo *Mainstream* positibista: Errealismoaren eta Liberalismoaren arteko elkarguneak

Errealismoak eta Liberalismoak –garai historiko desberdinetan– Nazioarteko Harremanen konfrontaziorik zaharrena eta sakonena protagonizatu dute, eta, bitxia bada ere, denborak aurrera egin ahala, planteamendu askotan bat egin dute. Bere ezberdintasunak eta antzekotasunak, bere izaera eta bilakaerak ez ezik, azken mende honetan nazioarteko politikaren ezaugarri izan diren gertaera historikoei ere baldintzatu dituzte. Lehen Mundu Gerrak eta Bigarren Mundu Gerrak Idealismoa eta Errealismoa taxutu zituzten moduan, Gerra Hotzaren etapa ezberdinek zein horren amaierak Neorrealismoan eta Neoliberalismoan eragina izan dute, baita bi korronteen arteko harremanean ere.

Adibidez, alde batetik, hirurogeita hamarrek hamarkadak eta Gerra Hotzeko distentsio-aldiak diziplinan eraldaketa sakonak ekarri zituzten, batez ere akademiaren zati bat Errealismoak erantzuten ez zituen galderak egiten hasi zelako. Paradigma berriak edo berrituak agertu ziren, munduaren interpretazio desberdinekin, nazioarteko gizartean izandako aldaketak azaltzen saiatu zirenak. Bestalde, Gerra Hotzaren amaierarekin batera, nazioarteko egonkortasuna berreskuratzeko beharra ageriratu zuen, Ian Clarke (2001: 238) adierazten duen bezala, estatu boteretsuenek beren nagusitasuna mantentzeko kutsu liberaleko politikak erabili zituztelako, baita nazioartean ere. Eta, prozesu horretan –oraindik jarraitzen duena–, garrantzitsua da ulertzea mendebaldeko estatuak aurrerapen liberalaren ideia sustatzeaz gain, batez ere, nazioarteko gizartearen aldaketetara egokitu nahi izan dutela, euren pribilegio-egoera mantentzeko asmoarekin. Testuinguru berri horrek, Barberen hitzetan (2007: 63), "mundu sinple" batetik, hau da, goi-mailako politikatik (*high politics*), "mundu konplexu" batera pasatzea ekarri zuen, faktore sozialek, ekonomikoek, ingurumenek eta abarrek baldintzatutakoa, hau da, *low politics* delakoek baldintzatutakoa.

Eta, Errealismoak eta Liberalismoak korronte bateraezinak ziruditen arren, aipatutako aldaketen ondorioz, besteak beste, laurogeiko hamarkadatik aurrera haien arteko elkarriketa estutu egin da, enfoke arrazionalistaren barruan antzeko ikerketa-programa bat izateraino (Salomón, 2002). Bat datoz, besteak beste, oinarri zientifikoekin, hau da, zientziaren hurbilketa positibistarekin; nazioarteko sistemaren ikuskera anarkikoarekin; edo nazioarteko arauak eta erakundeek sistema anarkiko horretan estatuen portaeran duten eraginaren azterketarekin (Waeber, 1996: 163; Barbé, 2007: 74 eta 77-83).

Hala ere, Mónica Salomónek (2002: 9 eta 17) dioen moduan, bi korronte horiek bat egin ez izanak esan nahi du oraindik desberdintasunak egon badaudela. Horien artean, autore horrek aditzera ematen duenez, bi korrontetako elementu klasikoek (adibidez, Errealismoaren ezkortasuna edo Liberalismoaren lankidetzaren sustapena) Neorrealismoaren eta Neoliberalismoaren egungo diskurtsoetan duten pisua dago. Stephen Krasnerrek (2001: 22), bestalde, estatuak aurre egin beharreko funtsezko arazoan identifikazioan desberdintasunak daudela adierazi du: Neorrealismoarentzat segurtasuna eta gatazkak dira arazoa; Neoliberalismoarentzat, berriaz, merkatuaren akatsak konpontzea.

Desberdintasunak desberdintasun, hurbilketa horrekin, bi korrontek pentsamendu uniformeak garatu dute, etnozentrikoa, nagusiki kontserbadorea (Steans eta Pettiford, 2001: 40), eta, batez ere, Estatu Batuek oraindik ere rol nagusia duten nazioarteko sistema baten *statu quo*-a mantentzera zuzenduta dagoena³⁰ (Barbé, 2007: 77, 81-82). "Neo-neo sintesi" horretan (Waeber, 1996: 163; Tickner, 2001: 25) edo "Errealismo liberal" horretan –Richmondek (2012: 168) deitzen dion moduan–, estatuaren lurralde-subiranotasuna da markoa, eta nazioarteko gobernantza erronka nagusia. Era berean, mehatxuak eta indarraren erabilerak, estatuen kontrolpean daudenak, sostengatzen dituzte eredu demokratiko eta liberalean oinarritutako nazioarteko erakunde politiko, sozial eta ekonomikoak (Ibidem: 41). Beraz, nazioarteko politikaren ikuskera estatubatuarrekin bat ez datozen beste ikuskerak modu oso eraginkorrean isilarazten dituen mendebaldeko elkarriketa bat da (Smith, 1995: 24); hau da, interes "ofizial" nagusiak lehenesten ditu, eta

30 Goian egin diogu erreferentzia diziplinaren izaera estatubatuarri. Ez da kasualitatea, Gerra Hotzaren amaieraz geroztik, bi korronte horiek izana bai Ameriketako Estatu Batuen kanpo politikan zein Nazioarteko Harremanetako Teorian eragin gehien izan dutenak (Barbé, 2007: 77).

ez ditu kontuan hartzen –eta, sarritan hauen aurka egiten du– eragile politiko eta ekonomiko global ez-ofizialen eta munduko biztanle gehienek kezka (Richmond, 2012: 245).

Hau da laurogeita hamarreko hamarkadaz geroztik praktikara eramandako nazioarteko bake- eta segurtasun-politika nagusiak zein diziplina bera markatu dituen esparru teoriko hegemonikoa. Goian esan dugunez, zailagoa da esparru horretan aldaketak aztertzea gertatzen ari diren unean, hau da, gaur egun gertatzen ari diren aldaketak aztertzea. Hala ere, azken urteetan, gero eta ahots gehiago entzuten dira izaera liberal, multilateral eta mendealdekoa duen bake eta segurtasun eredu horren eraldaketak, nekezantzuak eta gainbehera identifikatzen dituztenak (Richmond eta MacGinty, 2015; Mateos, 2019; Iñiguez de Heredia eta Robson, 2024), baita bake postliberal baterantz aurrera egiteko proposamenak ere (Pérez de Armiño eta zirion landaluze, 2019).

3.4. Marxismoa

Marxismoa³¹ –diziplinan Estrukturalismo bezala ere identifikatua– Nazioarteko Harremanen korrante gisa sortu zen hirurogeita hamarreko hamarkadan. Diziplina horretan, elementu positibista batzuk zein agenda normatibo eta eraldatzailea konbinatzen ditu, zeina gatazken eta bakearen inguruko interpretazio nagusia aspektu politiko eta segurtasunezkoetatik sistema kapitalista globalaren harreman ekonomiko desberdinetara mugitzen saiatu den. Izan ere, ez du uste gatazka armatuak edo segurtasun gabezia nazioarteko ordenaren anarkiaren ondorio direnik, kapitalismo globalaren izaera esplotatzailearen ondorio baizik; hau da, elite sozio-ekonomikoen etekin gehiago eskaintzen dizkieten merkatu eta baliabide berriak etengabe bilatzearen ondorio (Daddow, 2009: 123), klase sozialen arteko hierarkiaren ondorio eta estatu garatuen eta azpigaratuen arteko harreman ekonomiko desorekatuen ondorio³².

Karl Marxek, korrante horren erreferente ideologikoak, NHei egindako ekarpenen artean dago ekoizpen-eredu kapitalista (indarkeria eta gatazka eragiten dituen) eta estatu subirano modernoaren sistema ez direla ez naturalak eta ez saihestezinak, baizik eta elkarren mendeak eta baldintza historiko zehatz batzuen eta dauden gizarte-harremanen ondorio direla. Hala ere, materialismo historikoaren ideia horrek adierazten duen bezala, oinarri diren baldintza materialak pertsonen zein gertaerak alda ditzakete. Ideia horiek Rosa Luxemburgo edo Vladimir Lenin bezalako egileek garatu eta nazioarteko prozesuetara aplikatu zituzten ondoren; hain zuzen, inperialismoan jarri zuten arreta, eta kapitalismoari esker XX. mende hasierako gertaera historikoetara nola hedatu eta egokitu zen azpimarratu zuten (Pal, 2017: 43-44).

Korrante horrek eliteen interes ekonomikoak defendatzeko tresna gisa ulertzen du estatua. Izan ere, Marxek ulertzen zuen estatuek eta haien harremanek garrantzi gutxi dutela produkzio-sistemaren egituren aurrean (Pérez de Armiño, 2019: 96). Beraz, estatuen kanpo-politiken helburua ez da "interés nacionala" ("mistifikazio burgesa" besterik ez dena) asetzea, eliteen euren interesak baizik. Horren ondorioz, nazioarteko harremanak etengabeko tentsioan eta gatazkan daude, gizarte-klase nagusi horien lehiaren eta onura-nahiaren ondorioz (Battistella, 2009: 252). Ikuspuntu horretatik, gatazka armatuak bi interpretazio nagusi dituzte (Steans eta Pettiford, 2001: 96). Lehenengoa eragile ekonomiko desberdinen arteko liskarra da, biak ala biak kapitalaren ordezkari direnak eta, besteak beste, etekinak handitzeko edo baliabideak eskuratzeko interesa dutenak; kasu honetan, ez bata ez besteak ez dute interes berezirik sistema kapitalista zalantzan jartzeko, etekina lortzen dutelako. Bigarren interpretazioak, aldiz, aurrez aurre jartzen ditu aurkako klase sozialetako ordezkariak (kapitalka eta lana), hau da, eredu kapitalista defendatzen dutenak eta eredu hori eraldatu eta mugimendu iraultzaile baten bidez justizia sozialera bideratu nahi dutenak.

31 NHetako korrante horren izendapena bat dator XIX. mendeko tradizio soziologiko eta filosofikoarekin, zeina Karl Marx filosofoaren ideietan oinarritzen zen.

32 Korrante horretan desberdintasun ekonomikoaren bi aldetan kokatzen diren estatuak izendatzeko termino ugari daude, etengabe eboluzionatu eta eztabaidagai direnak. Zehaztasunetan sartu gabe, honako hauek daude: aurreratuak-atzeratuak; garatutakoak-azpigaratuak; metropoliak-satelitak; zentro-periferia; industrializatutakoak-industrializatu gabekoak; aberatsak-pobreak; aberastutakoak-pobretutakoak; iparraldekoak-hegoaldekoak; eta, oraintsuago, Iparralde globala-Hegoalde globala.

Bere garapena egiturazko desberdintasunak aztertzen dituzten teorian oinarrituta egon da (horregatik da ezaguna "Estrukturalismoa" bezala ere). Horrela, adibidez, Dependentsiaren teoriak, Raúl Prebisch autorearekin, lehenik, eta André Gunder Frank (1966, 1969), ondoren, salatu zuen nola kontrol inperial eta kolonialak alor politiko, ekonomiko eta militarren gainean zuen eragina desagertu ondoren, munduko egitura ekonomikoa izan dela nazioarteko polarizazioa mantendu duena, bai kanpo-merkataritzaren bidez, bai "azpigaratutako" estatuen (periferia) eta "garatutako" estatuen (zentroa) arteko desberdintasunen eta mendekotasunaren bidez.

Bestalde, Mundu-sistemaren teoriak, zeinaren adierazle nagusietako bat Immanuel Wallerstein (1974) izan zen, estatu-talde eta erregioen arteko mendekotasunaren eta desberdintasunaren bilakaera historikoa azaldu zuen (erdigunea, erdi periferia eta periferia), espezializatu diren (edo espezializatu behar izan duten) ekonomia eta industria mota desberdinak oinarri hartuta. Kapitalismoak periferia hori behar du bere bizimodua eta segurtasuna bermatzeko, eta kosta ala kosta mantendu nahi du. Nazioartean, adibidez, eliteek nazioarteko erakundeak eta haien interesak eta pribilegiozko posizioak bultzatzen eta/edo legitimatzen dituzten arauak sortzen laguntzen dute (Richmond, 2012: 119-120). Esate baterako, lehenengoen artean, Nazioarteko Finantza Erakundeak (Munduko Bankua eta Nazioarteko Diru Funtza) edo Munduko Merkataritza Erakundeak, merkatu librearen printzipio ekonomikoak babestu eta sustatzeko tresna bihurtu dira (Whitworth, 1994: 73); eta, bigarrenen artean, munduko merkataritza ordenatzen duten legeriak, edo estatuen eta enpresen arteko nazioarteko inbertsioei buruzko eztabaidak konpontzeko aplikagarriak dira.

Eta, azkenik, Marxismoan partzialki inspiratuta, Johan Galtungek funtsezko ekarpenak egin zituen Bake Ikasketetan (*Peace Studies*). Horien artean, bakea justizia sozialarekin identifikatzen du, hau da, boterearen eta baliabideen bidezko banaketari dagokionean (Battistella, 2009: 263). Indarkeria zuzenaz gain, agerikoagoa dena eta indarkeria fisikoarekin lotuagoa dagoena, Galtungek (1969, 1998) beste bi indarkeria mota identifikatu zituen, sotilagoak, hain hautemangarriak ez direnak. Alde batetik, hizkuntzaren, ideologiaren, erlijioaren, zientziaren eta abarren bidez gauzatzen den indarkeria kulturalari, balio edo pautak kulturalen inposizioari erreferentzia egiten diona; eta, bestetik, egiturazko indarkeria, hau da, pobrezia, zapalkuntza eta desberdintasuna sortzen duten egitura sozial, ekonomiko eta politikoetatik eratorritako indarkeriari erreferentzia egiten diona.

"Egiturazko indarkeria" kontzeptu horrek nabarmen zabaldu zituen ordura arte Nazioarteko Harremanetan zeuden bakearen eta segurtasunaren ikuskerak. Gorago aztertu dugun bezala, diziplinako *mainstream*ak bakea gatazka armatu baten amaierarekin edo gatazka ezarekin identifikatu zuen. Hala ere, Galtungek (1971) ideien arabera, inperialismoak askoz gehiago erabiltzen ditu beste indarkeria mota batzuk –batez ere egiturazko indarkeria– zuzeneko indarkeria baino; izan ere, inperialismo inperfektuak baino ez ditu behar erasoa eta indarkeria fisikoa erabiltzea. Bakea indarkeriaren gabeziarekin berdintzen duen interpretazio negatibo hori, diziplinan nagusi zena, Galtungek (1969) proposatutako bake positiboaren kontzeptuak gainditu zuen. Horren arabera, bakea ez da helburua, prozesu bat baizik, zeinaren baitan bake zibilak –filosofia idealista eta liberalean oinarritutakoak– justizia soziala, berdintasuna eta pertsona guztien askatasunak eta eskubideak bermatzea ahalbidetuko duen bidezko nazioarteko merkataritza sistema bat behar dituen (Richmond, 2012: 31 eta 129).

Bake hori lortzeko, ezinbestekoa da tokian tokiko erresistentziaren eta erresistentzia transnazionalaren bidez egitura desorekatu dominanteen aurka egitea, eta erroik erradikalki eraldatzea bai diskriminazio politiko, ekonomiko eta soziala eragiten duten egitura horiek, bai haien existentzia legitimatzen duten eta sinbolikoki indartzen duten alderdi kulturalak ere (Ibidem: 43 eta 129; Mendia, 2014: 30). Interpretazio zabal horretatik ondorioztatzen da, adibidez, gatazka armatu bati aurre egiteko, testuinguruaren oinarrian dauden portaerak (zuzeneko indarkeria) ez ezik, jarrerak (indarkeria kulturala) eta egiturazko baldintzak (egiturazko indarkeria) ere eraldatu behar ditugula (Mendia, 2014: 29).

4. Bakea eta segurtasuna korronte postpositibistetan

4.1. Konstruktibismoa

Konstruktibismo Soziala –aurrerantzean, Konstruktibismoa– laurogeita hamarreko hamarkadan finkatu zen Nazioarteko Harremanetan, eta bere ezaugarriengatik eta egiten duen nazioarteko harremanen azterketagatik, korronte konbentzionalekiko “benetako alternatiba erradikal” gisa definitu zen (Brown, 2001: 52). Garai hartan diziplinan izan zuen protagonismoa, neurri batean, Postpositibismoaren heterogeneitatearen barruan korronte moderatutzat hartu zelako izan zen (Sodupe, 2003). Are gehiago, diziplinako hainbat eztabaidaren “bitarteko bidea”: arrazionalisten eta postpositibisten artean³³, estrukturalisten eta indibidualisten artean eta materialismoaren eta idealismoaren artean (Pérez de Armiño, 2019: 128). Dario Battistellak dioen bezala (2009: 277), Konstruktibismoa epistemologia positibista eta ontologia postpositibista konbinatzeko gai izan da. Haren garrantzia hain izan zen handia laurogeita hamarreko hamarkadan, non zenbaiten ustez potentzial handieneko korrontea baitzen “diziplinaren birdefinizio bat sustatzeko” (Sodupe, 2003: 224). Ez dirudi hori gertatu denik, baina, gutxienez, Nazioarteko Harremanetako korronte nagusietako bat bihurtu da (Pérez de Armiño, 2019: 127).

Korronte honek nazioarteko errealitate sozialaren eta errealitate horren ezagutzaren izaera eraikia defendatzen du (Guzzini, 2000: 159-160). Bere ustetan, “eraikuntza sozial intersubjektiboak” dira, hain zuzen, “adostasun intersubjektibo nagusiak”, nazioarteko politika azaltzeaz gain modelatu ere egiten dutenak –eta, horrekin batera, mundua ere bai, Nicholas Onufek (1989) korronte honen erreferente den *World of our making* liburuaren izenburuan adierazten duen bezala–. Alegia, ez dago errealitate sozial objektiborik, une eta leku jakin batean nazioartean adostutako ideia eta arau multzo bat baizik, interes, identitate eta balio partekatuak zein munduaren pertzepzioak eraikitzen laguntzen dutenak (Barbé, 2007: 92-93). Zentzu horretan, prozesu politiko, sozial, historiko eta abarren azterketa (adibidez, noiz, nola eta zergatik sortzen den nazioarteko arau bat), zein eraldaketaren analisia³⁴, funtsezkoak dira bere ikerketa-argandak (Pérez de Armiño, 2019: 134).

Bere iritziz, Nazioarteko Harremanen Teoriak aztertu nahi duen nazioarteko mundua eraikitzen laguntzen du, eta diziplinaren oinarri diren kontzeptuak (besteak beste, anarkia, boterea, interesa, segurtasuna edo bakea) estatuek adostutako alde zuzeneko presuntzio, ideia eta arauetan oinarritzen dira; hau da, Nina Tannenvaldek (2005: 15) adierazten duen moduan, eraikuntza mentaletan, nazioarteko jokaerak eta politikak bideratzen dituzten sinesmen, printzipio eta jarrerren multzoetan. Beraz, korronte nagusiek funtsezkotzat jotzen dituzten faktore materialekin batera, faktore ideazionalak (ideiak, sinesmenak eta balio partekatuen sistemak) nazioarteko politikan ere eragina dute³⁵.

Horrela, adibidez, anarkiaren kontzeptuak, diziplinaren korronte nagusientzat nazioarteko errealitatea aztertzeko giltzarria denak, ez du esanahi bakarra edo aldaezina; ordea, gizarte-eraikuntza bat baino ez da. Halaxe dio, berriz ere, korronte honetako beste erreferentziatzako lan baten izenburuak: *Anarchy is what states make of it*, Alexander Wendtena (1992). Gauza bera gertatzen da segurtasunaren kontzeptuarekin. Ez dator ezerezetik, eragin-ahalmena duten aktoreek (estatuek, komunikabideek, segurtasun-adituek eta abar) elkarrekinztza subjektiboen bidez eraikitzen dute (prozesuak, praktikak eta diskurtsoak), fenomeno

33 Izan ere, James Fearon eta Alexander Wendtek (2002: 67-68) adierazten duten moduan, mundu-ikuskera arrazionalistek eta konstruktibistek eztabaida baino “elkarriketa” bat izan zuten, ez baitira elkarrekin lehiatu, galdera desberdinetatik abiatuta erantzunak bilatu baizik. Ildo beretik, Mónica Salomónek (2002: 31) dio Konstruktibismoa korronte postpositibistetatik urruntzen joan zela positibistengana hurbiltzeko. Nolanahi ere, lan honetan lehen korronte horien artean barnebidu dugu.

34 Nazioarteko errealitateari esleitutako esanahiak ez dira aldaezinak, eraikiak izaten ari dira beti, eta eralda daitezke, esanahi horiek ematen dizkieten aktoreen ideiak eta sinesmenak ere aldatzen diren neurrian (Theys, 2017: 36-37).

35 Alexander Wendtek (1995) adibide batekin azaldu zuen: 1990eko hamarkadaren erdialdean, Erresuma Batuek zituen 500 bomba atomikotik gora Ipar Koreak zituen apurrak baino askoz mehatxu txikiagoa ziren Estatu Batuentzat. Hori horrela da benetan garrantzitsua ez delako berez dauden ojiba nuklearren kopurua *per se*, estatu batekin eta bestearekin eraikitako harreman sozialak eta adiskidetasun/etsaitasun pertzepzioak baizik.

jakin bat mehatxu gisa ezaugarritzen dutenean (Pérez de Armiño, 2013a: 265). Mehatxuak, beraz, subjektiboak eta eraikiak dira. Buzan et al.ek aditzera eman zuten moduan (1998: 57), "muga zeharkatzen duten tankeez gain, oso mehatxu objektibo gutxi dago".

Korrante honen arabera, mehatxuen eraikuntza eragile boteretsuek honako galdera hauei inplizituki edo esplizituki emandako erantzunak definitu du: Estatua izan behar al da segurtasunaren erreferentzia-objektu pribilegiatua? Segurtasunaren analisisan estatutik kanpoko mehatxuez gain estatuen barne mehatxuak sartu behar dira? Edo, segurtasunaren azterketa esparru militarretik haratago zabaldu behar da? (Buzan eta Hansen, 2009: 10-12). Galdera horien erantzun posibleek segurtasunaren pertzepzio desberdinak eskaintzen dituzte, pertzepzio tradizionalaz (estatozentrikoa eta militarra) haratago. Adibidez, Buzanek berak (1991: 116-134) segurtasunaren aurkako beste mehatxu posible batzuk identifikatu zituen ("segurtasun-sektoreak" deitu zituen), besteak beste, ingurumenekoak, ekonomikoak, politikoak eta sozialak.

Postulatu konstruktibistetatik egindako segurtasunaren azterketa kritikoan nabarmendu dira Keith Krause eta "Kopenhageko Eskola" delakoan (Copenhagen Peace Research Institute, COPRI) lan egiten duten Barry Buzan³⁶ eta Ole Waever, besteak beste. Eskola horren esparruan korrantearen funtsezko ekarpenetako bat egin zuten: "sekuritizazioaren teoria"³⁷ (Waever, 1995). Estatuek gai bat "segurtasun-arazo" gisa noiz, nola eta zergatik identifikatzen eta kudeatzen duten azaltzen saiatzen da (hau da, gai hori zelan "sekuritizatzen" duten). Halaber, estatuak ez diren beste eragile batzuek (adibidez, eliteek edo komunikabideek) gaiak sekuritizatzeke (segurtasun-agendan sartzeko), zein desekuritizatzeke (agenda horretatik ateratzeko) jasan ditzaketen presioak, eta horiei aurre egiteko dituzten gaitasunak aztertzen ditu.

Sekuritizazio-prozesu hori gertatzen da gai bat "erreferentzia-objektu" jakin baten (estatu bat, gizarte-talde bat, ingurumena, garapen ekonomikoa eta abar) biziraupenerako "mehatxu existentzial" gisa aurkezten eta onartzen denean. Diskurtso-ekintza bat da, non gai bat sekuritizatu nahi duten aktoreek entzuleria jakin bat konbentzitu nahi duten gai horren mehatxu-izaera onar dezan. Audientziak mehatxuari buruzko diskurtso hori onartu duenean bakarrik esan daiteke gai hori sekuritizatuta dagoela (Mackenzie, 2010: 152). Prozesu horrek arrakasta izatea, beste faktore batzuen artean, diskurtsoa ematen duten aktoreen boterearen, audientziaren onarpen mailaren edo sortzen dituen sentimenduen mende dago (Buzan et al., 1998: 23-26). Beraz, ikuspuntu konstruktibistatik, segurtasunaren aurkako mehatxu bat ez da hala mehatxu egiteko berezko ezaugarriengatik, mehatxu gisa aurkezten eta onartzen den heinean baizik (Peoples eta Vaughan-Williams, 2010: 78).

Prozesu hori eztabaidagarria da, eta bere arriskuak ditu. Gai bat sekuritizatzeak, alde batetik, gai hori politikaren ohiko bideetatik ateratzea dakar, bere eztabaidarako, partaidetzarako eta negoziatzarako behar diren espazioak eta denborak saihestea, eta gai horri buruzko erabakiak eragile zehatz batzuetara (eliteak) eta salbuespenezko bideen erabilerrara mugatzea. Izan ere, Waeverrek dioen bezala (1995: 54-57), sarritan eliteek euren interesak "interes nazional" edo "herriaren interes" gisa aurkezten dituzte, gai bat segurtasun-agendan sartzeko legimitatzeko eta, horrela, gai horren gaineko kontrola bereganatzeko. Bestalde, sekuritizazioak ez du zalantzan jartzen segurtasunaren izaera estatozentriko tradizionala, eta auresuposatzen du estatuaren erantzuna dela egokiena gai horiek kudeatzeko. Eta, azkenik, batzuetan, sekuritizazio horrek "normaltasun-testuinguru" batean onartuko ez liratekeen defentsa-estrategia eta salbuespen-politika (adibidez, migrazioaren eremuan) oso zalantzagarrien erabilpenerako aukera eman du³⁸ (Peoples eta Vaughan-Williams, 2010: 83-84). Beraz, Claudia Aradauk (2004: 388) adierazten duen bezala, prozesu honek konnotazio politiko eta etiko garrantzitsuak ditu, eta erreferentzia zuzena egiten dio nahi den politika-ereduari (nazionala eta nazioartekoa).

36 Barry Buzanek Kopenhageko Eskolaren hastapenetan parte hartu bazuen ere, ondoren hori utzi eta Eskola Ingelesa deitutakoaren lidergotzan dago (Battistella, 2009: 523 eta 525).

37 Teoria hau hainbat modutan moldatu eta garatu da literaturan, bai Kopenhageko Eskolaren baitan zein kanpoan, eta horietako batzuk hasierako proposamenetik aldentzen dira (Peoples eta Vaughan-Williams, 2010: 75).

38 Immigrazioa segurtasun-agendan 1980ko hamarkadan sartu zen, pertsona migratzaileak ikuspuntu ekonomikotik kontutan hartzeari utzi zitzaionean, eta identitate-nazionalerako mehatxu bezala (Battistella, 2009: 529-530) zein mehatxu terrorista bezala identifikatzen hasi zirenean.

Era berean, Eskola Ingelesak³⁹ sortu eta garatutako nazioarteko gizartearen kontzeptua oinarri hartuta, Kopenhageko Eskolak gizarte-segurtasunaren kontzeptua plazaratu zuen (*societal security*). Horren bidez, estatuen segurtasun-arazoak ikuspuntu sistemiko batetatik interpretatzeko espazioak ireki ziren (Buzan eta Hansen, 2009: 213). Ideia hori bereziki baliagarria da potentzia handientzat, euren segurtasun nazionalak askotan nazioarteko sistema osoarekin harreman estua duelako (Battistella, 2009: 523). Hala ere, ez da, nahitaez, munduko herrialde gehienek kasua, haien segurtasuna (Errealismoaren ikuspuntutik ulertuta) lotuagoa egon baitaiteke, adibidez, inguruko estatuekin dituzten harremanekin. Hemen "segurtasun-konplexu" kontzeptuak ere garrantzia hartzen du (Buzan 1991: 190-194), "bi estatuk edo gehiagok elkarrekin senti dezaketen mehatxu/beldur mailari" erreferentzia eginez, bereziki estatu horien segurtasun-kezkak elkarren artean hain estu lotuta daudenez, ezen horietako baten segurtasuna ezin baitaiteke bestearenetik bereizi.

Azkenik, garrantzitsua da nabarmentzea Konstruktibismoa diziplinako gainerako korronteak bezain plurala eta heterogeneoa dela, eta haren baitan aldaera ugari garatu direla. Sailkatzeko ahalegin bat da Konstruktibismo konbentzional edo moderatuaren (*Conventional Constructivism*) eta Konstruktibismo kritikoaren (*Critical Constructivism*) arteko bereizketa, nahiz eta literatura konstruktibistaren zati handi bat bien arteko tartean egon (Theys, 2017: 38-39). Konstruktibismo moderatuak diziplinaren *mainstream*etik hurbil dagoen ontologia eta epistemologia defendatzen ditu, baina alderdi ideazionalak (materialez gain) ere nabarmentzen ditu nazioarteko errealtatean. Errealismoak bezala, nazioarteko segurtasuna segurtasun militar gisa eta estatuen arteko harremanei lotuta ulertzen du, baina behar eta arazo globalei erantzuteko gaitasunik ez duelako kritikatzeko du. Bere esanetan, erantzunak nazioarteko arauetan eta erakundeetan daude, eta, horregatik, bertan oinarritzen ditu bere azterketak.

Konstruktibismo kritikoa, bestalde, nagusi den estatozentrismotik urruntzen da, eta guztiz postpositibista den epistemologia batean oinarritzen da. Izan ere, gizarte-elkarrekintza ororen atzean dauden nortasunen eta botere-harremanen azterketan jartzen du azpimarra (Ibañez, 2015: 212-213; Pérez de Armiño, 2019: 135-137). Bere ustetan, diskurtsoa eta boterea berezko lotura duten elementuak dira, eta hizkuntzak errealtate soziala aldatzeko ahalmena du (Theys, 2017: 38). Horregatik, aldaera horren arabera ikerketa konstruktibistak eraldaketaren aldeko konpromiso politikoaren eskutik egin behar du aurrera.

4.2. Teoria Kritikoa

Teoria Kritikoa⁴⁰ lauogeiko hamarkadan hasi zen garrantzia hartzen Nazioarteko Harremanetan. Bi pentsamendu-ildotan oinarritzen da, eta horiek bi aldaera sortu dituzte. Hala ere, biek partekatzen dituzte bai Nazioarteko Harremanek *statu quo*aren aurrean duten determinismoari eta pasibotasunari egindako kritika (Mendia, 2014: 36), bai "aldaketa politiko, ekonomiko eta sozio-kultural emantzipatzailea sustatzen duen munduaren ezagutzarekiko" konpromisoa (Wyn Jones, 1995: 299). Hau da, pertsonen eta gizartearen emantzipazioa, alde batetik, eta nazioarteko ordenaren justizia soziala, bestetik, korronte honen bi helburu nagusienetakoak dira.

Lehen pentsamendu-ildoa Marxismoan eta Antonio Gramsci bezalako pentsalari neomarxistetan oinarritzen da. Horrek azaltzen du korronte honek Marxismo/Estrukturalismoarekin lotura puntuak izatea. Izan ere, Teoria Kritikoaren aldaera gramsciar honek, ñabardurak ñabardura, onartzen du kapitalismo globalaren (eta bertatik eratorritako inperialismoaren) izaera esplotatzaileak nazioartean gatazka eta indarkeria sortzen duenaren ikuskera marxista (Steans eta Pettiford, 2001: 120). Horregatik, Robert Cox (1981, 1992, 1996) bezalako egileek Ekonomia Politikoan ohikoak diren gaiak kritikoki aztertu dituzte, hala nola sistema ekonomiko kapitalista globala, Iparralde-Hegoalde harremanak edo enpresa transnazionalen eragina.

³⁹ Konstruktibismoa eta Eskola Ingelesa gertuko korronteak dira, amankomunean puntu asko dituztenak.

⁴⁰ Korronte honen izena hitz larri idazten da, diziplinaren *mainstream*aren aurrean izaera kritikoa partekatzen duten beste korronte postpositibistengandik bereizteko.

Bigarren pentsamendu-ildoa ilustraziotik eta Immanuel Kant bezalako autoreetatik eratorritako elementu normatiboetatik elikatzen da, ondoren Frankfurtoko Eskolak garatu zuena, bereziki Jurgen Habermasek. Aldaera honetan Andrew Linklater (1996), Richard Wyn Jones (1995, 1999) edo Kimberly Hutchings (1999) nabarmentzen dira, zeinak teoria politikoaren azterketan oinarritu duten euren lana (komunitate politikoa eta bere eraldaketa, giza eskubideen unibertsalizazioa eta abar).

Lehenago adierazi dugun moduan, korrante horren funtsezko ideiak dira gaur egungo praktika eta instituzio errepresiboekiko kritika eta giza emantzipazioaren defentsa. Azken kontzeptu hori estatu modernoaren eta sistema ekonomiko kapitalista globalaren aurreko pertsonen askapen bezala ulertzen da (Farias Ferreira, 2017: 49). Abiapuntu horretatik, segurtasuna prozesu konplexua eta holistikoa da, justizia sozialera bideratutako egiturazko aldaketak lortze aldera emantzipazio-ideietan oinarritutakoa (Burke, 2007: 7). Izan ere, emantzipazioak mehatxurik eza dakar, mehatxu horiek modu zabalean ulertuta. Hain zuzen, gerrak edo horien ondorioak mehatxuak izateaz gain, pobrezia, hezkuntza falta edo errepresio politikoa ere badira mehatxu, besteak beste. Segurtasuna, beraz, ez da biziraupen hutsera mugatzen, pertsonen ongizatea hobetzeko tresna ere bada (Pérez de Armiño, 2013a: 272), "gizabanakoek eta kolektibitateek gizakiak izateko moduari buruzko ideia desberdinak asmatu eta berrasmatzeko bide bat" (Booth, 2005: 3). Zentzu horretan, segurtasun estatozentriko eta militarren kontzeptu tradizionalaren aurrean, Teoria Kritikoak segurtasuna giza emantzipazioarekin identifikatzen du. Izan ere, elkarri lotutako kontzeptuak eta praktikak dira. Emantzipazioak –eta ez botereak edo ordenak– benetako segurtasuna sortzen du; beraz, "emantzipazioa, teorian, segurtasuna da"⁴¹ (Ibidem, 1991: 319).

Emantzipazioa, gainera, "helburu bat baino, prozesu" gisa ulertzen da (Wyn Jones, 1999: 118). Prozesu hori, gainera, ez dute beste batzuek gidatzen (ezta estatuak ere), prozesu pertsonala (Richmond, 2012: 214) eta erlazonala delako⁴². Izan ere, emantzipazioa, identitatea eta komunitatea lotuta daude (Wyn Jones, 1999; Booth, 2007). Pertsonak ez daude isolatuta, komunitate politiko desberdinak osatzen dituzte eta gainjartzen diren identitate ugarik zeharkatzen dituzte. Ken Boothek dioen moduan (2007: 278), "komunitatea da segurtasunaren lekua". Premisa horietatik abiatuta, segurtasuna zuzenean lotuta dago egunerokotasunarekin eta tokikoarekin, eta lotura estuak daude nazioarteko politikaren eta tokiko politikaren artean (Booth, 1991: 322). Horrela, pertsonak eta gizarteak emantzipazio-maila handia badute, baketsuagoak izango dira, eta horrek eragin zuzena izango du, lehenik, segurtasun kolektiboan, eta, ondoren, segurtasun globalean, horiek biak elkarrekin lotuta baitaude.

Era berean, pertsonak dira analisiaren erdigunean kokatu behar direnak, bereziki "ahotsik gabekoak, azpiordezkatutakoak eta babesgabeak" (Wyn Jones, 1999: 159). Beraz, estatua ez da segurtasunaren helburua, hori lortzeko tresna baizik. Eta, izatez, ezin da aurreuposatu segurtasunaren bermatzaile nagusia denik. Wyn Jonesek (1999: 99) dioen bezala, "segurtasun nazionalaren izenean gobernuak eskuratutako armak eta metatutako botereak herriarren askatasunerako eta segurtasun fisikorako mehatxu askozaz ere handiagoak dira, ustezko edozein kanpo-mehatxu baino". Segurtasunaren ikuskera estatozentriko menderatzaileari egindako kritika horretan, Johan Galtungek (1969) proposatutako "egiturazko indarkeria" kontzeptua berreskuratzen dute, mehatxu militarrekin batera, estatuak beren biztanleentzako beste segurtasun-gabezia mota batzuk (elikadura, ingurumena eta abar) sortzen dituztela agerian uzteko. Laburbilduz, pertsona eta komunitate askorentzat, beren segurtasunerako mehatxu nagusia euren estatua bera da, eta ez kanpoko etsai bat (Booth, 1991: 318).

Segurtasunaren eremu espezifikoan, laurogeita hamarreko hamarkadan, Teoria Kritikoak abiatuta Segurtasun Ikerketa Kritikoak⁴³ sortu ziren. Horietan "Galesko Eskola" deiturikoaren baitako egileak

41 Segurtasuna-emantzipazioa lotura oso estua izan zen Teoria Kritikoan laurogeita hamarreko hamarkadan, baina lausotu egin da korrontearen baitan Internazionalismo Liberalak indarra galdu zuen heinean eta beste ikuskera batzuk, "ez-emantzipatzaileak edo post-emantzipatzaileak" espazio hori hartu zuten heinean (Hynek eta Chandler, 2013: 46).

42 Teoria Kritikoak garrantzi handia ematen die aktore sozialen agentziari, hau da, errealitatean parte hartzeko eta hori eraldatzeko duten gaitasunari.

43 Modu desberdinetan interpretatua izan bada ere, "Segurtasun Ikasketa Kritikoak" adierazpena (hitz larritz) segurtasun ikasketen Galesko Eskolarekin –Teoria Kritikoarekin lotura duena– identifikatu ohi da (Peoples eta Vaughan-Williams, 2010: 17).

nabarmentzen dira, hala nola Richard Wyn Jones eta Ken Booth. Honen baitan, eta segurtasunaren kontzeptu tradizionala gainditzeko proposamen gisa, Wyn Jonesek (1999: 166) lau estrategia proposatzen ditu. Lehenik eta behin, kontzeptua zabaltzea (*broadening*) eta beste segurtasun-eremu batzuk (ingurumenekoak, giza arlokoak, osasun-arlokoak eta abar) sartzea eremu militarretik harago; bigarrenik, haren edukian sakontzea (*deepening*) segurtasunaren interpretazio indibidual eta globalak lotzeko; hirugarrenik, segurtasunarekin lotutako aktoreak zabaltzea (*extending*) estatutik harago; eta, azkenik, segurtasuna giza emantzipazioaren helbururantz "bideratzea" (*focusing*).

Bestalde, ikuspuntu epistemologikotik, korrante honek, denbora eta leku guztietarako baliagarria den ezagutza absolutu eta unibertsal baten bilaketa kritikatzeko du, eta ezagutzaren izaera partziala, mugatua eta aldagarria onartzen du⁴⁴ etengabeko bilakaeran dagoen mundu batean –eta nazioarteko harremanetan– (Cox, 1992: 135; 1996: 30). Halaber, ikerketa objektuaren eta subjektuaren arteko bereizketa arrazionalista kritikatzeko du, gure balioak, eta beraz, munduarekiko ditugun interpretazioak, ikerketa teorikoaren erdigunean kokatzen direlako. Eta, azkenik, zientziaren ustezko neutraltasuna ukatzen du, eta modu irekian aitortzen du teoriaren funtzio eraldatzailea⁴⁵ (Barbé, 2007: 85). Haatik, eta teoria neutrala ez denez –"teoria beti dago norbaitentzat pentsatuta eta helbururen batekin", dio Coxek (1981: 128)–, hori gizartea eraldatzeko eta gizakiak emantzipatzeko erabiltzea proposatzen du, hau da, dominazio guztiak ezabatzeke (gizarte-klasea, arraza, sexua, nazionalitatea, jatorri etnikoa eta abar). Zentzu horretan, emantzipazioa "erresistentzia praktika bat" ere bada (Booth, 1991: 326).

Eta, esparru kulturalen gauzatzen den erresistentzia bat ere bada, askotan menderatzaile den eta ideia hegemonikoak sortzeko erabiltzen den teoriaren aurrean. Izan ere, Gramsciren (1971) "hegemonia" kontzeptuaren ildotik, dominazio kapitalista ez da soilik eliteek ekonomia eta estatua kontrolatzean oinarritzen, baizik eta elite horiek gizartearen gainean hezkuntzaren, kultura herrikoia, gizarte-instituzioen edo komunikabideen bidez gauzatzen duten kontrol kulturalen (hegemonia kulturala) ere oinarritzen da (Pérez de Armiño, 2019: 144)⁴⁶. Horrela, adibidez, Nazioarteko Harremanetan korrante nagusiek bakea eta segurtasuna bezalako kontzeptuen esanahi jakin bat –boteretik gertukoa– eraikitzen eta inposatzen dute. Eta, era berean, nazioarteko erakundeak tresna bihurtzen dira, estatu hegemonikoek eremu horietan dituzten interesak islatzeaz gain, horiek defendatzeko eta erreproduzitzeko.

4.3. Postestrukturalismoa

Postestrukturalismoa⁴⁷ lauogeiko hamarkadaren amaieran agertu zen Nazioarteko Harremanetan, eta korrante plural eta heterodoxo bihurtu da; izan ere, bere izaeragatik egitura eta ezaugarri zehatzik ez du (ibidem: 157). Egiten dituen kritikak hain dira zabalak, erradikalak eta zorrotzak, non korrante

44 Korrante horren arabera, ezagutza kontingentea da, hau da, testuinguru historiko eta sozial jakin baten ezaugarriari lotuta dago. Beraz, aldatu egin daiteke ezaugarri horiek aldatzen diren neurrian (Pérez de Armiño, 2019: 142-143).

45 Robert Coxek (1981) azaltzen du teoria bi norabidetan bideratu dezakegula. Batetik, korrante dominanteek egiten duten moduan, arazoen konponketarena (*problem-solving* ikuskera), hau da, nazioarteko ordenako desorekak minimizatzea, baina erdigunean dauden dominazio eta botere-harremanei aurre egin gabe; eta, bestetik, nazioarteko ordenaren eraldaketarena (*critical theory* ikuskera), botere-erlazio eta interes horiek salatzea eta aurre egitea. Teoria Kritikoak bigarrena aukeratzen du.

46 Horiek erresistentzia-gune garrantzitsuak dira. Gramscik defendatzen duen bezala, hegemoniaren kontrako borroka ideien eremuan ere eman behar da (Sanahuja, 2015: 168).

47 "Postmodernismo" ere deitzen zaio, eta diziplinan, sarri, kontzeptu berdina bainan erabiltzen dira biak, baina ez dira zehazki berdina (Peoples eta Vaughan-Williams, 2010: 62). Postmodernismoaren izena eta izaera Modernitatearen baloreekiko eta ilustrazioaren proiektuekiko kokapen kritikotik datoz; eta Postestrukturalismoa oinarri filosofikoko korrantea da (Michel Foucault, Jacques Derrida edo François Lyotard bezalako autoreekin). Hirurogeiko hamarkadan Estrukturalismo Teorikoa gainditu nahi zuen, Antropologia, Soziologia edo Linguistika bezalako gizarte zientzietan nagusi zena (Pérez de Armiño, 2019: 158), baina ez da nahastu behar gorago azaldu den Nazioarteko Harremanetako korrantearekin (Estrukturalismoa). Postmodernismoaren eta Postestrukturalismoaren inguruko informazio gehiagorako, ikusi Brown (1996: 222-230). Lan honetan "Postestrukturalismo" erabiltzea erabaki dugu.

postpositivistekin ideiak partekatzen baditu ere, neurri handiagoan edo txikiagoan haiekin ere talka egiten duen, korrante arrazionalistekin talka egiteaz gain. Ez da harritzekoa, beraz, diziplinako korronterik eztabaidagarriena bezala ikustea (McGlinchey et al., 2017: 8).

Hasteko, literatura postestrukturalistak korrante errealistaren hegemonia kritikatzeko du, azken horrek nazioarteko politika zerbait natural, neutro eta aldaezin gisa ulertzen duelako, eta botereak hura sortzeko eta birsortzeko duen zereginari kasurik egiten ez diolako (Peoples eta Vaughan-Williams, 2010: 67). Era berean, uste du ezinezkoa dela Nazioarteko Harremanen interpretazio uniboko bat egitea (Salomon, 2002: 26); hau da, haren helburua ez da diziplinan ezagutza eraikitzeke oinarri izan nahi duen teoria bat sortzea, baizik eta ezberdintasunari, alteritateari, disidentziari eta etengabeko zalantzari lekua ematea. Mundua era askotara interpretatu eta espermentatu daitekeela defendatzen du, eta, beraz, kontakizun bakar bat, egia unibertsal bat eraikitzeke asmo oro ukatzen du; hau da, metanarratiba oro zalantzan jartzen du, "egia" bihurtu nahi duen narrazio oro ezeztatzen du.

Bere abiapuntu ontologikoa "erradikalki idealista" da (Sodupe, 2003: 212), ulertzen baitu errealtatea ezin dela ezagutu hari buruzko gure diskurtsoetik at. Ez dago, beraz, behatzen duenaren burutik at dagoen kanpo-mundurik. Izan ere, korrante horretako erreferentziazko liburu baten izenburuak dioen bezala, *One World, Many Worlds* (Walker, 1987), ez dago mundu bat, mundu asko baizik; ez dago "mundu erreala" bat, horren interpretazioak baizik; eta ez dago "egia bat", lehian dauden hainbat ikuskera baizik. Horrela, Teoria Kritikoarekin bat dator, egia kontingentea dela, eta "egia" gisa hartzen dena aldatu egiten dela testuinguru historiko, ekonomiko eta sozialari dagokionean. Horrela, testuinguru jakin horretan –"diskurtso"⁴⁸ horretan– eraikitzen eta onartzen (edo inposatzen) da ezagutza, aktore dominanteei interesatzen zaien egia eraikitzeke eta mantentzeke erabiltzen den lengoia zehatzean oinarrituta (Mc Morrow, 2017: 58); horri, Michel Foucaultek (1979) "egiaren erregimena" deitu zion. Eraikitzen diren "diskurtso" zehatz horietan, egiaren erregimen horiek existitzen dira; horietatik kanpo, ez.

Foucaultentzat (1985), "egia" beti sortzen da "ezagutza-boterea" harremanetik. Beraz, Nazioarteko Harremanetan Postestrukturalismoak zalantzan jartzen ditu ezagutzaren eta balioen artean, eta jakina, ezagutzaren eta boterearen artean diziplinaren *mainstream*ak defendatzen dituen banaketak (Tickner, 2001: 33). Gizarteak –eta nazioarteko ordena– desberdintasunetik eta hierarkiatik egituratuta daudenez, ezagutza ez da desinteresatua, ezta neutrala ere. Botere gehien dutenak (estatu dominanteak, elite politiko-ekonomikoak, akademia, komunikabideak, eta abar) egoera hobean daude errealtatearekiko duten ikuskera inposatzeko eta ikuskera alternatiboak gutxietzeko edo alderatzeko.

Hala ere, boterea erlazonalki ere ulertzen du, eta, beraz, boterea dagoen lekuetan, boterearekiko erresistentziak ere badaude. Nazioarteko "egia" hori eraikitzen duten diskurtso hegemonikoak ikusarazi eta horiei aurre egiteko Postestrukturalismoaren estrategiarik garrantzitsuena diskurtsoaren analisia da, genealogiaren, deseraikitzearen edo "ordezkaritza-politiken" azterketa bezalako tresnen bidez gauzatua (Pérez de Armiño, 2019: 161-166). Alde batetik, genealogiaren bidez, Foucaultek diziplina baten kontzeptuen interpretazioaren jatorria zein den eta horiek nola garatu diren aztertzea proposatzen du, nortzuen eta zein interesen zerbitzura eraikiak izan diren. Nazioarteko Harremanen kasuan, adibidez, korrante nagusien funtsezko terminoak aztertzeaz gain (hala nola anarkia, segurtasuna, mehatxua edo interes nazionala), korrante kritikoek ere aztertzen dira, emantzipazioa kasu.

Bestalde, "dekonstrukzioarekin", Jacques Derridak (1989) testu baten egitura eta kontzeptuak azaleratzen ditu, bere kontraesanak, isiluneak, errepikapenak eta abarrak agerian uzteko, eta horrekin, bere ezkutuko interesak. Eta, azkenik, "ordezkaritza-politikak" aztertzeak esan nahi du nazioarteko gaiei buruz eragile jakin batzuek (estatuak, nazioarteko erakundeak, Gobernu Kanpoko Erakundeak, multinazionalak, etab.) espazio desberdinetan (komunikabideak, publizitatea, diplomazia, literatura, zinema, etab.) eraikitzen dituzten diskurtsoak eta irudikapenak aztertzea, eta gizarteak haiei buruz dituen pertzepzioetan

48 "Diskurtso" kontzeptua errepikakorra da literatura postestrukturalistan, baina ez da ulertu behar soilik lengoaiarekin erlazonatuta, modu zabalean baizik; hau da, ideiei, arauiei, gizarte-praktikei, instituzioei eta abarrei erreferentzia egiten die (Pérez de Armiño, 2019: 159).

eta ideietan nola eragiten duten aztertzea (Pérez de Armiño, 2019: 166). Gainera, azterketa hori joan daiteke nagusitzat jotzen diren gaietatik (terrorismoa, klima-aldaketa, mehatxu nuklearrak) hutsalak diruditen gaietara (*Eurovision* jaialdia eta haren boto-dinamikak, adibidez), guztiek botere-posizio batetik pertzepzioak eraikitzen laguntzen dutelako (Cornago, 2015).

Azterketa horiek aukera ematen digute identifikatzeko, adibidez, eragile boteretsuek "mehatxuak" eraikitzeke duten moduak ez duela soilik balio armamentuan eta segurtasunean egindako gastua handitzeko eta indarkeria politikoa justifikatzeko nazioaren eta haren osotasunaren defentsan, baizik eta baita haren boterea legitimatzeko eta barneko disidentziak ezkutatzeke ere (Steans eta Pettiford, 2001: 143-144). "Mehatxuak" eraikitzeke estrategia horretan, identitatearen eta segurtasunaren arteko harremana estua da. Lehenengoa ezberdintasunean oinarrituta dago, "besteak", "kanpokoak", "haiek", "atzeritarrak", "musulmanak" eta abarri buruzko diskurtsoen eraikuntzan. Nazioartean, alteritateak eraikitzeke logika hori bera erabiltzeke ere –bai eta "huts egindako estatu", "barbarismo berri", "terrorismo global", "askatasun", "zibilizazio", "giza eskubideak" eta abarreko kontzeptuak eta diskurtsoak–, oso baliagarria izan da Mendebaldearentzat bere segurtasun-politikak eta mundu osoan egiten dituen esku-hartze militarrek justifikatzeko, hau da, indarkeriaren erabilera legitimatzeko.

Botere-diskurtso horiek kategoria dikotomikoak eta manikeoak sortzen dituzte, hala nola "barne-kanpo" (Walker, 1993), "gu-haiek", "garatu-azpigaratu", edo "zibilizatu-barbaro", eta historikoki pertsonak zein estatuak bereizi dituzte. Era berean, nazioarteko politika egitura egonkor eta aldaezin gisa irudikatzen dute (Peoples eta Vaughan-Williams, 2010: 67), eta diziplinaren ezagutza unibertsal eta neutral gisa, berez tokikoa (mendebaldekoa) eta partziala denean (Sylvester, 2001: 541). Kategoria bitar hierarkikoak dira, lehenengoen aldeko eta bigarrenen kaltetarako zama normatibo nabarmena dutenak (Battistella, 2009: 294). Hau da, nagusitzat ulertutako eredu baten balio sozial, ekonomiko eta kulturalen aldekoak dira, hain zuzen, Europakoa edo Mendebaldekoa.

Horregatik, munduari buruzko edozein ustezko egiaren aurrean, geure buruari galdetu behar diogu: Nork du egia hori sortzeko eta zabaltzeko boterea? Nola erabiltzen du botere hori? Zein helbururekin erabiltzen du? Nola ezartzen dira botere-harreman horiek? Zer ondorio ditu? Noé Cornagok (2015: 239) dioen moduan, Nazioarteko Harremanetan ezagutzaren eta boterearen artean dagoen harreman estuaren azterketa horrek agerian utzi du diziplinak mundu mailako botere-gune politikoekin duen konplizitatea.

Bestalde, bakearen eta segurtasunaren inguruko analisisetan garapen handia eragin duen ideia Foucaulten "biopolitikaren" ideia izan da. Horrek giza bizitzaren kudeaketa politikoari erreferentzia egiten dio, hau da, "gorputzei eustea eta populazioen kontrola lortzeko teknika askotariko eta ugariak" (Foucault, 1998: 84). Nazioarteko ikasketetan aplikatzerakoan, "biopolitika globalaren" kontzeptua asko erabili da literaturan giza bizitzaren nazioarteko gobernantza-estrategiak kritikatzeko. Adibidez, ideia horretatik abiatuta, Giorgio Agambenek (1998, 2000) "bizitza soila" kontzeptua garatu du, babes oro kentzen zaien pertsonen egoerei erreferentzia eginez, eta segurtasunaren izenean zuzenbidetik eta politikatik kanpo geratzen diren egoerei dagokienez. Bazterketa horrek zaurgarri bihurtzen ditu, eta beste egoera batzuetan onartezinak izango liratekeen baina egoera horietan "normaltzat" jotzen diren ezohiko abusu eta jardunbideen eraginpean jartzen ditu. Agambenek "bizitza soil" hori identifikatu du Alemaniako kontzentrazio-eremu nazietan edo, berrikiago Guantanamo, non segurtasun-paradigma erabili den giza eskubideak eta askatasun publikoak murrizten dituzten neurriak hartzeko. Horietan, herritarra nor den eta "bizitza soila" nor den bereiztea zaila da⁴⁹, salbuespen-egoera arau bihurtzen da eta gorputz biologikoa gorputz politikotik bereizezina da (Agamben, 2000: 138). Beraz, ideiak bezalaxe, gorputza ere eraso eta jazarri daiteke.

Segurtasun-politiken salbuespenari buruzko gogoeta horiek "Parisko Eskola" deiturikoak berreskuratu ditu, bereziki Irailaren 11ren ondoren, hurbilketa soziologiko batetik, Estatu Batuek eta bere aliatuek egindako "Terrorrearen aurkako Gerraren" testuinguruan segurtasun-diskurtso eta praktikak aztertzeko (Peoples eta Vaughan-Williams, 2010: 69). Adibidez, Didier Bigok (2008: 11) aztertu du nola poliziaren eta

49 Puntu honetan, Agambenek argudiatzen du pertsona oro dagoela egoera horretan erortzeko arriskuan. Judith Butlerrek (2004: 67 eta hurrengoak), ordea, zehazten du, badaudela pertsona-talde zehatz batzuk euren arraza-ezaugarriak edo ezaugarri etnikoak direla eta, horretarako aukera gehiago dituztenak.

armadaren arteko mendebaldeko bereizketa klasikoa, barne-kanpo dikotomian oinarritutakoa, lausoagoa den orain. Ez da jada bereizketarik egiten poliziak eta indarkeriaren monopolioak bermatutako barne-ordena baten eta botere-orekan oinarritutako eta armadek eta diplomaziak bermatutako nazioarteko beste ordena baten artean. Areago, "segurtasun(ik ezako) zeharkako eremu" bat sortu da, non "segurtasun(ik ezako) profesionalek" (gobernu erakundeak, segurtasun-"adituak", Gobernu Kanpoko Erakundeak, etab.) ezinegona, beldurra eta segurtasunik eza sustatzen dituzten (Bigo, 2008: 8). "Liberalismoaren baitako salbuespen" testuinguru horretan (Ibidem: 36-38), estatu liberalek praktika iliberalak justifikatzen dituzte, beste testuinguru batzuetan onartezin izango liratekeenak. Are gehiago, "menderatutako" biztanleriak berak amaitzen du sinesten berak –eta ez botereak– erabakitzen duela zein menderatze-praktika diren onargarriak edo ez.

Mark Duffield (2008) ere Foucaultek biopolitikari buruz zituen ideietatik abiatu da "bermatutako bizitza"ren eta "bizitza ez-bermatua"ren (*insured life* eta *non-insured life*) arteko bereizketa sortzeko, gizarte-babeseko erregimenak dituzten eta buruaskitzat jotzen diren edo beharrak bere kabuz kudeatu ditzaketela identifikatutako populazioen artean. Autore honek kritikatzeko du nola, "gerra zibil global" horretan, garatutako munduaren garapena eta segurtasuna bermatu ahal izateko, ezinbestekoa den azpigaratutako bizitzaren ("bermatu gabea") zirkulazioari eta mugikortasunari eustea. Horrela, gaur egun hedatuta dagoen segurtasun-arkitektura, mundu garatuaren mugetatik haratagoko politika eta esku-hartzeekin –adibidez, Europar Batasunak eta bere estatu kideek estatu afrikarretatik datorren migrazioa jatorriko esparruetan kudeatzea–, bi bizimodu horiek bereizita mantentzeko estrategia bat da.

Korrante teoriko honek, alde batetik, kritika ontologiko eta epistemologiko sakona egiten die diziplinaren funtsezko ideiei, narratibei eta kontzeptuei. Eta, bestetik, nazioarteko politikan izateko, pentsatzeko eta egiteko beste modu batzuei balioa ematen die (McGlinchey et al., 2017: 9). Izan ere, ekarpen garrantzitsuak egin dizkio diziplinari, eta, jasotako kritiketatik eta egun batean izan zuen izaera marjinaletik haratago, bakeari eta segurtasunari buruzko analisietan gero eta protagonismo handiagoa lortu du (Peoples eta Vaughan-Williams, 2010: 62).

4.4. Postkolonialismoa

Korrante hau Nazioarteko Harremanen parte gisa laurogeiko hamarkadaren amaieran onartu zen, nahiz eta baziren askoz lehenagotik egindako ekarpen teoriko postkolonialak⁵⁰. Geroztik, nazioarteko harremanen interpretazioa mendebaldeko esperientzia, ikuspuntu eta diskurtsoetan soilik oinarritzen duen diziplinaren *mainstream*arekiko erresistentzia bihurtu da Postkolonialismoa. Oro har, diziplinaren oinarrien eta munduaren irudikapenen izaera mendebaldezentrikoaren⁵¹ aurrean –arrazista, Tarak Barkawik eta Mark Laffeyk (2006: 332) adierazi dutenez–, korrante horrek analisiaren erdigunean jartzen ditu Hegoaldeko estatuak, herriak eta pertsonak, eta haietan "ezberdin kokatuta" dauden esperientziak (Acharya, 1997: 307).

Rita Abrahamsenek dioen bezala (2007: 111-113), pentsamendu-gorputz bateratu bat baino gehiago, anitza eta askotarikoa da, eta hainbat aurrekari intelektual ditu. Horien artean, Albert Memmi, Frantz Fanon, Aimé Césaire, Mahatma Gandhi edo Amílcar Cabral bezalako hegoaldeko intelektual anticolonialak; marxismoa, zeinetatik eratortzen baitira, adibidez, Antonio Gramscik proposatutako "subalternitate" eta "hegemonia kulturala" bezalako terminoak; zenbait pentsalari postestruturalista, Jacques Derrida, Michel Foucault edo Jacques Lacan kasu; Indiako Ikasketa Subalternoen eskolak; edo Edward Saiden "Orientalismoa" liburua (1978), ikasketa postkolonialen sorburu identifikatu ohi dena. Erreferente horien aberastasunagatik agian, Vilashini Cooppanek (1992: 2) dio Postkolonialismoaren gako-hitza direla honakoak: "heterogeneotasuna, desberdintasuna, alteritatea [eta] hibridotasuna".

50 Siba N. Grovogui (2004: 33) XX. mendearen erdialdean kokatzen ditu aurrekari horiek, nazioarteko harremanetako intelektual eta profesionalak, batez ere kolonietan, kolonialismoa gaindituko zuten nazioarteko bizikidetzaren baten inguruan hausnartzen hasi zirenean.

51 Ideia hori bera "eurozentriko" edo "etnozentriko" bezalako hitzek islatzen dute.

"Postkolonial" terminoa bera kontzeptu anbigua eta eztabaidagarria da. Izan ere, "post" aurrizkiak ez du iraganaren eta orainaren arteko denbora-banaketa ezarri nahi garai kolonialaren eta independentzia politiko formalaren artean, jarraikortasun bat islatu baizik (Abrahamsen, 2007: 114; Nair, 2017: 69). Izan ere, literatura postkolonial berrienean Iparra/Hegoa edo erdialdea/periferia banaketari buruzko aipamenek pisu gutxiago dute arren, mendekotasunean eta zapalkuntza globalean oinarritutako harremanek presente jarraitzen dute (Pérez de Armiño, 2019: 177). Kolonizazioa ez da amaitu, eta botere forma kolonialak (ekonomikoak, politikoak, militarrek, kulturalak eta, are, psikologikoak⁵²) mantentzen dira nazioarteko politikan. "Neokolonizatutako mundu postkolonial batean bizi gara", dio Gayatri Spivakek (1990: 166). Horregatik, "postkolonial" kontzeptua "munduko ordena 'berrian' dirauten harreman 'neokolonialen' iraunkortasunaren oroigarri osasuntsua da" (Bhabha, 1994: 6).

Korronte horren arabera, nazioarteko errealitatearen –eta nazioarteko bakea eta segurtasunaren– ulermenak, Ipar kolonizatzaile (ohia)ren eta Hego (des)kolonizatuaren arteko botere-harreman anitzak aztertu behar dira, bai iragan kolonialean, bai orainaldi postkolonialean ere (Abrahamsen, 2007: 112). Izan ere, Randolph Persaudek (2004: 57) adierazten duen bezala, postkolonialismoak agerian utzi nahi du nola Mendebaldeak bere pribilegio-egoera lortu duen munduko zati handienaren marjinazio ekonomiko, politiko eta kulturalari esker.

Eta menderatze hori, besteak beste, "irudikatzeko botereaz" baliatu da (Chowdhry eta Nair, 2004: 15), hau da, Iparraldeak "bestearen" gainean egin duen ezagutza-ekoizpenaz –baita subjektuez eta identitateez ere–. Biek eraikitzen dute euren irudia, euren identitatea, elkarrekiko interakzioaren eta etengabeko elkarriketaren bidez (Abrahamsen, 2007: 114-115), baina harreman horren asimetriak izugarriak dira, eta hori bereziki nabarmena da bestearen gaineko diskurtsoa eraikitzerakoan, mendebaldearen onerako. Menderatze diskurtsibo hori hainbat estrategiatan oinarritzen da, besteak beste, mendebaldeko ezagutzaren unibertsalizazioa –normalizazioa–, eredu edo erreferentzia bihurtu dena; "bestearen" orientalizazioa (Said, 1978) eta exotizazioa (Suárez, 2008: 39); edo "mendebaldekoa ez den" ezagutza, hau da, "beste batzuek" sortutakoa, ikusezin bihurtzea.

"Bestea" arrotz egiteko logika hau, Saiden (1978) arabera, "Mendebalde-Ekialde"⁵³ bereizketaren sorkuntzatik abiatzen da, zeinarengandik mendeetan zehar Mendebaldean eraikitako beste aurkakotasun bitar batzuk eratortzen diren: "arrazional-irrazional", "heldu-haur", "moderno-primitibo", "normal-desberdin" eta abar. Lehen ezaugarriak, Mendebaldeari esleitutakoak, positibotzat hartzen dira, eta bigarrenak, "besteari" (Mendebalde ez denari) esleitutakoak, negatibotzat. Lente hori distorsionatuta dago, eta Ekialdea bereizitaz hartzen lagundu du, hain zuzen, Mendebaldearekiko desberdin (aurkako) bezala ulertuz. Adibidez, "ni zibilizatua eta bestea barbaroa" iruditeria etengabe ekoiztu eta erreproduzitu du Iparraldean (Mgbeoji, 2006).

Era berean, Mendebaldeak Hegoaldea espazio zabal homogeneo eta ezegonkor bezala ikusteko joera du. Ordea, Iparralde baketsuan, estatuen eta eskualdeen ibilbide historikoetan desberdintasunak argi eta garbi antzeman daitezke (Krause, 1998: 133). Ildo horretan, segurtasun ikasketa nagusiek Iparraldea beti "ona" den munduaren interpretazioa eskaintzen dute (Klein, 1994: 5), eta horrek inplikazioak ditu Hegoaldearekin duen harremanean eraikuntzan, besteak beste: Iparraldeko kultura eta balioak indartzen ditu; Hegoaldean esku hartzeko dituen modu desberdinak (politikoak, militarrek, ekonomikoak) legitimatzen ditu; Mendebaldeak nazioarteko segurtasunik ezan dituen erantzukizunak lausotzen ditu, bereziki potentzia handien haien segurtasun bilaketan Hegoaldeko estatuen segurtasunik ezaren jatorria ere egotea (Ayob, 1983: 48-49)⁵⁴; eta, azkenik, Hegoaldeko herrialdeak munduko politikan rol marjinala edo sekundarioa izatera baztertzen ditu, kasurik onenean asmo liberal onberen objektutzat hartzen baitira, eta, okerrenean, balizko mehatxu bezala. Horregatik guztiagatik, korronte honek funtsezkotzat jotzen du zalantzan jartzea Mendebaldean mendebaldekoak ez diren herriei buruz eraikitako zein beste ahots posible batzuk menderatzea ahalbidetzen dion botere-posizio batetik eraikitako ezagutza (Said, 1978).

52 Ashis Nandyk (1983:63) adierazten duenez, kolonialismoa, batez ere, pertsonen buruan garaitu behar den kontzientzia-arazoa da.

53 Mendebalde-Ekialde dikotomia horretan, Saidek bigarrena mundu arabiar-musulmandarrarekin identifikatzen du, baina dikotomia hori bera (eta dagozkion aurkakotasun bitarrak), oro har, Hegoaldera ere zabal dezakegu.

54 Gerra Hotzaren adibidea bereziki agerikoa da hemen.

Izan ere, Mendebaldeko ezagutzaren ekoizpen eta unibertsalizazio hori nazioarteko bakearen eta segurtasunaren interpretazioan ere badago. Adibidez, alde batetik, diziplinan nagusi den bakearen ulermena oinarri kristau sakona duen europar tradizioako balio-sistema batean oinarritzen da (Salem, 1993: 362); eta, aldi berean, beren balioetan, kulturen, beharretan eta erabakietan oinarrituta daudelako sozialki zilegiagoak diren bake-eraikuntzako tokiko praktikak eta esperientziak alboratzen dira (Pérez de Armiño, 2019: 187). Bestetik, segurtasun estatozentrikoaren kontzeptua estatu-eredu "westfaliarraren"⁵⁵ ezaugarrietan oinarritzen da (lurraldearen, biztanleriaren eta mugen gaineko kontrola, indarkeriaren erabileraren monopolioa, administrazio egonkorra eta abar), mendebaldeko herrialdeei dagokiena (Ayoob, 1983: 42); eta, aldi berean, herrien eta/edo pertsonen interesak eta kezak baztertzen ditu. Era berean, bakeari eta segurtasunari buruzko ikuskera militarrek Hegoaldearentzat funtsezkoak diren arazoak gutxiesten ditu, hala nola baliabideen eskasia, gainpopulazioa, azpigarapena eta ingurumenaren degradazioa, zeinak, kasu gehienetan, harreman nabarmena duten Iparraldeko nazioarteko praktikekin.

Mendebaldeko eta etnozentrikoa den segurtasunaren definizio hori gainditzeko, aldaera postkolonialek ez dute soilik diziplinaren *mainstreama* kritikatzeko; segurtasun ikasketa kritikoak ere kritikatzeko dituzte (Bilgin, 2010; Peoples eta Vaughan-Williams, 2010: 47). Barkawik eta Laffeyk (2006) adierazi bezala, batzuk eta besteak tematzen dira Hegoaldea definitzen itxuraz "falta zaionari" dagokionean Iparraldearekin alderatuta (subiranotasuna, instituzio indartsu eta egonkorak, garapen ekonomikoa eta abar), eta bitartean, bien arteko elkarrekin kolonial eta postkolonialaren mendeetako ondorioak alde batera uzten dituzte. Horregatik, korrante postpositibistetatik "gabezia" horiek identifikatzen dituzten kontzeptuak ere kritikatzeko dituzte. Adibidez, "garapena" (mendebaldeko modernitate eta aurrerapenaren ideietan oinarritua) edo "emantzipazioa", mendebaldeko tradizio intelektualekoak eta Hegoaldean potentzial desegonkortzailea izan dezaketenak (Ayoob, 1997: 127-128; Barkawi eta Laffey, 2006: 332). Ildo beretik, autore feminista postkolonialek zalantzan jartzen dute zein espazio geografikotatik eta, beraz, zein botere-posiziotatik, interpretatzen diren modu hegemonikoan "generoa", "genero-harremanak" edo "emakume" bezalako kontzeptuak (Mohanty, 1988; Spivak, 1996; Chowdry eta Nair, 2002)⁵⁶.

Aitzitik, mendebaldeko jatorria duten beste kontzeptu batzuk arrakasta izan dute literatura postkolonialean. Adibidez, Foucaulten "biopolitika" kontzeptua, postestruturalismoari buruzko epigrafean aipatu duguna, arraza-ezaugarrien biopolitika global garaikidearen analisisan erabili da asko. Horrela, Achille Mbembere "nekropolitika" kontzeptuak defendatzen du, dagoen arraza-desberdintasunean oinarrituta, bizitza batzuk gehiago babesten direla beste batzuen aldean. Bere ustetan, kolonizazioa (eta bere dinamikak, horien artean, bereziki, esklabotza) gobernantza biopolitikoaren adibide paradigmaticoa da, hau da, "kontrolak eta bermeak... desagertzen ziren" espazio bat, ulertzen zelako "salbuespen-egoeraren indarkeriak" 'zibilizazioaren' zerbitzura lan egiten zuela" (Mbembe, 2003: 24). Autore honek logika hori bera identifikatzen du migrazioen, krisi humanitarioen, gatazka armatuen eta antzeko fenomeno gobernantza global garaikidean. Izan ere, munduko populazioaren zati handi bat bizitzaren eta heriotzaren artean kokatutako bizi-baldintzetan bizirautea ahalbidetzen eta sustatzen duten politikak inplementatzen dituelako, eta horrek populazioa errazago maneiatzea (eta baztertzea) ahalbidetzen du.

Ezin dugu ahaztu egungo estatu-sisteman parte hartzen duten herrialde gehienak ez zirela existitzen estatu gisa duela laurogei urte; ez ziren nazioarteko harremanetako "subjektuak", "objektuak" baizik (Ayoob, 1983: 44). Gerra Hotzean, euren independentzia formalak ez zuen eragotzi estatu berriak lehia bipolarrean jokoan zeuden eremutat hartzea. Testuinguru horretan, "Hirugarren Mundua" deiturikoa gertatu ziren gatazkak interesgarriak ziren bi blokeen interesei eragiten zieten (Acharya, 1997: 300). Hori Mendebaldeko segurtasunari buruzko esperientzia lehenesteak Hegoaldearen eginkizuna minimizatu eta gutxietsi duenaren beste adibide bat da (Barkawi eta Laffey, 2006: 330).

55 1648tik garatua, Europar gerra-aldi luze bati amaiera eman zioten bi bake-akordioak ordena berri bat eratu zuten, estatuaren subiranotasunaren printzipioan oinarritua.

56 Halaber, kritikatzeko dute Mendebaldeko feminismoa patriarkatuaren aurkako borrokan zentratzen dela, baina beste zapalkuntza sistema batzuk ezikusten dituela, hala nola arraza, etnia, naziotasuna edo klasea. Horiek elkarren artean gurutzatuta daude, eta zapalkuntza askotarikoak sortzen dituzte, Hegoaldeko emakumeei modu zuzen eta berezitan eragiten dietenak (Chowdry eta Nair, 2002).

Izan ere, nazioarteko sistemako estatu gehienek esperientzia historikoak –boterea ez dutenak, baina gerren ondorioak jasan dituztenak, eta bakea eta segurtasuna bilatzeko hainbat modu garatu dituztenak– analisi nagusietatik kanpo utzi dira. Abiapuntua bera ere desberdina da: korrante nagusiek nazioarteko sistemaren arazo nagusia anarkia dela uste duten bitartean, Postkolonialismoak bere izaera hierarkikoan jartzen du arreta (Nair, 2017: 71). Ez da harritzekoa, beraz, Amitav Acharyak (1997: 302-304) dioen bezala, Iparraldeko eta Hegoaldeko segurtasun/segurtasun ezaren bizipenak hain desberdinak izatea.

Azkenik, aldaera postkolonialen beste ekarpen funtsezko batek agentziaren kontzeptuarekin du zerikusia. Segurtasunaren inguruko ikerketa eurozentrikoak –hala diote Barkawik eta Laffeyk (2006: 329)– boteretsuek definitu dituzte, eta, modu batean gainera, ezen horien kontrako erresistentzia eta kontestazioen jatorria eta zilegitasuna behar bezala ulertzea eragozten duen. Horren aurrean, Postkolonialismoak Hegoaldearen erresistentziak eta Iparraldearekin dituen harremanak eraldatzeko dituen agentzia desberdinak nabarmentzen ditu. Homi Bhabha autorearen arabera (1994), menderatze koloniala ez zen erabatekoa izan, eta tokiko populazioak ere ez ziren biktima pasiboak izan, sarritan aurkezten diren moduan. Inposizioaren aurrean erresistentziadun agente aktiboak izan ziren, eta horrek "hibridazioa" eta harreman aldakorrek sortu zituen; hau da, bi aldeek euren identitateetan eta errealitateetan eraldaketak izan zituzten. Izan ere, Persaudek (2004: 58) dioen bezala, Postkolonialismoa ez da biktimizazioan, marjinazioan, zapalkuntzan eta mendekotasunean oinarritzen, baizik eta kritikan, erresistentzian eta bidegabekeriak sortzen eta ugaltzen dituen diziplina baten aurrean alternatibak sortzean. Ildo horretan, mundua nolakoa den ez ezik, nolakoa izan beharko lukeen ere ulertzeko interesa du korrante honek (Nair, 2017: 69). Erresistentzia-modu horietako bat ahots subalternoa berreskuratzea izan da, diskurtso hegemonikoak hausteko. Acharyak (1997: 304-305) adibide gisa jarri du Gerra Hotzean Hegoaldeak egindako gorakada Lerrokatu Gabeko Herrialdeen Mugimenduaren bidez, eta nola mugimendu horrek zalantzan jarri zuen izatez Hegoaldearentzat (eta planetarentzat) mehatxu bat zen Ekialde-Mendebalde lehian oinarritutako nazioarteko ordenaren zilegitasuna.

4.5. Feminismoak

Beste korrante postpositibista batzuekin gertatzen den moduan, pentsamendu feminista ez da Nazioarteko Harremanetako esparruan sortu; lehenagotik indarra zuen eta zabalagoa den mugimendu politiko, sozial eta intelektual baten isla da⁵⁷. Nazioarteko Harremanetan ikusgarritasuna hartzen hasi zen laurogeiko hamarkadaren amaieran, eta harrezkero, aldaera askoren bidez garatu da, besteak beste: liberala, erradikala, marxista, postestrukturalista, postkoloniala, ekofeminista, feminismo beltzak, chicanoak, afrikarrak, latinoak, *queer*, eta abar⁵⁸. Beraz, aldaera horiek puntu komun nabariak partekatzen badituzte ere –gehienak postpositibistak dira (feminismo liberala izan ezik, adibidez) eta gizartearen genero-berdintasunerantz eraldatzearen alde daude–, korrante hau ez da ez uniforme, ezta adostua ere, baizik eta konplexua eta barne-eztabaida asko dituen (Sylvester, 2002: 269)⁵⁹.

Nazioarteko Harremanetan izandako bilakaeran, feminismoen lehen "olatuak" (Steans, 2013) edo "belaunaldiak" (True, 2009: 239) emakumeengan eta diziplinan zuten parte-hartzean jarri zuen arreta, pairatzen zuten bazterketa salatzeko ahaleginean (Daddow, 2009: 146). "Non daude emakumeak?", galdetzen zuen Cynthia Enloe (1993: 20) hasierako une horietan. Nazioartekoa gizonen eremua zen (Enloe, 2000: 4), eta bakea eta segurtasuna ez ziren salbuespena. Gerrak eurak bezain maskulinizatuta zeuden (Roberts, 1984: 195). Pixkanaka, laurogeita hamarreko hamarkadaren amaieratik eta XXI.

57 XVIII. mendearen amaieratik, teoria politiko eta praktika iraultzaileak Erresuma Batuan, Frantzia eta, ondoren, Estatu Batuetan, gizonentzako eskubideak ezarri nahi zituen, horiek baitziren arrazionalki pentsatzeko eta jarduteko gaitasuna aitortzen zitzaizien bakarrak (Enloe, 2007: 101). Feminismoa egoera horri erantzuteko eta gizonen eta emakumeen eskubide-berdintasuna sustatzeko sortu zen.

58 Bakearen aldeko ikerketa feminista, "Segurtasun Ikerketa Feminista" (*Feminist Security Studies*) edo "Bakearen aldeko ikerketa feminista" (*Feminist Peace Research*) ere garatu dira. Ekarpene nagusiak bateratzeko ahaleginean, aldaera feministez ari gara oro har lan honetan, baina badakigu aniztasun handia dagoela bai diziplinan, bai Bake eta Segurtasun Ikasketetan.

59 Arrazoi horregatik korronteari pluralean egiten diogu erreferentzia ("Feminismoak"), autore askok aldarrikatzen duten moduan (Enloe, 2007: 104).

mendearen hasieratik aurrera, analisia "emakumearengandik generora" aldatu zen (Rodríguez Manzano, 2001: 250), eta bigarren belaunaldi feminista agenda feminista zabaltzen eta sakontzen hasi zen (bai gaietan, bai subjektuetan): generoa erreferentzia eta tresna analitiko gisa erabiltzen hasi ziren; generoa beste zapalkuntza-sistema batzuekin (klase soziala, arraza, etnia, sexualitatea, naziotasuna eta abar)⁶⁰ nola gurutzatzen den aztertzen hasi ziren; eta ikerketa-metodologia feministak aplikatzen ere hasi ziren (Ackerly et al., 2006; True, 2009: 240).

Idea horien zein nazioarteko mugimendu feministaren indarrarekin, Nazio Batuen Erakundearen Segurtasun Kontseiluak "Emakumeak eta Bakea eta Segurtasuna" izeneko 1325 Ebazpena onartu zuen 2000. urtean. Ebazpen hori mugari izan zen, genero-ikuspegia nazioarteko bakean eta segurtasunean txertatzen baitzuen. Horren ondoren, beste bederatzi ebazpen etorri dira, izen bereko nazioarteko agenda bat osatzen dutenak eta ordutik hona esparru horietan diskurtso eta praktika feministaren zati handi bat bideratu dutenak.

Egun, beste garapen garrantzitsu bat identifika daiteke: *queer* eta LGBTIQ+ aldarrikapen, dinamika eta esperientziak ikusarazten ari dira esparru honetan. Feminismoetatik eta Postestrukturalismotik datorren hirugarren belaunaldi horrek diziplinaren identitate mugatu eta mugatzailea kritikatzeko du (Weber, 2014), eta haren funtsezko abiapuntuak deseraikitzea proposatzen du. Ildo horretan, sexualitateak, genero-adierazpenak edo sexu-eskubideak aztertzeaz gain –LGBTIQ+ bizitzak erdigunean jarritz–, zalantzan jartzen ditu diziplinaren baitako botere politiko, ekonomiko eta sozialeko harremanak (Thiel, 2017: 97). Horrekin, politika globalaren pentsamendu dikotomikoaren tentsio eta ondorio kaltegarriak argitara ekartzen laguntzen du, adibidez, segurtasuna/segurtasunik eza eta bakea/gerra dualtasuna zalantzan jarritz (Hagen eta Edney-Browne, 2023: 192).

Bilakaera horren ondorioz, diziplinako feministek emakumeak aztertzeaz gain, generoa ere aztertzen dute, eta, emakumeen zapalkuntza ez ezik, genero-hierarkiak ere aztertzen dituzte, bai eta pertsonen arteko esperientzietan eta botere-harremanetan nola eragiten duten ere (Sjoberg, 2013: 264). Izan ere, maskulinitate(ar)en eta feminitate(ar)en definizioak –eta horietatik eratorritako genero-harremanak– unearen eta lekuaren arabera aldakorrak badira ere, ia beti desorekatuak dira, gizonen alde⁶¹ eta emakumeen eta beste genero-identitate disidenteentz kaltegarriak. Feminismoak, beraz, generoa diziplinan zabaltzeaz gain, hori botere-egitura den aldetik nazioarteko harremanen teorian eta praktikan txertatuta dagoela agerian utzi nahi du (Zalewski, 1998: 3 eta 16; Tickner, 2001: 29). Harreman diplomatiko, militar eta ekonomikoen egituraren ezaugarri integrak da –ez ustekabekoa– (Connell, 2008: vii), eta bakea eta segurtasuna, berriz ere, ez dira salbuespena: generoak funtsezko zeregina duen eremuak dira (Moser, 2001: 30; Seifert, 2009: 21).

Sandra Hardingek dioen bezala (1991: 142 eta 149), feminismoak lehen ezaguna zena arrotz egiten saiatu dira, lehen naturalizat jotzen zena zalantzan jartzen. Zentzu horretan, Nazioarteko Harremanetan ere diskurtso patriarkalaren aurrean "estrategia subertsiboak" izan dira (Runyan eta Peterson, 1991: 72). Aldaera feministek salatu dute emakumeen bizitzak eta esperientziak ikerketetatik kanporatuak izan direla –eta direla– (True, 2009: 240). Diziplinako ezagutza, tradizionalki, gizonen sortutakoa eta gizonei buruzkoa izan da (Peoples eta Vaughan-Williams, 2010: 35), hau da, izaera alboratzaile eta partziala du. Horrek emakumeen ikusezintasuna, diziplinan "isiluneak" egotea (Halliday, 1991: 158; Tickner eta Sjoberg, 2007: 199) eta munduaren ikuskera partzial eta maskulinoa egotea ahalbidetu du⁶². Eta hori guztia, gainera, "osotzat" (auto)jirudikatu den diziplina batean (Richmond, 2012: 24), hau da, korrante nagusiek nazioarteko errealitatea behar bezala azaldu ahal izateaz harro agertu diren diziplina batean (Halliday, 1991: 158).

60 Intersektionalitatearen kontzeptua bereziki garrantzitsua izan da zenbait aldaera feministentzat (marxista, postkoloniala, beltza, afrikarra, latinoak, etab.) diziplinako beste korrante batzuen izaera baztertzaila agerian uzteko, eta baita beste aldaera feminista batzuen ere, liberalarena, adibidez.

61 Azken bi hamarkadetan, gizonen eta maskulinitate eredu desberdinek nazioarteko harremanetan gauzatzen duten boterearen azterketa geroz eta handiagoa da, nahiz eta oraindik oso txikia izan. Badira, adibidez, maskulinitate hegemoniko eta militarizatuak nazioarteko bakean eta segurtasunean duten eraginari buruzko azterlan teoriko eta enpirikoak (Enloe, 2005; Durie-Smith, 2017; zirion landaluz, 2019).

62 Feminista batzuk "*malestream*" (korrante maskulino) hitz-jokoa erabili dute korrante dominanteak izendatzeko, "*mainstream*" (korrante dominante) erabili beharrean, bere izaera maskulinoa salatzen (Youngs, 2004: 75).

Are gehiago, feministek, Errealismoa kritikatzear gain, ageriratu dute korronte postpositibista asko ere genero-harremanen onarpenetan (esplizituki edo inplizituki) oinarritu direla (Cockburn, 2007: 234). Adibidez, euren agenda erabakitzeke orduan korronte bakoitzak erabaki du nor eta zer zen garrantzitsua edo zerk merezi zuen arreta (Enloe, 2007: 102). Horrela, gerraren kasuan, ia guztiak gizonen esperientzietan zentratu dira (gudariak, presoak, jeneralak, pilotuak, gerrako kriminalak), eta erabaki dute gerrak emakumeengan izandako eragina –eta emakumeek gerrarengan dutena– zeharkakoa zela (Whitworth, 2008: 108), eta, beraz, garrantzi gutxiagokoa. Aitzitik, aldaera feministen abiapuntua da emakumeak eta haien egoerak baztertzea ikerketa partzialak, fidagarritasun gutxikoak edo okerrak egitea dela (Enloe, 2007: 102).

Horregatik, dominanteak diren ontologia, epistemologia eta metodologia nagusiak zalantzan jarri eta deseraiki dituzte, eta eurentzat alboratzailea den ezagutzaren ekoizpen hegemonikoari alternatibak eskaini dizkiote. Besteak beste, funtsezko kontzeptuak irauli dituzte (Runyan eta Peterson, 1991), hala nola estatua, bakea, gerra, segurtasuna, boterea edo subiranotasuna; diziplinako eztabaida klasikoei buruzko beste ahots eta ikuskera berritzaile batzuk eskaini dituzte; bakearen eta segurtasunaren agenda zabaldu dute; eta ordura arte oso gutxitan egindako galderak egin dituzte (Tickner, 2006: 41), "politikatzat" edo diziplinaren edukitzat hartzen ez zirelako, edo hutsalegitzat hartzen zirelako (Zalewski, 1993: 138; Enloe, 2007: 102-103). Horien artean, ondorengo taulan ikusi daitezkeenak: Nork definitzen ditu bakea eta segurtasuna? Nola definitzen dira? Noren bakea eta segurtasuna? Nola bermatzen eta mantentzen dira bakea eta segurtasuna? Zein da interpretazio horien logika? (Mendia eta Saillard, 2013: 231-234).

3. Taula. Bakea eta segurtasunaren ikuskera errealistari egindako kritika feminista		
	Ikuskera errealista	Kritika feminista
Nork definitzen ditu bakea eta segurtasuna?	Begirada nagusiki maskulinoa.	Emakumeen esperientziak eta ezagutzak alderatzen ditu. Ikuskera femeninoak ezikusten edo gutxiagotzen ditu.
Nola definitzen dira bakea eta segurtasuna?	Segurtasuna erasoen aurkako babes gisa (kanpokoak-barnekoak). Bakea gerraren gabezia bezala. "Bake negatiboaren" nozioa (estatikoa).	Oinarrizko giza premiak ez asetzea mehatxu garrantzitsu eta sistemiko direla ahazten du. Emakumeengan eta gizonengan eragin desberdina duten beste indarkeria-mota asko daude. "Bake positiboaren" nozioa (dinamikoa).
Noren bakea eta segurtasuna?	Estatua (mugen babesa, unitate "nazionala" eta instituzioak).	Babesgabetasun handiena duten pertsonen segurtasuna ikusezin bihurtzen du (indarkeria desberdinengatik: zuzena, egiturazkoa eta sinbolikoa).
Nola bermatzen dira bakea eta segurtasuna?	Bitarteko militarrekin (disuasioa). Edozein bitartekoren erabilera "norbere defentsarako".	Militarismoa segurtasunerako mehatxu eta balio patriarkalen adierazpen nagusia da (militarismo-sexismo lotura). Gastu militarrek garapen sozialerako baliabideak desbideratzen ditu.
Zein logika eusten dituzte interpretazio horiek?	Metaketa ekonomikoaren logika (kapitalismo neoliberala).	Bizitza eta harreman sozialak sostengatzeko oinarrizko egitekoak esparru pribatura eta ekonomia informalerako (ordaindu gabekoa) baztertzen ditu.

Iturria: Mendia eta Saillard (2013: 234), aldaketekin.

Taulan ikus daitekeenez, feministek uko egin diote gerran eta anarkian gehiegi zentratutako analisiari. Salatu dute nola segurtasunaren ikuskera hegemonikoa, zero baturakoa (batzuen segurtasuna besteen segurtasunik ezan oinarritzea), "nazionala" eta estatu militaristek emandakoa (True, 2009: 251), berez, pertsonen eta komunitateen biziraupenerako eta iraunkortasunerako mehatxua den. Bertan, estatuaren

interesak –berez, eliteen interesak– biztanleriaren interesen gainetik daude (Reardon, 2010: 226). Izan ere, ikuskera horren arabera, estatuaren babesak herritarren sakrifizioa behar du, eta sakrifizio hori generoklabearen eraikitzen da: gizonak borroka egitera behartuta daude; emakumeek, berriz, ugalketa soziala bermatu, eta gizonen beharrak zaindu eta ase behar dituzte, bai sexu-langile gisa, bai bortxaketaren bidez. Beraz, estatuaren segurtasuna pertsonen segurtasun ezaren gainean eraikitzen da.

Diskurtso errealista dominanteak segurtasun nazionaleko arazoak, arazo ekonomikoak, giza eskubideetakoak edo ingurumeneko arazoak konpartimentu estankoak bailiran tratatzen ditu, isolatutakoak, loturarik gabekoak bailiran. Horrek patriarkatuaren ezaugarri den pentsamenduaren zatiketa ezartzen du (Ibidem: 229). Aitzitik, feministek segurtasun zabalagoa eta dimentsio anitzekoa defendatzen dute. Mehatxua –argudiatzen dute– ez da gerra bakarrik, eta, besteak beste, etxeko indarkeria, pobrezia, sexu-indarkeria edo ingurumenaren degradazioa ere badira (Tickner eta Sjoberg, 2007: 193).

Adibidez, gatazka armatua dauden emakumeen aurkako indarkeriari buruzko azterketa nagusiek indarkeria-motak sailkatu eta hierarkizatzeko joera eta horietako bakar batean edo batzuetan zentratzeko joera dute (Moser, 2001: 34), indarkeria modu konplexu eta integralean aztertu beharrean. Horren aurrean, zenbait egile feministak "indarkeriaren *continuum*aren" kontzeptua proposatu dute. Kontzeptu horren arabera, indarkeria moduak (fisikoa, egiturazkoa eta sinbolikoa), eremuak (politikoa, soziala, ekonomikoa) eta uneak (gatazkaren aurretik, bitartean eta ondoren) bata bestearen atzetik gertatzen dira, *continuum* bat bailiran (Moser, 2001; Rehn eta Sirleaf, 2002: 9-10). Ikuspuntu horretatik, emakume askorentzat gerrak ez dirudi bakearen oso bestelako testuingurua denik. Cynthia Cockburnek (2004: 43) sentimendu hori jasotzen du gatazka armatuaren testuinguruan elkarriketatutako emakume baten esaldiarekin: "Gerra? Ez niri gerraz hitz egin. Nire eguneroko bizitza bada nahikoa gudu-zelai". Emakumeek –eta gorputz eta identitate disidenteek– eguneroko bizitzan aurre egiten dioten indarkeriaren *continuum* horren ondorioz, pentsamendu feministak zalantzan jarri ditu diziplinaren *mainstream*ari dagozkion bai bakea-gerra dikotomia baita bake negatiboaren kontzeptua (gatazka armatuaren eza bezala ulertuta) ere, errealitatea modu ulergarriagoan aztertzeke.

Analisiaren sakontasun horrek bakearen eta segurtasunaren subjektuei ere egiten die erreferentzia. Feministek nabarmen aberastu dute ikuskera estatozentriko eta estatu arteko ikuskera tradizionala, zeinaren aktoreak estatistak diren, "estatu-gizonak", jeneralak, militarrek, enpresaburuak eta abar. "Isilarazitako ahotsak" ere aztertzen dituzte, adibidez, estatuz kanpoko aktoreak, komunitateak eta nazioarteko politikan zapaldutako eta baztertutako pertsonak (Sjoberg, 2013: 165). "Pertsonala politikoa da" baieztapen feminista famatutik abiatuta, Cynthia Enloe (1990: 196) argudiatu du "pertsonala nazioartekoa" dela, hau da, pertsonen bizitza pertsonalak (pribatua), baita bazterretan daudenenak ere, eragina duela nazioarteko harremanetan. Horrek aldaketa nabarmena dakar, publiko/pribatu dikotomia eta eremu pribatua NHen azterketatik kanpo uzteko joera tradizionala gainditzeko dituelako⁶³ (True, 2009: 247).

Idea horien arabera, ez da nahikoa bakearen eta segurtasunaren eremu publikoan arreta jartzea (gobernuak, base militarrek, gudu-zelaiak, komunikabideak, eta abar), espazio "pribatuak" (etxea, familia, adiskidetasun-harremanak, bikote-harremanak, eta abar) eta horietan dauden eta baldintzatzen dituzten botere-dinamikak barne hartu gabe (Enloe, 2007: 99). Eguneroko botere-harremanek espazio pribatua gainditzeko dute eta nazioarteko harremanetan eragina dute; beraz, emakumeak eta haien bizitzak aztertzea ez da "emakumeen gai" bat, ezta arazo soziologiko bat ere, nazioarteko eta segurtasun nazionaleko arazo bat baizik (Enloe, 1990; Moon, 1997: 11). Botere gutxien duen emakumea funtsezko pieza da nazioartean (Moon, 1997: 52). Edo, segurtasunaren eremura aplikatuta, eta Laura Sjobergek (2013: 109) adierazten duenez, botere gutxien duen estatuko botere gutxien duen emakumearen segurtasuna, funtsezko segurtasun gaia da. Izan ere, Enloe (1990: 196) argudiatzen duenean "pertsonala nazioartekoa dela" eta, aldi berean, "nazioartekoa pertsonala", iradokitzen du nazioarteko politikak jende arruntarengan duen

63 Adibidez, Jean Trontok (2008: 180) dioen bezala, inork ez du zalantzan jartzen zaintzek eremu pribatuan duten garrantzia, baina pentsamendu dominanteak ez du interesik gai hori "muga" horietatik kanpo ateratzeko. Hala ere, akademiko feminista batzuek nazioarteko eremu publikora zabaldu dute zainketen etikaren irismena, eta zalantzan jarri dituzte, adibidez, esku-hartze humanitarioen logika, Bakea Mantentzeko Operazioak, "Babesteko Erantzukizunaren" ideia eta Nazioarteko Garapenerako lankidetzak edo giza eskubideak babesteko politikak (Hutchings, 2000: 122-123; Tronto, 2008).

eragina ez dela noranzko bakarrekoa, baizik eta pertsonen nazioartean ere eragina dutela. Aktoreen eta nazioarteko egituren ikuskera zabalago horrek pertsonen segurtasunaren eta nazioko eta nazioarteko segurtasunaren arteko elkarreraginak argitzen lagundu du (Tickner eta Sjoberg, 2007: 193).

Feminismoek garapen handia izan dute diziplinaren barruan, eta beren eragina ukaezina da azken bi hamarkadetan. Hala ere, *mainstream*etik gertuen dauden ideia eta diskurtso feministak (bereziki feminismo liberalak) dira agendan sartzea lortu dutenak. Ahots desafiatzaile eta kritikoenek NHetako periferian jarraitzen dute neurri handi batean. Ikusi dugun bezala, diziplinaren aurkako kritika estrukturalak egiten dituzte eta nazioarteko bakeari eta segurtasunari buruzko ikuskera heterodoxoak proposatzen dituzte, eta horrek erresistentziei eta aurkakotasunei aurre egin behar izatera eraman ditu (Whitworth, 1994: ix). Batzuetan, ikusezinak ere egin dituzte ekarpen feministak, diskurtso nagusiek kezka feminista batzuk zuzenean garrantzirik gabekotzat jo dituztelako. Gauzak horrela, zenbait aldaera feministaren eta diziplinaren zati esanguratsu baten arteko harremana eskasa izan da.

Badirudi, Gillian Youngsek (2004) dioen bezala, Nazioarteko Harreman feministez hitz egitea, izatez, oximorona dela⁶⁴, eta horrek zuhurtziaz jokatzera garamatza: Zein neurritan bakearen eta segurtasunaren inguruko proposamen feminista iradokitzaile eta berritzaileak izan dute eragina pentsamendu dominantean? Egiturazko eraldaketarik izan al da estatuen eta nazioarteko erakundeen bakearen eta segurtasunaren politika eta praktiketan? Ezarritako genero-ikuspegia lausotuta, kooptatuta eta despolitizatuta geratu al da praktikan? Eta, bereziki, agendan sartzea lortu duten proposamen feministek balio izan al dute, oro har, pertsonen eguneroko bizitza hobetzeko, eta, batez ere, emakumeen eta genero-identitate disidenteen eguneroko bizitza hobetzeko?

4.6. Teoria Berdea

Hirurogeiko hamarkadaz geroztik, mugarri desberdinak izan ziren, Nazioarteko Harremanetatik kanpo, ingurumenari buruzko azterketa gero eta handiagoa bultzatu zutenak, batez ere, ingurumenaren degradazioari eta gizakiak naturan duen eraginari buruz. Mugarri horien artean daude, besteak beste, Rachel Carsonen *Silent Spring* liburua (1962), elikatze-katean pestizidek duten eragin kaltegarria azaldu zuena; Nazio Batuen Giza Ingurumenari buruzko Konferentzia (Stockholm, 1972) eta Nazio Batuen Ingurumen Programaren sorrera; Erromako Klubaren "Hazkundearen mugak" txostena (1972), hazkunde ekonomikoa kontrolatzen ez bazen hondamendi ekologikoa gertatzeko arriskuari buruz ohartarazten zuena; alderdi berdeen sorrera eta haien aldarrikapenetako batzuk agenda nazionaletan eta nazioartekoan sartzea laurogeiko hamarkadan; edo Klima aldaketaren inguruko Nazio Batuen Esparru Hitzarmena abian jartzea, "Kiotoko Protokoloa" (1994) deiturikoa.

Ekarpen horiek hurbilketa desberdinetan oinarritutako garapen teorikoak lagundu zituen, besteak beste, ingurumenarenak, Ekologia Politikoarenak (ekologismoa) edo Nazioarteko Ekonomia Politikoarenak (Pérez de Armiño, 2019: 213-214). Neurri desberdinean izan bazen ere, bere ekarpenek pentsamenduaren funtsezko eraldaketa ekarri zuten: pixkanaka, gizakiak naturan dituen interesak azterketaren erdigunean jartzetik naturaren beraren interesak lehenestera igaro zen (Dyer, 2017: 84). Garapen sozial, teoriko eta politiko horren ondorioz, laurogeita hamarreko hamarkadan Teoria Berdeak lekua hartu zuen Nazioarteko Harremanen eztabaidetan. Orduz geroztik, korronte hori oinarri teoriko oso heterogeneoen gainean garatu da, eta ekarpen berritzaileak egin dizkio antropozentrikotzat identifikatzen duen diziplinari (gizakia naturaren gainetik eta naturaren jabe gisa kokatzen dituen), zeinaren estatozentrismoa ingurumen-erronkei aurre egiteko arazo den.

64 Azken urteotan hainbat estatuk onartutako "kanpo-politika feministek" ere kontraesankorrak ematen dute. Suedia izan zen lehena, 2014an, nahiz eta gobernu berri batek 2022an atzera egitea erabaki zuen. Bere atzetik beste hamar estatuk baino gehiagok onartu zituzten politika horiek, besteak beste, Kanadak (2017), Frantziak (2018), Mexikok (2020) edo Espainiak (2021).

Izan ere, korrante honek salatzen du hurbilketa nagusiek "itsukeria ekologikoa" izan dutela (Pérez de Armiño, 2019: 211). Adibidez, Errealismoak ingurumen-arazoak garrantzirik gabeko gaitzat (hau da, "*low politics*" bezala) jo dituen heinean, interes gutxi izan du horiekiko. Gainera, haien larritasunagatik segurtasun nazionala mehatxatzen zuten neurrian soilik, eta mesfidantzaz, arazoen (eta irtenbideen) dimentsio globalak zalantzan jartzen baititu estatuaren subiranotasuna eta estatuaren interesak. (Neo) Liberalismoak, bestalde, gai hau estatuaren arteko lankidetzaren beste gai bat gehiago bailitzan landu du, baina interpretazio dominanteen ikuspuntutik, eta, jakina, ingurumenaren degradazioaz arduratzen den nazioarteko testuinguru ekonomikoa eta politikoa eztabaidan ipini gabe. Hori bai, diziplinaren historiaren zati handi batean kezka nagusien parte izan ez den arren, duela hamarkada batzuetatik hona zaila da ingurumen-kezkari ez duen segurtasun-agenda bat irudikatzea (Buzan eta Hansen, 2009: 15).

Korrante honen baitan identifikatu ohi diren bi ekarpen nagusienak, batetik, Ekologia Politikotik datoz, eta, bestetik, gorago aztertutako Teoria Kritikotik (Eckersley, 2013: 269). Nolanahi ere, korrantearen heterogeneotasuna hain da handia, ezen gaur egungo ingurumen-pentsamenduari, diagnostikoarekin, politikekin eta ingurumen-praktikekin bateragarriak diren aldaerak eta guztiz bateraezinak direnak identifikatu baitaitezke. Izan ere, hemen aurki dezakegu, berriro ere, *problem-solving* eta *critical theory* hurbilketen arteko dikotomia. Lehenengoek ingurumen-egoera nazioarteko beste arazo bat gehiago bailitzan identifikatzen dute, eta lankidetzaren bidez irtenbideak bilatzen dituzte, baina dauden egitura politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalak zalantzan jarri gabe. Gainera, ingurumen-harremanak eta arazoak giza komunitateen arteko harreman gisa identifikatzen dituzte, gizakien eta ingurune ez-gizatiararen artekoak aintzat hartu gabe –baita horiek aitortu gabe ere–. Hala gertatzen da, adibidez, Judith Nora Hardt eta Jürgen Scheffranek (2019: 414) adierazten duten bezala, bake eraikuntzaren eta klima-aldaketaen arteko harremanaren ikuskera nagusiarekin, zeinaren analisiak teknokratikoak diren, despolitizatuta dauden, eta arazoak kudeatu eta konpontzera bideratuta dauden.

Hurbilketa kritikoek, ordea, eraldaketa integral baten beharra defendatzen dute, eta zalantzan jartzen dituzte diziplinaren egiturazko ideiak, besteak beste, estatua lehentasunezko aktore bezala identifikatzen duen ikuskera dominantea; nazioarteko errealitatearen izaera antropozentrikoa; eta garapen-ereduaren eta sistema ekonomiko kapitalistaren izaera harraparia, natura ustiatzen baitute pertsona gutxi batzuen mesedetan jasanezinak diren ekoizpen eta kontsumo bideekin, eta desberdintasuna betikitzen baitute bai gaur egungo bai etorkizuneko belaunaldientzat ere. Bere ustetan, eta arazoaren tamaina kontuan hartuta, konponbideak ezin dira teknikoak izan, holistikoak baizik, eta, besteak beste, sakoneko balio-aldaketa eskatzen dute⁶⁵ (Dyer, 2017: 85-86).

Illo horretan, Teoria Berdeak diziplina desafiitzen du gogoeta politiko, filosofiko eta etiko berritzaileen bidez, hala nola gizakien eta naturaren arteko harremanari dagokionean; gobernantza globalak ingurumena zaintzeko eta egungo degradazioa iraultzeko duen ezintasunari dagokionean; garapena eta hazkunde ekonomikoa helburu legítimo gisa zalantzan jarri –baita bere buruari "jasangarri" deitzen diona ere–; ingurumen-justiziari dagokionean⁶⁶; edo ingurumen-segurtasunari dagokionean (Ibidem: 86).

Halaber, bakeari eta segurtasunari buruzko azterketa espezifikoetan, ingurumenarekiko kezka protagonismo handiagoa hartu du azken hamarkadetan. Buzanek eta Hansenek (2009: 189) adierazi dutenez, ez da berez ingurumen-segurtasuneko eskolarik egon, argudio teoriko desberdinak baizik, diziplinako korrante desberdinek erabili dituztenak gai horri aurre egiteko –edo alde batera uzteko–, eta, hala badagokio, nola heldu erabakitze. Horrela, kezka hori laurogeita hamarrek hamarkadatik egon da presente –era askotara, baina marjinalki–, bai NHetan, bai bakeari eta segurtasunari buruzko ikasketetan ere.

65 Adibidez, zaintzaren etika eta/edo balio ekologiko globalak sustatu behar direla defendatzen dute, nazioarteko teoria eta praktika arautzeko (Dyer, 2017: 84 eta 87).

66 Ingurumen-justizia global baterako aldarrikapenaren eta postulatuaren abiapuntua, hain zuzen ere, bidegabekeria bat aitortzean datza: estatuek, elite ekonomiko-politikoek eta lpar globaleko biztanleek, haien erabakien eta portaeren bidez, ingurumen-arazoak sortu eta larriagotzen dituzte (baliabideen ustiapena, planetaren berotzea, ingurumenaren degradazioa, etab.). Gainera, euren ondorio negatibo asko kanporatzen dituzte, eta gai horiei buruzko erantzukizun eta erabakitze gaitasun txikiagoa duten estatu eta biztanleei transferitzen dizkiete (Eckersley, 2013: 271).

Alde batetik, eta nagusi den bake-ikuskeratik haratago, ingurumen-dimentsioaren sarrera ingurumen-erronkei erantzuten saiatu da. Zentzu horretan, “ingurumenaren bake eraikuntza” ideari esker (Swain eta Öjendal, 2018; Hardt eta Scheffran, 2019), bi azterketa-eremuak hainbat modutan konektatu ahal izan dira. Adibidez, literaturan, ingurumen-arazoei globalki aurre egiteko beharra zero baturaren logika (“batzuek galdu egiten dute beste batzuek irabaz dezaten”) gainditzeko, eta nazioarteko eragileen arteko lankidetzak sustatzeko aukera gisa identifikatu da (Conca, 2001); edota bakearen eta iraunkortasunaren arteko interdependentsia nabarmendu da, zeinak eskatzen duen horiek biak batera aztertzea eta jardutea (Amster, 2018: 74) aktore eta ezagutza transdiziplinarren bidez (Hardt eta Scheffran, 2019: 404).

Bestalde, bakea-ingurumena loturaren analisiak baino ugariagoak izan dira gatazkak-ingurumena loturarenak⁶⁷. Besteak beste, laurogeita hamarreko hamarkadan, gatazka armatuek ingurumenean eragindako kaltea ikerketa-objektu izan da. Esate baterako, Golkoko Gerran izandako petrolio-erretzea; baliabide naturalen eskasia eta gatazken arteko lotura, hau da, “baliabideengatiko gerrak” (Homer-Dixon⁶⁸, 1994: 25; Klare, 2002); edo, berrikiago, klima-aldaketa eta gatazken arteko lotura, izan “gerra klimatiko” bezala identifikatutakoak (Dyer, 2009), izan jarduera militarrek klima-aldaketa duten eragina (Barnett, 2007), izan klima-aldaketa, gatazken eta migrazioen arteko harremana.

Ikus daitekeenez, segurtasun-agendan ingurumen-degradazioak, jasangarritasunak eta klima-aldaketa gero eta protagonismo handiagoa dute, neurri handi batean, bakearen edo gatazkaren aldagai edo eragile gisa (Hardt eta Scheffran, 2019: 408) edo segurtasun-arazo gisa hartzen direnetik. Azken kasu horretan, Vaughan-Williamsek eta Peoplesek (2010: 154-158) adierazten duten bezala, ingurumena “sekuritizatu” egin da, eta horrek iritzi kontrajarriak sortzen ditu. Batzuek diote sekuritizazio horrek arreta erakartzen duela bestela agian nazioarteko agendan sartuko ez litzatekeen arazo baterantz. Ordea, beste ahots batzuek salatzen dute ingurumena sekuritizatzeak arriskuak dakartzala –Konstruktibismoaren atalean aztertu dugun bezala–, besteak beste gai hori ohiko bideetatik ateratzea; deliberazioa, parte-hartzea eta negoziatioa ekiditea; eta erabakiak eragile zehatzei (eliteei) mugatzea, batzuetan salbuespen-neurrien eta/edo neurri militarren bidez.

Era berean, hamarkadatan zehar, bakea-gatazka-segurtasuna-ingurumena harremanei buruzko azterketa gehienak diziplinaren eta segurtasun ikasketen *mainstream*etik sortu dira, eta mundu-ikuskerak eta premisa ontologiko nagusietatik abiatzen ziren. Beraz, oro har, eta salbuespenak salbuespen –adibidez, hurrengo atalean aztertuko ditugun giza segurtasunaren hurbilketa batzuk– ingurumen-mehatxu berriak onartu dira, baina segurtasun-ikuskerak tradizionalak zalantzan jarri gabe (Pérez de Armiño, 2019: 221). Aitzitik, Teoria Berdeak –batez ere horren baitako aldaera kritikoek– proposamen berritzaileak eta erradikalak egin dizkie premisa nagusi horietako batzuei. Bi nabarmenduko ditugu hemen: diziplinaren ikuskera antropozentrikoa beste ikuskera ekozentriko batekin ordezkatzeko; eta estatua ingurumen-segurtasunaren eragile erreferente gisa ordezkatzeko.

Lehenik eta behin, ekozentrismoak naturak dituen premiei lehentasuna ematea dakar, pertsonen premien aldean, nahiz eta horrek gizakiaren garapen materialari edo askatasun tradizionalei muga jakin batzuk jartzea dakarren (adibidez, nahi adina kontsumitzea), baldin eta giza ingurunea babestearekin bateraezina badira. Hugh C. Dyerrek (2017: 86) dioen bezala, horrek ez du esan nahi ekozentrismoak gizakien beharrak eta nahiak ukatzen dituenik, ikuskera ekologiko zabalago batean sartzen dituela baizik, hau da, “ekosistema osasungarriak lehenesten ditu, giza osasunerako eta ongizaterako aurrebaldintza direlako”.

67 Akademian, politikan, komunikabideetan eta publikoan bada “gatazkaren aldeko joera” bat (Hardt eta Scheffran, 2019: 407-408), hau da, desoreka nabarmen bat gatazken eta ingurumenaren arteko harremanak pizten duen interesean (duela gutxitik baita klima-aldaketa ere), bakearen eta ingurumenaren arteko harremanak pizten duenaren aldean.

68 Torontoko Eskola, non Thomas F. Homer-Dixon autore nagusienetakoa zen, erreferente izan zen ingurumen-gatazkak estatuen segurtasunaren mehatxu bezala identifikatzerakoan.

Nagusi den antropozentrismoari kontrajartzen zaio ideia hori, gizakia –izaki arrazional bakartzat jotzen dena– hierarkikoki gainerako izakien eta naturaren gainetik jartzen baitu. Ideia hori mendebaldeko ilustraziotik finkatu da, eta gizateriak naturari buruzko ikuskera instrumental eta epe laburrekoa izatea legitimatu du⁶⁹. Bakearen, segurtasunaren eta ingurumenaren arteko harremanaren azterketan, antropozentrismoak gizakien (Hardt eta Scheffran, 2019: 409) eta haien lehentasunezko komunitate politikoek (estatuak) arteko harremanak jarri ditu erdigunean etengabe. Aldiz, Teoria Berdearen ikuskera kritikoetan, ekozentrismoak biosferan eta naturan jartzen du arreta, eta, beraz, baztertu egiten du barne-politikaren eta nazioarteko politikaren arteko diziplinaren bereizketa klasikoa, “nazioen arteko muga arbitrarioak ez baitatoz bat ekosistemekin” (Dyer, 2017: 86).

Bigarrenik, analisi horietako gehienek, lehen esan dugun bezala, estatuak hartzen zituzten aztergai eta erreferente gisa (Buzan eta Hansen, 2009: 128). Hala ere, diziplinaren *mainstream*aren ikuskera estatozentriko hori zein estatuaren subiranotasunaren ideiak erronka izan dira –eta dira– Teoria Berdearentzat, ingurumen-arazoez eta ekosistemen zaintzak estatuen mugak gainditzen dituztelako (Dalby, 2002: 141). Izan ere, bere ustez, diziplinaren egiturazko ideia horiek ez dute behar bezala deskribatzen gaur egungo nazioarteko errealitatea, eta ez dute oinarri fidagarririk eskaintzen giza ongizatea (Dyer, 2017: 87) eta ekosistemen ongizatea bermatzeko. Hori argi du ekofeminismoak, zeinak, duela hamarkada batzuetatik hona, patriarkatuaren eta ingurumenaren ustiapenaren arteko batasuna ere nabarmendu duen (Warren eta Cady, 1994; Mies eta Shiva, 2019; Mujika Chao, 2021). Erronka, beraz, desafio garrantzitsuei aurre egiteko eragile eta antolaketa-modu egokienak zein diren identifikatzea da. Aktoreen artean, korrante horren aldaerek mugimendu sozial ekologistak, GKEak, komunitateak, hiriak, mugaz gaindiko estatuak edo nazioz gaindiko ingurumen-arloko nazioarteko erakundeak proposatzen dituzte; eta, antolatze moduen artean, lokalizazioa (eta deszentralizazioa) edo supranazionalitatea bezalako hainbat aukera⁷⁰.

69 Munduaren (eta diziplinaren) ikuskera antropozentriko hori natur-zientzietatik Nazioarteko Harremanetara (Harrington, 2016) inportatutako ideiek ere azaleratu dute, hala nola “Antropozenoaren” kontzeptuaren bidez. Horren arabera, Holozenoaren ondorengo aro geologiko berri batean gaude, eta planetaren beraren biziraupena arriskuan jartzen duen gizakien aurrekaririk gabeko ingurumen-inpaktua dugu esku artean.

70 Oso modu zabalean ulertuta, gainera. Adibidez, planteatutako ideien artean, giza-komunitateak komunitate politikoetan baino, komunitate ekologikoetan antolatzea dago, bioregionalismoaren kontzeptuak proposatzen duen moduan (McGinnis, 1999).

5. Giza segurtasuna

5.1. Ideiaren jatorria eta garapena

1990ean, Nazio Batuen Garapenerako Programak (PNUD) Giza Garapenari buruzko lehen Txostena argitaratu zuen “giza garapena” kontzeptua sustatzeko helburuarekin, pertsonak beren garapena lortzeko dituzten aukerak eta gaitasunak zabaltzea defendatzen duena. Urte batzuk geroago, 1994ko Giza Garapenaren Txostenean (PNUD, 1994), Nazio Batuen organismo horrek berak agerian utzi zuen garapenaren eta segurtasunaren arteko lotura beste kontzeptu batekin, “giza segurtasuna” (GS), zeinak aintzat hartzen duen segurtasunik eza egiturazko indarkeriaren ondorio ere badela, arrazoi sakonak dituela eta, beraz, azpigarapenaren kausak ere kontuan hartuko dituen hurbilketa integral batetik heldu behar zaiola.

Kontzeptu hori testuinguru zehatz batean sortu zen, hain zuzen, Gerra Hotzaren osteko lehen urteetan noiz, batetik, segurtasunaren ikuskera tradizionalari kritika egiten zion; eta, bestetik, garapeneko eta segurtasuneko azterlanak eta agendak bateratu ziren (Peoples eta Vaughan-Williams, 2010: 123; Mendia eta Saillard, 2013: 227). Kontzeptu horrek diziplinan ohikoa den interpretazioa (estatala eta militarra) baino segurtasun interpretazio zabalagoa aurkeztzen du, eta estatuez (eta bere indar militarraz) gain pertsonentzat eta komunitateentzat beste segurtasun mehatxu batzuk ere badaudela defendatzen du. Hau da, “giza aurpegia duen segurtasuna” planteatzen du, pertsonak, euren beharrak eta interesak segurtasun-analisiaren erdigunean kokatzeko (Peoples eta Vaughan-Williams, 2010: 120). Horrela, lehendik ere bazeuden baina ia aintzat hartzen ez ziren zenbait ideia sartu zituen eztabaidan, hala nola estatua segurtasunaren bermatzaile izateaz gain, segurtasunik ezaren sortzaile ere izan daitekeela, edo segurtasunaren aurkako mehatxuak, militarrek izan ala ez, elkarren mendekoak direla (Ibidem: 124), eta beraz, holistikoki aurre egin behar zaiela.

Zehazkiago, kontzeptuak bi dimentsiori erreferentzia egiten die. Lehenak, “beldurrarekiko askatasuna” (*freedom from fear*), mehatxu fisikoen aurrean pertsonen segurtasunari; eta, bigarrenak, “beharrekiko askatasuna” (*freedom from want*), pertsonak pobreziatik libre egoteari eta beren oinarritzko beharrak asetzeko gai izateari. Bi dimentsio horiek elkarren artean erlazionatutako segurtasunaren zazpi elementutan zehazten dira: ekonomikoa, elikadurakoa, osasunakoa, ingurumenakoa, pertsonala, komunitarioa eta politikoa (PNUD, 1994: 27-37).

Bi dimentsio horiek, Mary Kaldorrek dioen moduan (2014: 87; 2020: 5), Gerra Hotzaren garaian zeuden bi pentsamendu-tradizioekin erlazionatu dira, eta horiek, aldi berean, giza segurtasunaren kontzeptuaren bi interpretazio ekarri dituzte, bata zabala eta bestea mugatua, eduki eta ahalmen oso bestelakoekin. Interpretazio zabalak segurtasuna armagabetzearekin eta garapenarekin lotzen du, eta, adibidez, estatuen armagintzara bideratutako funtsak gizarte-premiak (pobrezia edo gaixotasunak, esaterako) asetzerantz bideratzea defendatzen du. Interpretazio horren arabera, segurtasuna oso estuki lotuta dago giza garapenarekin, eta gorago aipatutako dimentsio bikoitza hartzen du barnean: “beldurrarekiko askatasuna” eta “beharrekiko askatasuna”. Hau da, mehatxu fisikorik gabe egotea (segurtasun fisikoa) eta oinarritzko beharrak asetzea (segurtasun materiala), pertsonen giza garapena, bizitza eta duintasuna bermatzeko. Zentzu horretan, eta Karlos Pérez de Armiñok (2013b: 24) dioen bezala, zabalagoa den interpretazio horren arabera, GSk segurtasun fisikorik eza deuseztera ez ezik, gizarte- eta ekonomia-eremuetan segurtasunik eza sortzen duten egiturak eraldatzera ere bideratu behar du. Ikuskera zabal horren alde egin zuten eragile nagusiak PNUD eta Japonia izan ziren.

Interpretazio mugatuak, ordea, giza eskubideetan eta horiek segurtasunarekin duen harremanean jartzen du arreta. “Beldurrarekiko askatasuna” dimentsioan soilik bere egiten du, batez ere gatazka armatu testuinguruetan gizabanakoek indarkeriaren aurrean duten babes fisikoari dagokionean. Bere defendatzaileen artean Kanadako eta Norvegiako gobernuak zeuden, baita Keith Krause (2005) edo Roland Paris (2001, 2004a) bezalako autoreak ere, zeinek argudiatzen baitute giza segurtasunaren ikuskera zabalak irekiegia dela, eta mehatxu abstraktuak eta elkarren artean lotura gutxi dutenak

identifikatzen dituela. Ikuskera mugatu hori, praktikan gailendu dena, agerian geratu zen, adibidez, Esku-hartze eta Estatuaren Subiranotasunari buruzko Nazioarteko Batzordean (*International Commission on Intervention and State Sovereignty*). Batzorde hori Kanadako gobernuak antolatu zuen 2001ean eta “Babesteko Erantzukizunaren” (*Responsability to Protect* edo R2P) printzipioa garatu zuen. Printzipio horrek aipatzen du nazioarteko komunitateak erantzukizuna duela estatu baten mugen barruan esku hartzeko, baita indar militarra erabilita ere, giza eskubideen urraketa masiboak ematen diren egoeretan (ICISS, 2001; Kaldor, 2020: 5)⁷¹.

Halaber, interesgarria da azpimarratzea GSren ideia esparru politikoan sortu eta garatu dela, akademian baino gehiago, non, adibidez, eragin erlatiboa izan duen Nazioarteko Harremanen eztabaida teorikoetan (Peoples eta Vaughan-Williams, 2012: 121). Esparru praktikoan, ordea, mobilizazioarako tresna eta lelo garrantzitsua izan da aktibista politikoentzat, GKEentzat eta nazioarteko erakundeentzat. Parisek dioen bezala (2001: 88), GSa “itsasgarria” izan da, eta lortu du oso heterogeneoak diren estatuak, garapenerako agentziak eta nazioarteko GKEak euren arreta eta baliabideak segurtasun-gai konbentzionaletatik nazioarteko garapenarekin lotutako segurtasunera bideratzera. Bat-egite hori posible izan da, neurri batean, kontzeptuaren izaera zabal eta ez oso zehatzagatik, zeinek ikuspuntu eta helburu oso desberdinak barne hartzea ahalbidetu duen. Kasu batzuetan segurtasuna estatuaren eta herriarren arteko harremanean ardaztera bideratutako tokiko proiektu emantzipatzaileak laguntzeko balio izan du; eta, beste batzuetan, agenda (neo)liberalak modu interesatuan kooptatu du eta jatorrizko izaera eraldatzailea galdu du (Peoples eta Vaughan-Williams, 2012: 120; Kaldor, 2014: 85).

Azken ideia hori errepikakorra da literatura kritikoan. David Chandlerrek (2011a: 83) adierazten duen bezala, laurogeita hamarreko hamarkadatik, etorkizun oparoa izango zuela zirudienetik, eta 2000ko hamarkadaren hasieran mendebaldeko zenbait estatuk eta nazioarteko erakundek kontzeptua onartu – modu partzial eta interesatuan – izanaren ondorioz, GSk instituzionalizazio- eta instrumentalizazio-prozesu bat bizi izan du, eta prozesu horren bidez bere diskurtsoa (eta ez hainbeste edukia) agenda dominantean sartu da, eta nazioarteko ordena neoliberal hegemonikoa legitimatzeko balio izan du.

GSren kontzeptuari egindako kritika horiek –hurrengo atalean zehaztasunez aztertuko ditugunak– eta haren izenean Balkanetan eta Afrikako hainbat testuingurutan egindako esku-hartze militar desberdinek, bai eta Irailaren 11ren osteko “Terrorearen aurkako Gerrak” argi erakutsi zituzten bi kontu: bere inplementazioaren ahuleziak praktikan, eta, horrekin batera, kontzeptua birpentsatu eta eguneratzeko beharra zegoela. Horretarako saiakeren artean bi izan ziren nagusi. Alde batetik, *Human Security Now* txostena (Ogata eta Sen, 2003), zeinak GSren interpretazio zabal batetik, giza eskubideekin eta giza garapenarekin duen lotura estua azpimarratzen zuen, eta pertsonen eta komunitateen ahalduntzean oinarritutako behetik gorako ikuskeraren (*bottom-up*) garrantzia ikusarazi zuen. Eta, bestetik, Europar Batasunaren esparruan, “Europarako Giza Segurtasunaren Doktrina bat” (*A Human Security Doctrine for Europe*)⁷² dokumentua, GSa operatiboagoa egiteko helburuarekin onartu zena, aurretik gauzatutako esku-hartze militarrek honako hiru printzipio hauen bitartez hobetzeko: 1) giza eskubideen lehentasuna; 2) GSaz arduratzen den nazioarteko agintaritzaren politika bat sortzea, askotariko izaera duena; eta 3) nazioarteko erakundeen arteko koordinazioa. Azken proposamen horrek pertsonak identifikatzen ditu segurtasunaren subjektu nagusitzat eta, beraz, bi dimentsioen arteko harreman estuan oinarritzen da (*freedom from fear* eta *freedom from want*).

Horrelako ekimenak kontzeptua babestu eta berrabiaraztera bideratuta egon arren, egun oraindik ez dago bere erabilgarritasunaren inguruko adostasunik. Izan ere, azken bi hamarkadetan, jarraitu egin

71 Zehazkiago, “Babesteko Erantzukizunaren” printzipioak hiru oinarri ditu: 1) estatu bakoitzak bere biztanleria genozidiotik, gerrako krimenetatik, garbiketa etnikotik eta gizateriaren aurkako krimenetatik babesteko bitarteko egokiak eta beharrezkoak erabiltzeko duen erantzukizuna; 2) nazioarteko komunitateak erantzukizun hori betetzen laguntzeko duen konpromisoa; eta 3) nazioarteko komunitateak Nazio Batuen bidez garaiz eta modu egokian erantzuteko duen erantzukizuna, agintari nazionalak erantzukizun hori betetzen ez dutenean. Printzipio eztabaidagarria izan den arren (berezi estatu boteretsu batzuen interes geopolitikoaren alde egindako instrumentalizazioagatik), bere erabilerari buruzko adostasuna zabaldu eta sakondu egin da, eta, hain zuzen ere, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak 40 ebazpen baino gehiagotan aipatzen du (Bellamy, 2017: 131-32).

72 Testua hemen eskuragarri (2024ko uztailaren 4an ikusia):

https://www.consilium.europa.eu/uedocs/cms_data/docs/pressdata/solana/040915capbar.pdf

du kontzeptua baztertu egin behar dela defendatzen dutenen eta hori indartu nahi dutenen arteko eztabaidak. Lehenengoen artean daude, noski, segurtasunaren ikuskera tradizionalak, hau da, estatuko segurtasunaren eta segurtasun militarren alde egiten dutenak. Bigarrenen baitan, adibidez Irantzu Mendiak eta Karlos Pérez de Armiñok (2013: 15-16) defendatzen dutenez, GSk elementu baliagarriak ditu, esaterako, eraldaketa sozial emantzipatzaileak bultzatzeko potentziala. Erronka, euren ustez, oinarri teoriko sendoagoa eta kritikoagoa eskaintzea da, GSerako espazio berriak irekitzeko.

5.2. Giza segurtasunari egindako ekarpenak eta kritikak

GSren ideia aztertua eta eztabaidatua izan da, are gehiago bere abiapuntua segurtasunaren ikuskera dominantearekin aurrez aurre egonik eta bere definizioa askotariko interpretazioetara irekita zegoen heinean. Eztabaida horietan identifikatutako ekarpen eta kritika batzuk aztertuko ditugu hemen.

Ekarpenen artean, Pérez de Armiñok (2007: 63-70) honakoak aipatzen ditu: 1) pertsonak (haien ongizatea, askatasuna eta eskubideak) hartzen ditu segurtasunaren subjektu erreferentetzat, eta ez estatuak; 2) segurtasuna eta garapena elkarrekin erlazionatzen ditu, bai eta bien arteko elkartze teoriko eta politikoak ere; 3) elementu kuantitatiboak (pertsonen behar materialak asetzea) zein kualitatiboak (giza duintasuna) barne biltzen ditu; 4) GSk ez egotearen kausak eta hori bermatzeko jarduerak identifikatzerakoan tokiko dimentsioak (mikroa) eta dimentsio globala (makroa) integratzen ditu; 5) izaera aurrerakoa eta eraldatzailea du; 6) estatuen politikak aztertzeke irizpideak eta elementuak ematen ditu, baita horien eta herritarren arteko harremanak aztertzeke ere; eta 7) segurtasunaren esparruan politika nazional zein nazioarteko politiken inguruko narratiba eta kontzeptu hegemonikoen inguruko hausnarketa kritikoa bultzatzen du.

Ekarpen horien artean, bereziki interesgarriak diren bi aztertuko ditugu orain: pertsonak erreferentetzat hartzea, eta segurtasunaren eta garapenaren arteko harremana jorratzea. Alde batetik, pertsonak segurtasunaren erreferentziazko subjektu bezala hartzeak zalantzan jartzen du estatuak diziplinan duen ohiko zentraltasuna. Testu honetan aztertu dugun bezala, estatuak, euren indar militarra eta euren portaerak izan dira historian zehar segurtasunaren inguruko analisen protagonistak. Hala ere, GSk pertsonen interesak eta eskubideak lehenesten ditu, eta “segurtasunaren ikuskera kooperatibo, unibertsal eta prebentiboa” proposatzen du (Pérez de Armiño, 2007: 69), estatuak pertsonen harremanetan duten erantzukizuna ere onartzen duena, adibidez.

Bestalde, GSk segurtasuna eta garapena lotzen ditu, eta horrek historikoki bananduta garatu diren bi eremu teoriko eta politiko batzea dakar. Zehatzago, segurtasuna “giza garapenarekin” lotzen da, eta erlazio horren barruan sartzen dira desberdintasun ekonomikoak zein beste botere-egitura batzuk. Zerk azaltzen du lotura hori agertzea? Besteak beste, Gerra Hotzeko segurtasunaren ikuskera nagusiaren kontra, azpigarapenak, goseteak, desberdintasunek edo baliabide eskasiak segurtasunik eza eta gatazka militarrek eragiten zituztenaren ideiak irabazitako protagonismoak ikuskera alternatiboen barruan (Buzan eta Hansen, 2009: 137-138).

GSri egindako kritikei dagokienean, besteak beste espazio hauetatik datoz: esparru akademiko eta politiko kontserbadoreetatik eta segurtasunaren ikuskera tradizionalaren (estatuak eta militarra) alde dauden espazioetatik; kontzeptuaren interpretazio zabala edo murriztua bultzatzerakoan, beste interpretazioa kritikatu dutenengandik; edo segurtasun ikasketa kritikoetatik, orokorrean, GSren proposamena ere gaitzetsi baitzuten. Beraz, kritiken zati bat kontzeptuaren osotasunaren aurka zuzendu zen, eta beste zati bat kontzeptu horren bi interpretazioetako (zabala edo mugatua) baten aurka. Azken horien artean, Kaldorrek dioen bezala (2014: 88; 2020: 4), interpretazio mugatuari kritikatu zitzaion berriz ere alderdi militarretan zentratzen zela (adibidez, esku-hartze militarretan); eta zabalari, alde batetik, eskuragaitza zela, segurtasunaren alderdi gehiegi barne hartzen saiatzen zelako (fisikoak eta materialak), eta bestetik, segurtasuna eta garapena hain modu estuan erlazionatzean, azken eremu hori sekuritizatzeko arriskua zuela (eta, horrekin batera, diagnostiko eta irtenbide militarrek identifikatu eta proposatzeko, adibidez, pobrezia edo desberdintasunari dagokionean).

GSaren kontzeptuak bere osotasunean jaso dituen kritikei dagokienean, gehienek segurtasun ikasketa kritikoetan dute jatorria. Asko aipa daitezkeen arren⁷³, adierazgarriak direla deritzogun hiru aztertuko ditugu hemen: kontzeptuaren zehaztasun eta sakontasun teorikorik eza; esku-hartze humanitarioak justifikatzeko eta bake liberalaren agenda babesteko jasan duen instrumentalizazioa; eta estatuaren eta herritarren arteko benetako harremanaren garrantzia.

Lehenik eta behin, funtsezko kritika bat kontzeptuaren zehaztasun eta sakontasun teorikorik eza izan da (Pérez de Armiño, 2007: 70; Newman, 2010: 77), neurri handi batean definizio ezberdinak biltzen dituelako, irekiak eta oso argiak ez direnak (Paris, 2001: 87-88). Zentzu horretan, interpretazio zabala “erosketa-zerrenda” batekin alderatu da. Zerrenda horretan mehatxutzat jotzen dira elkarrekin loturarik ez duten gai asko, eta horrek zaildu egiten du politika publikoen definizioa eta inplementazioa (Krause, 2005: 23), eta kontzeptuaren “praktikotasuna” gutxitzen du (Paris, 2001: 102).

Bigarrenik, salatzen da eragile hegemonikoek GSa instrumentalizatu dutela euren agendak legitimatzeko, eta, adibidez, nazioarteko politika publikoen militarizazioa ekarri duela, hala nola laguntza humanitarioarena. Kritika hori laurogeita hamarreko hamarkadan esku-hartze humanitarioen egokitasunari edo “Babesteko Erantzukizunaren” ideia indartzeari buruz egin ziren eztabaiden ondorioz sortu zen. Izan ere, XXI. mendeko lehen hamarkadan, zenbait estatu boteretsuk eta horiek kontrolatzen dituzten nazioarteko erakundeek ideia horiek beren gain hartu eta euren diskurtso politikoan nahiz praktikan txertatu zituzten, esku-hartze “humanitarioak” –balio eta ideal unibertsalez estalita egon arren, euren interes geopolitikoak erantzuten zietenak– legitimatzeko helburuarekin. Ildo horretan, GS Gerra Hotzaren osteko “bake liberalaren” ordena berria (Pérez de Armiño, 2013b: 35-37) eta “Terrorearen aurkako Gerra” (Kaldor, 2014: 85) inplementatzearen eta legitimatzearen zerbitzura egon da. Eta horrekin, gobernantza neoliberal global, biopolitiko eta ideologikorako tresna bihurtu da (Chandler, 2011b: 117).

Azkenik, hirugarren kritikak herritarrek euren segurtasunaren beraren definizioan duten parte hartzeari egiten dio erreferentzia, zeina GSren zenbait interpretazioetan kontutan hartzen den. Krausek (2005: 29) adierazten du parte hartze hori, sarri, tokiko Gobernu Kanpoko Erakundeetako ordezkariak iritzia eskatzera mugatu dela, baina gutxitan egon direla, GSren markoaren barruan, pertsonak “subjektu pasibo” izateari utzi, eta euren agentzia areagotzeko benetako elkarrizketa eta parte hartze dinamikak.

5.3. Giza segurtasunak diziplinako korrante teorikoekin duen harremana

Goian adierazi dugu GSren kontzeptua esparru politikoan garatu dela, esparru akademikoan baino gehiago. Hala ere, akademian ere azertu eta eztabaidatu da, eta interesgarria da –labur bada ere– NHetako korrante teorikoekin duen lotura azaltzea.

Hasteko, korrante positibisten esparruan, pentsamendu liberalaren ideia batzuk presente egon ziren GSren proposamenaren sorreran, laurogeita hamarreko hamarkadan. Adibidez, alde batetik, gizabanakoen eta beren eskubideen (bereziki zibilak eta politikoak) gehiago kontuan hartzea nazioarteko agendan (Pérez de Armiño, 2013b: 27); bestetik, Internazionalismo liberal tradizionalaren zalantzak estatuak segurtasunaren bermatzaile eskusiboa izan behar duenaren inguruan, eta ematen dien babesa estatuari zeregin horretan lagunduko dioten nazioarteko akordio, erakunde eta arauak (Hampson, 2008: 232); eta, azkenik, Kosmopolitismo liberalaren funtsezko ideia bat: pertsona guztien segurtasuna modu berean garrantzitsua dela, nazionalitatea edozein dela ere.

Era berean, aipatu dugu GSren ideia kritika gisa ere sortu dela, Errealismoak diziplinan duen kokapen dominantetik bultzatutako segurtasunaren (estatukoa eta militarra) ikuskera tradizionalari erantzuteko. Izan ere, ikuskera alternatibo bat proposatzen du GS, eta hurrengo taula honetan laburbiltzen dira ikuskera tradizionalarekiko desberdintasun nagusienak.

⁷³ Kontzeptuari egindako kritiken inguruko zehaztasun gehiagorako, ikusi, beste hainbaten artean, Peoples eta Vaughan-Williams (2010: 125-132) eta Pérez de Armiño (2013a: 255-262; 2013b: 34-38; 2015: 318-319).

4. Taula. Segurtasun militarra-giza segurtasuna konparaketa	
Estatu segurtasuna	Giza segurtasuna
Estatua da objektu erreferentea	Pertsonak dira objektu erreferentea
"Beldurrarekiko askatasuna"	"Beldurrarekiko askatasuna" eta "beharrekiko askatasuna"
Segurtasuna kanpo erasoan aurrean (lurraldea, mugak, subiranotasuna, etab.)	Segurtasuna eguneroko bizitzan (lana, ondasunak, osasuna, ingurumena, adierazpen askatasuna, etab.)
Berrarmatzea	Armagabetzea (eta baliabide horiek garapenera bideratzea)
Segurtasun militarra	Giza garapenean oinarritutako segurtasuna
Interes nazionaletan oinarritua	Mundu interdependente baten barruan lankidetzan oinarritutakoa
Indiferentzia gizarte zibilaren eta GKEen aurrean	Gizarte zibilaren eta GKEen indartzea

Iturria: Magallonon (2007) oinarrituta.

Taula ikusita, ez da harritzekoa GSk aldaera errealisten artean harrera ona izan ez izana (Newman, 2001: 247; Hampson, 2008: 241), are gutxiago Irailaren 11ren ondorengo "Terrorearen aurkako Gerraren" testuinguruan, zeinak ikuskera estatozentrikoa eta militarra bultzatu baitzuen (Pérez de Armiño, 2013a: 242-243). Are gehiago, José María Tortosak (2013: 99) dioten bezala, praktikan gauzatu den segurtasun nazionala oztopo izan da desiragarri den giza segurtasunerako.

Korrante marxistari dagokionean, lotura nagusiki garapena (eta azpigarapena) GSren abiapuntutzat hartzean ikusi daiteke. Izan ere, gorago aztertu dugun bezala, kontzeptua PNUDn gorpuztu zen "giza garapenaren" osagarri gisa, segurtasunik eza egiturazko indarkeriaren ondorio ere badenaren ideia finkatzeko. Beraz, azpigarapenaren kausei heldu behar zaie, besteak beste, eremu sozial eta ekonomikoetan segurtasunik eza sortzen duten egitura desberdinei.

Bestalde, korrante postpositibistak –azken horiek segurtasun ikasketa kritikoen esparruan– GStik urrun mantendu dira denbora batean (Pérez de Armiño, 2013b: 49) eta, hain zuzen ere, kontzeptu horrek mesfidantza eta kritikak eragin ditu haien artean (Peoples eta Vaughan-Williams, 2010: 120; Pérez de Armiño, 2015: 318). Hala ere, elkarguneak ugariak dira, eta korrante horiek onartzen dute GSk gaitasun eta proposamen interesgarriak dituela, batez ere bere interpretazio zabalak (Pérez de Armiño, 2013b: 49).

Adibidez, Konstruktibismoak GSrekin partekatzen du mehatxuak eraiki egiten direla eta, beraz, aldatu edo arindu egin daitezkeela (Hampson, 2008: 241). Izan ere, kontzeptuaren gorakada, hori nazioarteko hainbat eragileren agendan sartzea eta zenbait ekimen globaletan izan duen eragina⁷⁴ segurtasunaren agendan nazioarteko balio eta interes berriek izan dezaketen lekuaren isla da (García Segura eta Rodrigo, 2008: 209; Tsai, 2009: 22); hau da, Konstruktibismoak defendatzen dituen nazioarteko harremanen izaera eraikiaren adibide da (Newman, 2001: 248).

Teoria Kritikoa ere GSetik gertu kokatzen da zenbait alderdiri dagokionean (Steans, 2013: 117), adibidez, segurtasunaren kontzeptua zabaltzeko eta sakontzeko duten borondatean (Pérez de Armiño, 2013b: 24), giza eraldaketa eta emantzipaziora bideratutako izaera normatiboan edo pertsonen segurtasunean parte har dezaten sustatzean. Korrante horren arabera, nazioarteko harremanen eguneroko jardunean ez

⁷⁴ Besteak beste, 1997ko Ottawako Konbentzioa, pertsonen aurkako minak debekatzeko; nazioarteko justizia penalaren garapena; soldadu adingabeen babesa; arma arinen eta kalibre txikikoen kontrola; edo "Babesteko Erantzukizunaren" printzipioa (Peoples eta Vaughan-Williams, 2010: 122; Mendia eta Pérez de Armiño, 2013: 14).

bezala, estatuak –eta ez pertsonak– dira "bitarteko gisa tratatu beharko liratekeenak, eta ez helburu gisa", segurtasuna lortzeko. Izan ere, GS tresna bat baino ez da pertsonak eta kolektiboak gizaki gisa berrasma daitezen (Booth, 2005: 3-4). Beraz, pertsonak dira segurtasunaren analisiaren erdigunean egon beharko luketenak, bereziki "ahotsik gabekoak, azpiordezkatutakoak eta babesgabeak" (Wyn Jones, 1999: 159).

Azkenik, Feminismoetatik, hainbat egilek sustatu dute GSren kontzeptua, botere-harreman desorekatuen azterketa (besteak beste, generoarenak) eta patriarkatutik eratorritako giza segurtasunik ezaren azterketa (Nussbaum, 2000) barne hartzen dituelako. Gainera, aldaera feminista kritikoen artean bereziki, estatua segurtasunaren bermatzaile nagusi gisa zalantzan jartzea funtsezkoa da. Estatua (eta bere politikak) –salatzen dutenez–, askotan, mehatxu dira emakumeen eta identitate disidenteen segurtasunerako, babesleku baino. Are gehiago, oro har, estatua komunitate baztertzaille gisa uler daiteke, eta estatuen sistema pertsonen segurtasunerako eragozpen gisa (Steans, 2013: 117).

Besteak beste, elkargune horiek kontuan hartuta, ez da harritzekoa segurtasun ikasketa kritikoen zati batek GSren kontzeptua babestu izana bere proposamen politikoak lortzeko bitarteko gisa (Christie, 2010: 176-183). Bien arteko elkargunerako proposamenak ere ez dira falta. Batzuek "Giza segurtasunaren ikerketa kritikoak" sortzea proposatzen dute, eta beste batzuek "Giza segurtasunaren azterketa kritikoak" (Newman, 2010), kontzeptuak etorkizuna izan dezan segurtasunaren inguruko proposamen kritikoetatik aberastu behar dela argudiatuz. Ideia hori bera defendatzen du Pérez de Armiñok (2013a: 5; 2013b: 26 eta 38), eta beretzat, GSren bultzada analisi kritiko horiek txertatzetik etorri behar da. Azkenik, Angie Larenasek (2013) gaineratzen du bere harremana estutzeak biak (hau da, GS eta ikuskera kritikoak) indartu ditzakeela.

6. Azken gogoetak

Bakea eta segurtasuna ezinbesteko kontzeptuak dira Nazioarteko Harremanen azterketa teorikoan. Ikusi dugunez, bakea kezka nagusia izan zen diziplinaren sorreratik Idealismoaren aldaera teorikoarentzat, eta ondoren baita Errealismoarentzat ere, diziplinaren historiaren zati handi batean. Segurtasunaren kasuan, nazioarteko agendan beranduago sartu bazen ere –Bigarren Mundu Gerraren ondoren–, NHetan gako bihurtu da.

Lan honetan Nazioarteko Harremanen Teoriaren bilakaera, eztabaida historikoak eta korrante teoriko nagusiak aztertu ditugu. Horrekin, diziplinaren historiaren zati handi batean korrante teoriko Errealistaren eta haren positibismo zientifikoaren izaera dominantea nabarmendu dugu. Korrante horrek arreta jarri du estatuen aurkako mehatxu militarretan, subjektu horiek identifikatzen baitituzte diziplinako eragile pribilegiatuak –ez bada eksklusiboak– bezala. Anarkikotzat jotzen duen nazioarteko sisteman, gerra eta segurtasunik eza nazioarteko harremanen normaltasunaren parte dira. Bakea, berriz, gatazka armaturik eza baino ez da.

Bakearen eta segurtasunaren ikuskera errealista hori baliagarria izan da boterearentzat, hainbat modutan. Alde batetik, estatu boteretsuenen eta, bereziki, Estatu Batuen interesak, politikak eta jarduerak legitimatzeko balio izan du; eta, bestetik, gatazka armatuen azterketari lehentasuna emateko (zehazki estrategia, dinamika, armamentu eta taktika militarrenak), eta, horrekin batera, militarismoa sustatzeko. Horrela, ikuskera alternatiboak alboratu dituzte, eta, horrekin, batera, bakea zentzu zabalean aztertzeke eta bakearen kultura sustatzeko parada galdu badute ere. Izan ere, zentzu horretan, Errealismoak "gatazkaren aldeko joera" izan du.

XX. mendeko azken hamarkadetan, ideia errealistak eguneratu egin dira (Neorrealismoa) eta Neoliberalismora hurbildu dira, hau da, Liberalismoaren aldaera berriagora. Azken korrante horrek defendatzen du estatuen arteko lankidetzeta eta integrazioa, beren interes komunetan eta nazioarteko zuzenbidean eta nazioarteko erakundeetan oinarritua, funtsezko zutabea dela nazioarteko bakea eta segurtasuna bermatzeko. Gaur bi korrante horien arteko elkarrizketa –"neo-neo sintesia"– pentsamendu uniforme, etnozentriko eta kontserbadorea da, mendebaldeko estatu handien interes ofizialak eta nazioarteko sistemaren *statu quo*-a defendatzen dituenak.

Pasaden mendeko azken hamarkadan horiengana hurbildu zen Konstruktibismo soziala, hasieran postulatu hegemoniko horietatik urrun zegoen korrantea, bere ontologia ideazionalagatik (ontologia material dominantearen aurrean). Hau da, balio eta ideien garrantzia defendatzen du, bai eta nazioarteko gizarte-errealitatearen zein horren ezagutzaren izaera eraikia ere. Korrante horren arabera, militarrek ez diren beste mehatxu batzuk (ingurumenekoak, ekonomikoak, politikoak edo sozialak) eta bakea eta segurtasuna azaltzeko garrantzia duten beste eragile batzuk –estatuez gain– identifika daitezke.

Ez da hori izan bakearen eta segurtasunaren ikuskera nagusiei aurre egin dien korrante bakarra. Adibidez, Marxismoa –edo Estrukturalismoa–, Errealismoarekin eta Liberalismoarekin bere ontologia ideazionala eta epistemologia positibista partekatzen dituenak, asko desberdintzen da bakeari eta segurtasunari buruzko diagnostikoan eta irtenbideetan. Rol txikiago batera baztertua izan bada ere –bere izaera antisistema eta antikapitalistagatik uler daitekeena–, funtsezko kontzeptuak eskaini ditu (egiturazko indarkeria, indarkeria kulturala, bake negatiboa, etab.); kontzeptu horiek gabe, egun, ezingo litzateke ulertu bakearen eta segurtasunaren azterketa kritikoa.

Beste kasu batzuetan, kritika are pluralagoa eta sakonagoa izan da. Laurogeiko hamarkadatik hona, korrante hegemonikoari erantzuna eman zaio korrante postpositibista ugarien eskutik, horien artean Teoria Kritikoa, Postkolonialismoa, Postestrukturalismoa, Feminismoak eta Teoria Berdea. Elkarren artean desberdintasun handiak egon arren, kritikak partekatzen dituzte diziplinan nagusi diren munduaren eta errealitatearen pertzepzioaren inguruan (ontologia) zein zientziaren pertzepzioaren inguruan (epistemologia).

Era berean, korrante horiek guztiek uste dute, kokapen desberdinetatik, bakearen eta segurtasunaren ikuskera dominanteak, ikuskera inklusiboagoak eta integralagoak ukatzeaz gain, estatu, pertsona, komunitate eta/edo ekosistema gehienen biziraupenerako mehatxu bihurtu direla. Gainera, ikuskera dominanteei egindako kritikan, besteak beste, honako galdera hauek planteatu dituzte: Nork definitzen ditu bakea eta segurtasuna? Nola definitzen dira? Noren bakea eta segurtasuna? Zein interes daude interpretazio dominante horien atzean?

Laburbilduz, lehenik eta behin, zalantzan jartzen dute bakearen eta segurtasunaren definizioen izaera neutrala, hori –argudiatzen dutenez– definitzen dituenaren ikuspuntuaren eta balioen arabera. Bigarrenik, ikuskera dominantea (militarra eta estatukoa/instituzionala) zabaltzen dute, eta bakearen eta segurtasunaren aurkako beste mehatxu potentzial batzuk ere kontutan hartzen dituzte (desberdintasun ekonomikoa, neokolonialismoa, patriarkatua, antropozentrismoa, etab.). Hirugarrenik, ukatu egiten dute estatua bakeari eta segurtasunari buruzko erreferente bakarra –edo nagusia– denik, eta uste dute pertsonak direla, banaka edo kolektiboki (komunitateak, herriak, gizarte-mugimenduak, etab.), eremu horietan zeregin garrantzitsua izan dezaketenak eta izan behar dutenak (mehatxuak identifikatzean, tokiko bakea eta bake globalaren eraikuntzan, segurtasunaren hornikuntzan, etab.). Eta laugarrenik, Postestrukturalismoak izan ezik, izaera normatiboa dute, eta, beraz, beren analisiak eta proposamenak gizarte-eraldaketara eta/edo giza-emanzipaziora bideratzen dituzte.

Azkenik, korrante kritiko horiekin batera, Gerra Hotzaren osteko lehen urteetako testuinguruan, giza segurtasunaren kontzeptua sortu zen. Ideia liberaletan oinarrituta, ideia horrek "giza aurpegia duen segurtasuna" planteatzen du, estatuko segurtasunaren ikuskera tradizionaletik haratago joango dena eta pertsonak, euren beharrak eta interesak segurtasun-analisien erdigunean jarriko dituenak. Era askotara interpretatu den kontzeptua izan arren –adibidez, bi dimentsioren arteko desberdintasunak aztertu ditugu: "beldurrarekiko askatasuna" eta "beharrekiko askatasuna"–, oro har, pertsonen segurtasuna nabarmentzen du eguneroko bizitzan, baita pertsona bakoitzak bere oinarritzko premiak asetzeko, bere kabuz baliatzeko eta komunitatean modu aske eta seguruan parte hartzeko dituen gaitasunak garatzea ere. Potentzial handiko kontzeptua da, baina neurri handi batean kooptatua izan da, eta horrek edukia murriztu eta izaera eraldatzailea mugatu dio.

Testu honetan aurkeztu dugun eferbeszentzia teorikoak, bakearen eta segurtasunaren eremuetan ideia eta argudio elkartrukerako testuinguru egokia eskaintzen du; hurbilketa eta ñabardura desberdinekin osatutako menu oparoa. Baina, aldi berean, kontuan izan behar dugu, alde batetik, eztabaida egon dadin, borondatea egon behar dela; eta, bestetik, botereak (pribilegio-egoeran daudenek egikaritzen dutena) betetzen duen papera. Korrante positibisten eta postpositibisten artean dagoen dikotomia teorikoak ez dakar, nahitaez, haien arteko eztabaida ireki eta garbiri praktikan.

Orainsuko literaturan nabarmentzen da eztabaida, egun, enfoke bakoitzaren barruan gertatzen dela, hau da, korrante positibisten artean (Neorrealismoa eta Neoliberalismoa, nagusiki), alde batetik, eta postpositibisten artean, bestetik, elkarren arteko bi enfokeen artean baino. Horrek zaildu egiten du kritikak korrante dominanteetan barneratzea, hori gertatzeko erresistentziak agerikoak dira eta. Dena den, praktikak erakusten duen bezala, posible da aldaketak agertzea. Korrante kritikoak bakearen eta segurtasunaren teoria eta praktika hegemonikoan zenbait interpretazio eta ideia sartzeko gai izan dira azken hamarkada hauetan; eta, aldi berean, eztabaida eta proposamen kritikoaren heterogeneotasuna eta aberastasuna etengabe handitu eta aberastu da. "Ideien arteko lehiak", beraz, irekita jarraitzen du.

7. Bibliografia

- ABRAHAMSEN, Rita (2007): "Poscolonialism", in GRIFFITHS, Martin (ed.), *International Relations Theory for the Twenty-First Century. An Introduction*, Routledge, Londres, 111-122.
- ACHARYA, Amitav (1997): "The Periphery as the Core. The Third World and the Security Studies", in KRAUSE, Keith eta WILLIAMS, Michael (ed.), *Critical Security Studies. Concepts and Cases*, UCL Press, Londres, 299-327.
- ACKERLY, Brooke A., STERN, Maria eta TRUE, Jacqui (2006): *Feminist Methodologies for International Relations*, Cambridge University Press, Cambridge.
- AGAMBEN, Giorgio (1998): *Homo Sacer. Sovereign Power and Bare Life*, Stanford University Press, Stanford.
- AGAMBEN, Giorgio (2000): *Means without End. Notes on Politics*, University of Minnesota Press, Minneapolis.
- AMSTER, Randall (2018): "Environment, Climate Change, and Peace", in SWAIN, Ashok eta ÖJENDAL, Joakim (ed.), *Routledge Handbook of Environmental Conflict and Peacebuilding*, Routledge, Londres, 73-82.
- ANTUNES, Sandrina eta CAMISÃO, Isabel (2017): "Realism", in MCGLINCHEY, Stephen, WALTERS, Rosie eta SCHEINPFLUG, Christian (ed.), *International Relations Theory*, E-International Relations Publishing, Bristol, 15-21.
- ARADAU, Claudia (2004): "Security and the Democratic Scene. Desecuritization and Emancipation", *Journal of International Relations and Development*, 7, 388-413.
- ARON, Raymond (2004): *Paix et guerre entre les nations*, Calmann-Lévy, Paris.
- AYOOB, Mohammed (1983): "Security in the Third World: The Worm about to Turn?", *International Affairs*, 60, 41-51.
- AYOOB, Mohammed (1997): "Defining Security. A Subaltern Realist Perspective", in KRAUSE, Keith eta WILLIAMS, Michael (ed.), *Critical Security Studies. Concepts and Cases*, UCL Press, Londres, 121-146.
- BARBÉ, Esther (2007): *Relaciones Internacionales*, Tecnos, Madrid.
- BARKAWI, Tarak eta LAFFEY, Mark (2006): "The Postcolonial Moment in Security Studies", *Review of International Studies*, 32, 329-352.
- BARNETT, Jon (2007): "Environmental Security and Peace", *Journal of Human Security*, 3(1), 4-16.
- BATTISTELLA, Dario (2009): *Théories des relations internationales*, Fondation Nationale des Sciences Politiques, Paris.
- BELLAMY, Alex J. (2017): "Protecting People", in MCGLINCHEY, Stephen (ed.), *International Relations*, E-International Relations Publishing, Bristol, 123-134.
- BHABHA, Homi (1994): *The Location of Culture*, Routledge, Londres.
- BIGO, Didier (2008): "Globalised (In)security. The field and the Ban-Opticon", in BIGO, Didier eta TSOUKALA, Anastasia (ed.), *Terror, Insecurity and Liberty. Illiberal Practises of Liberal Regimes after 9/11*, Routledge, Londres, 5-49.
- BILGIN, Pinar (2010): "The 'Western-Centrism' of Security Studies: 'Blind Spot' or Constitutive Practice?", *Security Studies*, 41(6), 599-606.
- BOBBIT, Philip (2002): *The Shield of Achilles: War, Peace, and the Course of History*, Penguin, Londres.
- BOOTH, Ken (1991): "Security and Emancipation", *Review of International Studies*, 17(4), 313-326.

- BOOTH, Ken (2005): *Critical Security Studies and World Politics*, Lynne Rienner, Boulder.
- BOOTH, Ken (2007): *Theory of World Security*, Cambridge University Press, Cambridge.
- BROWN, Chris (1996): "Turtles all the Way down. Anti-foundationalism, Critical Theory and International Relations", *Millenium. Journal of International Studies*, 23(2), 213-236.
- BROWN, Chris (2001): *Understanding International Relations*, Palgrave, New York.
- BULL, Hedley (1977): *The Anarchical Society: A Study of Order in World Politics*, Macmillan, Londres.
- BURCHILL, Scott (2009): "Liberalism", in BURCHILL, Scott, LINKLATER, Andrew DEVETAK, Richard, DONNELLY, Jack, NARDIN, Terry, PATERSON, Matthew, REUS-SMIT, Christian eta TRUE, Jacqui, *Theories of International Relations*, Palgrave Macmillan, Basingstoke, 57-85.
- BURKE, Anthony D. (2007): *Beyond Security, Ethics and Violence: War against the Other*, Routledge, Londres eta New York.
- BUTLER, Judith (2004): *Precarious Life. The Powers of Mourning and Violence*, Verso, Londres.
- BUZAN, Barry (1991): *People, States, and Fear. The National Security Problem in International Relations*, Wheatsheaf Books, Brighton.
- BUZAN, Barry, WAEVER, Ole eta DE WILDE, Jaap (1998): *Security. A New Framework for Analysis*, Lynne Rienner, Londres.
- BUZAN, Barry eta HANSEN, Lene (2009): *The Evolution of International Security Studies*, Cambridge University Press, Cambridge.
- CARR, Edward H. (1939): *The Twenty Years' Crisis*, Macmillan, Londres.
- CHANDLER, David (2011a): "The liberal peace. Statebuilding, democracy and local ownership", in TADJBAKHS, Shahrbano (ed.), *Rethinking the Liberal Peace, External model and local alternatives*, Routledge, Abingdon, 77-88.
- CHANDLER, David (2011b): "Rethinking Global Discourses of Security", en CHANDLER, David eta HYNEK, Nik (ed.), *Critical Perspectives on Human Security: Rethinking Emancipation and Power in International Relations*, Routledge, Londres eta New York, 114-128.
- CHRISTIE, Ryerson (2010): "Critical Voices and Human Security: To Endure, To Engage or To Critique?", *Security Dialogue*, 41(2), 169-190.
- CHOWDHRY, Geeta eta NAIR, Sheila (2004): "Introduction. Power in a postcolonial world. Race, gender and class in International Relations", in CHOWDHRY, Geeta eta NAIR, Sheila (ed.), *Power, Postcolonialism and International Relations*, Routledge, Londres, 1-32.
- CLARK, Ian (1996): "Traditions of Thought and Classical Theories of International Relations", in CLARK, Ian eta NEUMANN, Iver B. (ed.), *Classical Theories of International Relations*. Macmillan, Hampshire eta Londres, 1-19.
- CLARK, Ian (2001): "Another 'Double Movement': The Great Transformation After the Cold War?", in COX, Michael, DUNNE, Tim eta BOOTH, Ken (ed.), *Empires, Systems and States. Great Transformations in International Politics*, Cambridge University Press, Cambridge, 237-255.
- COCKBURN, Cynthia (2004): "The Continuum of Violence. A Gender Perspective on War and Peace", in GILES, Wenona eta HYNDMAN, Jennifer (ed.), *Sites of Violence. Gender and Conflict Zones*, University of California Press, Berkeley, 24-44.
- COCKBURN, Cynthia (2007): *From where we stand: war, women's activism & feminist analysis*, Zed Books, Londres.
- CONCA, Ken (2001): "Environmental Cooperation and International Peace", in DIEHL, Paul F. eta GLEDITSCH, Niels P. (ed.), *Environmental Conflict*, Westview Press, Oxford, 225-250.

- CONNELL, R. W. (2008): "Preface: the man question, gender and global power", in PARPART, Jane L. eta ZALEWSKI, Marysia (ed.), *Rethinking the Man Question. Sex, Gender and Violence in International Relations*, Zed Books, Londres, viii-xiv.
- COOPAN, Vilashini (1992): "W(h)ither Post-colonial Studies? Towards the Transnational Study of Race and Nation", in CHRISMAN, Laura eta PARRY, Benita (ed.), *Postcolonial Theory and Criticism*, D. S. Brewer, Cambridge, 1-35.
- CORNAGO, Noé (2015): "Introducción al postestructuralismo para internacionalistas", in ARENAL, Celestino del eta SANAHUJA, José Antonio (koord.), *Teorías de las Relaciones Internacionales*, Tecnos, Madrid, 220-241.
- COX, Robert W. (1981): "Social Forces, States and World Orders: Beyond International Relations Theory", *Millennium. Journal of International Studies*, 10(2), 126–155.
- COX, Robert W. (1992): "Towards a Post-Hegemonic Conceptualization of World Order. Reflections on the Relevancy of Ibn Khaldun", in CZEMPIEL, Ernst Otto eta ROSENAU, James (ed.), *Governance without Government. Order and Change in World Politics*, Cambridge University Press, Cambridge, 132-159.
- COX, Robert W. (1996): "Influences and commitments", in COX, Robert eta SINCLAIR, Timothy (ed.), *Approaches to World Order*, Cambridge University Press, Cambridge, 19-38.
- DADDOW, Oliver J. (2009): *International Relations Theory*, Sage, Londres.
- DALBY, Simon (2002): *Environmental Security*, University of Minnesota Press, Minneapolis.
- DERRIDA, Jacques (1989): *La deconstrucción en las fronteras de la filosofía*, Paidós, Barcelona.
- DOYLE, Michael W. (1986): "Liberalism and World Politics", *American Political Science Review*, 80(4), 1151-1169.
- DUFFIELD, Mark (2008): "Global Civil War: The Non-Insured, International Containment and Post-Interventionary Society", *Journal of Refugee Studies*, 21(2), 145-165.
- DURIESMITH, David (2017): *Masculinity and New War. The gendered dynamics of contemporary armed conflict*, Routledge, Abingdon.
- DYER, Gwynne (2009): *Climate Wars. The Fight for Survival as the World Overheats*, Vintage Canada, Toronto.
- DYER, Hugh C. (2017): "Green Theory", in MCGLINCHEY, Stephen, WALTERS, Rosie eta SCHEINPFLUG, Christian (ed.), *International Relations Theory*, E-International Relations Publishing, Bristol, 84-90.
- ECKERSLEY, Robyn (2013): "Green Theory", in DUNNE, Tim, KURKI, Milja eta SMITH, Steve (ed.), *International Relations Theories: Discipline and Diversity*, Oxford University Press, Oxford, 257-277.
- ELMAN, Colin (2008): "Realism", in WILLIAMS, Paul D. (ed.), *Security Studies. An Introduction*, Routledge, Abingdon, 15-28.
- ENLOE, Cynthia (1990): *Bananas, Beaches and Bases. Making Feminist Sense of International Politics*, University of California Press, Berkeley.
- ENLOE, Cynthia (1993): *The Morning After: Sexual Politics after the Cold War*, University of California Press, Berkeley.
- ENLOE, Cynthia (1996): "Margins, Silence and Bottom Rungs. How to Overcome the Underestimation of Power in the Study of International Relations", in SMITH, Steve, BOOTH, Ken eta ZALEWSKI, Marysia (ed.), *International Theory. Positivism and Beyond*, Cambridge University Press, Cambridge, 186-202.
- ENLOE, Cynthia (2000): *Manoeuvres. The International Politics of Militarizing Women's lives*, University of California Press, Berkeley.

- ENLOE, Cynthia (2005): "What if Patriarchy is 'the Big Picture': An Afterword", in MAZURANA, Dyan, RAVEN-ROBERTS, Angela eta PARPART, Jane (ed.), *Gender, Conflict and Peacekeeping*, Rowman & Littlefield Publishers, Lanham, 280-283.
- ENLOE, Cynthia (2007): "Feminism", in GRIFFITHS, Martin (ed.), *International Relations Theory for the Twenty-First Century. An Introduction*, Routledge, Londres, 99-110.
- FARIAS FERREIRA, Marcos (2017): "Critical Theory", in MCGLINCHEY, Stephen, WALTERS, Rosie eta SCHEINPFLUG, Christian (ed.), *International Relations Theory*, E-International Relations Publishing, Bristol, 49-55.
- FEARON, James eta WENDT, Alexander (2002): "Rationalism vs. Constructivism. A Skeptical View", in CARLSNAES, Walter, RISSE, Thomas eta SIMMONS, Beth (ed.), *Handbook of International Relations*, Sage, Londres, 52-72.
- FOUCAULT, Michel (1979): *Microfísica del poder*, La Piqueta, Madril.
- FOUCAULT, Michel (1985): *Saber y verdad*, La Piqueta, Madril.
- FOUCAULT, Michel (1998): *Historia de la Sexualidad I. La Voluntad de Saber*, siglo xxi editores, México D.F.
- FOUCAULT, Michel (2006): *Seguridad, Territorio y Población. Curso en el Collège de France (1977-1978)*, Fondo de Cultura Económica, Buenos Aires.
- FRANK, André Gunder (1966): "The Development of Underdevelopment", *Monthly Review*, 18(4), 17-31.
- FRANK, André Gunder (1969): *Latin America: Underdevelopment or Revolution*. Monthly Review Press, Londres eta New York.
- GALTUNG, Johan (1969): "Violence, Peace and Peace Research", *Journal of Peace Research*, 6(3), 167-191.
- GALTUNG, Johan (1971): "A Structural Theory of Imperialism", *Journal of Peace Research*, 8(2), 81-117.
- GALTUNG, Johan (1998): *Tras la violencia, 3R: reconstrucción, reconciliación, resolución. Afrontando los efectos visibles e invisibles de la guerra y la violencia*, Bakeaz eta Gernika Gogoratuz, Bilbo eta Gernika-Lumo.
- GARCIA PICAZO, Paloma (1998): *Las Relaciones Internacionales en el Siglo XX: La Contienda Teórica*, UNED, Madril.
- GARCÍA SEGURA, Caterina (2015): "La escuela inglesa y la teoría de la sociedad internacional: propuestas críticas y reformulación", in ARENAL, Celestino del eta SANAHUJA, José Antonio (koord.), *Teorías de las Relaciones Internacionales*, Tecnos, Madril, 269-299.
- GARCÍA SEGURA, Caterina eta RODRIGO, Ángel J. (2008): "La necesidad de redefinir la seguridad: seguridad humana colectiva y Derecho Internacional", in GARCÍA SEGURA, Caterina eta RODRIGO, Ángel J. (ed.), *La seguridad comprometida. Nuevos desafíos, amenazas y conflictos armados*, Tecnos, Madril, 205-228.
- GOODHAND, Jonathan (2006): *Aiding Peace? The Role of NGOs in Armed Conflict*, Lynne Rienner, Boulder.
- GRAMSCI, Antonio (1971): *El materialismo histórico y la filosofía de Benedetto Croce*, Nueva Visión, Buenos Aires.
- GROVOGUI, Siba N. (2004): "Postcolonial criticism. International Reality and modes of Inquiry", in CHOWDHRY, Geeta eta NAIR, Sheila (ed.), *Power, Postcolonialism and International Relations*, Routledge, Londres, 33-55.
- GUZZINI, Stefano (2000): "A Reconstruction of Constructivism in International Relations", *European Journal of International Relations*, 6(2), 147-182.

- IBÁÑEZ, Josep (2015): "Socialconstructivismo: ideas, valores y normas en la política mundial", in ARENAL, Celestino del eta SANAHUJA, José Antonio (coords.), *Teorías de las Relaciones Internacionales*, Tecnos, Madrid, 189-217.
- ÍÑIGUEZ DE HEREDIA, Marta eta ROBSON, Matthew (2024): "Las transformaciones de la Paz Liberal en los albores del siglo XXI", *Relaciones Internacionales*, 55, 5-11.
- HAGEN, Jaime J. eta EDNEY-BROWNE, Alex (2023): "Queer experiences within the bounds of International Relations", *Alternatives: Global, Local, Political*, 49(3), 190-197.
- HALLIDAY, Fred (1991): "Hidden from international relations: women and the international arena", in GRANT, Rebecca eta NEWLAND, Kathleen (ed.), *Gender and International Relations*, Open University Press, Milton Keynes, 158-169.
- HAMPSON, Fen Osler (2008): "Human Security", in WILLIAMS, Paul D. (ed.), *Security Studies. An Introduction*, Routledge, Abingdon, 229-243.
- HANSEN, Lene (2010): "Ontologies, Epistemologies, Methodologies", in SHEPHERD Laura J. (ed.), *Gender Matters in Global Politics. A Feminist Introduction to International Relations*, Routledge, New York, 17-27.
- HARDING, Sandra (1991): *Whose science? Whose Knowledge? Thinking from Women's Lives*, Cornell University Press, Ithaca.
- HARDT, Judith Nora eta SCHEFFRAN, Jürgen (2019): "Construcción de paz medioambiental y cambio climático: evaluación, análisis críticos y perspectivas", in PÉREZ DE ARMIÑO, Karlos eta zirion landaluze, iker (koord.), *Pax Crítica. Aportes teóricos a las perspectivas de paz posliberal*, Tecnos, Madrid, 389-421.
- HARRINGTON, Cameron (2016): "The Ends of the World: International Relations and the Anthropocene", *Millenium. Journal of International Studies*, 44(3), 478-498.
- HOLSTI, Kal J. (1987): *The dividing discipline: hegemony and diversity in International Theory*, Allen&Unwin, Londres.
- HOLSTI, Kal. J. (1998): "The Study of International Politics During the Cold War", in DUNNE, Tim, COX, Michael eta BOOTH, Ken (ed.), *The Eighty Years' Crisis: International Relations 1919-1999*, Cambridge University Press, Cambridge, 17-45.
- HOFFMANN, Stanley (1966): "Obstinate or obsolete? The fate of the nation-state and the case of Western Europe", *Daedalus*, 95, 862-915.
- HOFFMAN, Mark (1987): "Critical theory and the interparadigmatic debate", *Millenium. Journal of International Relations*, 16(2), 231-249.
- HOMER-DIXON, Thomas F. (1994): "Environmental Scarcities and Violent Conflict: Evidence from Cases", *International Security*, 19(1), 5-40.
- HUTCHINGS, Kimberly (1999): *International Political Theory: Rethinking Ethics in a Global Era*, Sage, Londres.
- HUTCHINGS, Kimberly (2000): "Towards a feminist international ethics", *Review of International Studies*, 26, 111-130.
- HYNEK, Nik eta CHANDLER, David (2013): "No emancipator alternative, no critical security studies", *Critical Studies on Security*, 1(1), 46-63.
- ICISS (INTERNATIONAL COMMISSION ON INTERVENTION AND STATE SOVEREIGNTY) (2001): *The Responsibility to Protect*. International Development Research Centre, Ottawa (2024ko ekainaren 23an ikusia), hemen eskuragarri:
<https://www.globalr2p.org/resources/the-responsibility-to-protect-report-of-the-international-commission-on-intervention-and-state-sovereignty-2001/>

- KALDOR, Mary (2014): "Human Security", in KALDOR, Mary eta RANGELOV, Iavor (ed.), *The Handbook of Global Security Policy*, Wiley Blackwell, Sussex, 85-102.
- KALDOR, Mary (2020): "Human Security: Practical Possibilities", *LSE Public Policy Review*, 1(2), 1-8.
- KEOHANE, Robert O. (ed.) (1989): *International Institutions and State Power. Essays in International Relations Theory*, Westview Press, Boulder.
- KEOHANE, Robert O. (2002): *Power and Governance in a Partially Globalized World*, Routledge, Londres eta New York.
- KEOHANE, Robert O. eta NYE, Joseph S. (1977): *Power and Interdependence. World Politics in Transition*, Little Brown and Company, Boston.
- KLARE, Michael T. (2002): *Resource Wars: The New Landscape of Global Conflict*, Metropolitan Books, New York.
- KLEIN, Bradley (1994): *Strategic Studies and World Order. The Global Politics of Deterrence*, Cambridge University Press, Cambridge.
- KRASNER, Stephen D. (1983): *International Regimes*, Cornell University Press, Ithaca.
- KRASNER, Stephen D. (2001): "Rethinking the Sovereign State Model", *Review of International Studies*, 17(5), 17-42.
- KRAUSE, Keith (1998): "Theorizing Security, State Formation and the 'Third World' in the Post-Cold War World", *Review of International Studies*, 24, 125-136.
- KRAUSE, Keith (2005): "Seguridad humana: ¿ha alcanzado su momento?", *Papeles*, 90, 19-30.
- KUHN, Thomas S (1962): *The Structure of Scientific Revolutions*, University of Chicago Press, Chicago.
- LARENAS, Angie (2013): "La confluencia entre estudios críticos de seguridad y seguridad humana: las dinámicas de inclusión y superación". *Relaciones Internacionales*, 23, 81-98.
- LINKLATER, Andrew (1996): "Hegel, The State and International Relations", in CLARK, Ian eta NEUMANN, Iver B. (ed.), *Classical Theories of International Relations*, Macmillan, Hampshire eta Londres, 193-209.
- MACKENZIE, Megan (2010): "Securitization and de-securitization: female soldiers and the reconstruction of women in post-conflict Sierra Leone", in SJOBERG, Laura (ed.), *Gender and International Relations. Feminist Perspectives*, Routledge, Abingdon, 151-167.
